



ZUZENBIDE
FAKULTATEA
FACULTAD
DE DERECHO

Kriminologiako Gradua

**BABES AUTONOMOKO
NEURRIAK GENERO
INDARKERIAZKO DELITUEN
AURREAN**

2022-2023 Ikasturtea

Egilea: Andrea Marauri
Zuzendaria: Auxkin Galarraga

Laburpena

Genero-indarkeriako delituak arazo sozial garrantzitsuak dira, eta azken urteetan prebenitzen saiatu da, delitu horiek desagerraraztea edo minimizatzea lortuko duen berdintasun handiagoa lortzen saiatzen. Horregatik, lan honen lehen zatian prebentzioaz, babes autonomoaz eta segurtasun-sentsazioaz hitz egingo da. Lanaren bigarren zatian gazteengan eta gaian adituengan zentratu nahi izan da, eta haiek hautematen dutena. Horretarako, metodologia kualitatibo bat erabili da, gidoi erdi-egituratu bat sortzen elkarriketa sakonak egiteko eta pertsona horien esperientziak hobeto ezagutzeko.

Hitz gakoak: Genero indarkeriako delituak, prebentzioa, babes autonomoa, segurtasun-sentsazioa.

Resumen

Los delitos de violencia de género son una problemática social relevante, tratando de prevenirlo en los últimos años para intentar lograr una igualdad mayor que consiga erradicar o minimizar estos delitos. Es por eso por lo que en la primera parte de este trabajo se hablará de la prevención, de la protección autónoma y de la sensación de seguridad. En la segunda parte del trabajo he querido acercarme a la juventud y lo que ellos perciben, para ello me he valido de una metodología cualitativa para la creación de un guion semiestructurado que he utilizado para hacer entrevistas profundas, pudiendo conocer mejor las experiencias de estas personas.

Palabras clave: Delitos de violencia de género, prevención, protección autónoma, sensación de seguridad.

Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Marko Teorikoa	8
2.1. Prebentzioaren Kontzeptua Kriminologian	8
2.1.1. Kontrol Soziala.....	10
2.1.2. Prebentzio Eredu Ezberdinak.....	11
2.1.3. Prebentzioa Genero Indarkeriazko Delituetan	17
2.1.4. Genero Indarkeriazko Delituetan Prebentziorako Neurriak	20
2.2. Babes Autonomoa.....	22
2.2.1. Prebentzio Instituzionala vs Prebentzio Autonomoa Genero Indarkeriaren Arloan.....	22
2.2.2. Babes Autonomoaren Kontzeptua eta Neurriak	24
2.2.3. Babes Autonomoa Emakumeen Aurkako Delituetan	24
2.2.4. Babes Autonomoaren Neurrien Adibideak	26
2.2.5. Genero Indarkeriaren Aurkako Komunikazio Kanpainak eta Babes Autonomoa	30
2.3. Hautemandako Segurtasuna edo Segurtasun-Ezaren Sentsazioa.....	34
2.3.1. Segurtasun Ezaren Sentsazioa Arazo Sozial eta Politiko Gisa	34
2.3.2. Segurtasun Sentsazio Objektiboa vs Segurtasun Sentsazio Subjektiboa	36
2.3.3. Segurtasun Sentsazioa Emakumeen Artean	37
2.3.4. Segurtasun Sentsazioa Ikerketa Gai Gisa.....	38
2.3.5. Komunikabideen Eragina Segurtasun Ezaren Sentsazioan	41
2.4. Segurtasun Sentsazio Handiagoa vs Beldur Sentsazio Txikiagoa.....	42
2.4.1. Segurtasun Sentsazio Handiagoaren Kontzeptua.....	42
2.4.2. Beldur Sentsazio Txikiagoaren Kontzeptua	45
2.4.3. Alderaketa	46
3. Metodologia	48
3.1. Teknikak.....	48
3.1.1. Elkarrizketa Erdiegituratuak	48
3.1.2. Dokumentazio Lana	55
3.2. Zailtasunak.....	56
3.3. Kronograma	58

4. Analisia	60
4.1. Ikertutako Kontzeptuen Analisia	60
4.1.1. Prebentzioa	60
4.1.2. Babes Autonomoa.....	63
4.1.3. Segurtasun Sentsazioa.....	66
4.2. Emakumeen Ikuspegia	68
4.3. Gizonen Ikuskerak	72
4.4. Gizon eta Emakumeen Arteko Desberdintasunak.....	74
4.5. Adituen Ikuspegia	81
5. Ondorioak eta Hobekuntza Proposamenak	90
6. Bibliografia	96
7. Eranskinak	104
7.1. “Guía para Sensibilizar y Prevenir desde las Entidades Locales la Violencia contra las Mujeres”-ko Kontrol Zerrenda.....	104
7.2. Elkarrizketen Gidoia.....	104
8. Txosten Exekutiboa	107

1. Sarrera

Genero indarkeriazko delituen gaiak gizartean oihartzun handia du, batez ere, berriki jakin denean azkenengo 20 urteko 1203. biktima hil egin zela genero indarkeriazko delituen eskuetan. Gradu Amaierako Lan honen ikerketa eta helburu orokorra emakumeen aurkako erasoak ekidite aldera diseinatutako komunikazio kanpainek babes autonomoko neurriak zein modutara tratatu eta islatzen dituzten aztertzea izan da. Helburu orokor honez gain bi helburu espezifiko zehaztu dira. Batetik, biktima potentzialak izan daitezkeen emakume gazteen segurtasun pertzepzioan izan dezaketen eragina aztertu nahi izan da. Bestetik, gizonezko gazteen ikusmoldea eta haien jokamoldeak ere aztertu nahi izan dira; horretarako hiru hipotesien frogatzea izan dut helburu zehatz gisa. Hori dela eta garrantzitsua da gai hauek ikertzea eta hauen prebentziorako proposamen berriak ekartzea.

Hiru oinarri edo arlo nagusien azterketa erabili egin ditut lan honen objektua zehaztu ahal izateko:

- 1) **Genero indarkeriako delituen prebentzioa.** Prebentzioaren alorra kontrol sozialaren eskutik aztertu da, bere hiru motak begiratzuz (primarioa, bigarren mailakoa eta hirugarren mailakoa) erabili da oinarri metodologiko gisa. Orduan, genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpainen helburua emakumeen jokamoldeetan ala delitugileen portaeretan arreta jartzen denaren azterketan oinarrituko naiz.
- 2) **Babes autonomoa.** Kontzeptu hau prebentzioaren alderdi bat bezala ulertu dezakegu, izan ere, izaera propioa duen kontzeptu bat bezala ikertu nahi izan dut bakoitzak neurri hauek bere buruarengan aplikatzen dituelako, baina horrek ez duelako esan nahi pertsona guztiak babes autonomoko neurri berdinak aplikatzen dugunik gure buruari, ezta aplikatzen dituztenik pertsona guztiek. Hori dela eta, kontzeptu honen ikerketa interesgarria izango da delitu hauetan, bereziki egoera berdinen aurrean neurri ezberdinak hartzen baditugu, edo neurri gehiago edo gutxiagoren hartzea generoaren arabera.
- 3) **Segurtasun sentzazioa.** Azkenengoa, baina beste bi oinarrien lotura ekartzen duena. Azkenean, babes autonomoko neurriak hartzen dira genero indarkeriaren aurkako prebentziorako neurriak segurtasun sentzazioa handitzen lortzen ez dutelako (nahiz eta beste faktore batzuk egon, sentzazio hau egoera eta testuinguru ezberdinekin aldatzen da eta). Beste metodo batzuegatik segurtasun sentzazioa lortzeko aukera egon badago, baina ez

da lortzen, eta horregatik norbanakoek beste neurri batzuk hartzen dituzte bere buruarengan, babes autonomoa sortzen modu honetan. Aipatu beharra dago segurtasun sentrazio hau ez dela objektiboki neurtzen pertsona bakoitzeko, baizik eta pertsona bakoitzak bere subjektibotasunean neurtuko duela, egoera berdinak segurtasun sentrazioa handiagoa edo txikiagoa sortzen pertsonaren bizipen eta inguru sozialaren arabera.

Esan bezala, ikerketa hau hiru hipotesien bidez bideratu da:

1. Genero indarkeriako delituekiko ez da segurtasun sentrazioa handitzen, baizik eta beldur gutxiago sentitzen da. Hipotesi hau genero indarkeriako delituetan prebentzio-neurriak aplikatzean sortzen den sentrazio-aldaketari dagokio, nahiz eta galderak egiterakoan haien bizi-eremuan zentratu (Donostian edo Oarsoaldean) orokorki erantzuten zuten, hortaz hiri edo herrien arteko ezberdintasunak ikusteko aukerak ere egongo dira.
2. Emakumeek genero indarkeriako delituen aurrean segurtasuna bilatzeko gehien bat erabiltzen dituzten neurriak Babes Autonomoko neurriak dira. Hipotesi hau genero indarkeriako delituetan babes autonomoko neurriak zeinek aplikatzen duenari egiten dio erreferentzia, emakumeak egiten baitute eta gizonezkoak ez; horrez gain, gobernuak errazten dituen neurriak baino erabiliagoak direlaren pentsamendua dagoela kaleetan.
3. Gazteen pertzepzioa erakunde publikoen genero indarkeriaren aurkako neurrien inguruan hauek eznahikoak direla da. Hipotesi hau beste bi hipotesiekin erlazionatuta dago, azken finean eraginkortasun falta honen sentrazioak ekartzen du babes autonomoko neurriak hartu behar izatea eta segurtasun sentrazioa handitu beharrean beldur gutxiagoko sentrazioa izatea genero indarkeriako delituekiko.

Ikerketa kualitatiboaren bidez gerturatu naiz aztertu nahi nuen gaira. Horretarako zazpi elkarrizketa erdiegituretuak egin ditut, horietako sei 15-25 urte arteko gazteekin, gizonezko 3 eta emakumezko 3, eta azkenengoa gaian aditu batekin, guztiak izanda Donostiakoak edo Oarsoaldeakoak. Talde hau hautatu egin dut, aurrerago azalduko dudana bezala, genero indarkeriako delituen biktimen gehiengoa adin tarte horretan aurkitu dezakegulako eta, leku ezberdinetako jendea hartuz, pertsona hazi den eremua aldatzerakoan segurtasun sentrazioaren aldaketak sortzen dituen jakiteko.

Txostenaren antolaketa ondorengoa da: lehenengo kapituluak marko teorikoa ikusiko dugu, bertan intereseko kontzeptuak eta hauen eragina gizartean (edo

gizartearen eragina hauengan) aurkezten da. Ondoren, metodologian, zein teknika erabili egin diren eta hauen erabilpenean eta aplikazioan egon diren zailtasunak. Hirugarren atalean datu kualitatiboan analisia aurkitzen dugu, hurrengo atalaren ondorioak sustatzen. Bukatzeko, ateratako ondorio batzuk azalduko ditut eta hainbat proposamen aurkeztuko ditut gai hauei buruz.

2. Marko Teorikoa

Jarraian garatuko den marko teorikoak proiektu honen garapena ulertzeko beharrezkoak diren oinarritzko kontzeptuak ezagutzeko aukera emango du.

Lehenik eta behin, kriminologiaren baitan gauzatu diren prebentzioaren definizio eta interpretazioak erreparatuko dira, hitz hori bera gizarte-zientzia batetik edo beste batetik ulertzeak duen garrantzia ulertu beharra dagoelako, eta horrek ikuspegiari ematen dion aldaketa ikusteko, GRAL honetan esanahi horietako zein aplikatuko dudana zehaztuz. Atal berdinean kontrol soziala, eredu desberdinak, prebentzioa genero indarkeriako delituetan eta genero indarkeriazko delituen prebentzio neurriak azaldu egingo dira.

Ondoren, babes autonomoa azalduko da, bai orokorki bai emakumeen aurkako delituen aurka. Terminoa definituko da eta prebentzio instituzionaletik aldentzen duten arrazoiak azalduko dira, horretaz gain proiektu honetan dagozkigun delituetan nola erabili behar den zehaztuko da, babes autonomoaren kontzeptuan zer neurri sartuko liratekeen erakusten duten adibide argiak emanez.

Segurtasun-sentsazioaren edo hautemandako segurtasunaren deskribapenarekin jarraituko dugu. Kontzeptua aipatuko da, gizarte-arazoa zergatik den azalduko da eta komunikabideek horretan nola eragiten duten azalduko da. Gainera, kontzeptu hori objektiboa eta subjektiboa izan daitekeela azalduko da. Bigarren kontzeptu hori azpimarratua izango da, eta ikerketa-gai gisa proposatuko da.

Azkenik, segurtasun-sentsazio handiagoa eta beldur-sentsazio txikiagoa bereizi behar dira. Hain antzekoak eta aldi berean desberdinak diren bi kontzeptu horiek hobeto definitzeko, adibide gisa, bi egoera berdin planteatuko dira, ezberdintasun batekin: lehenengoan, segurtasun-sentsazio handiagoa izateko neurriak hartuko dira; bigarreanean, berriz, beldurra murrizteko neurriak hartuko dira.

Marko teoriko honen bidez, GRALaren garapena ulertu ahal izango da, eta erabilitako metodologiaren bidez, dagokion atalean garatutako emaitzak lortuko dira.

2.1. Prebentzioaren Kontzeptua Kriminologian

Prebentzioa definitu egin da neurri-multzo bat bezala, gertaera bat gerta ez dadin (edo gertatu bada, ez errepikatzeke) edo maiztasun edo larritasun txikiago batean gerta dadin (Jarque Llamazares, 2008).

Hiru prebentzio mota aurki ditzakegu: primarioa, bigarren mailakoa eta hirugarren mailakoa. Izan ere, autoreen arabera ezberdintasunak aurkitzen ditugu hauen definizio edo azalpenetan.

Fernández-en (2017) arabera, lehen mailako prebentzioa komunitateak egiten duen prebentzian oinarritzen da (kontrol soziala); bigarren mailakoa, berriz, delituak egiteko joera duten pertsonen buruzkoa da edo hauei bideratua, eta hirugarren mailakoa, berriz, delitugilea juridikoki eta penalki berriz sozializatzeko¹ eta gizarteratzeko². Kasu honetan, naiz eta sozialki, komunitarioki edo egoerarekiko bideratzen den, beti delitugilea (edo delitugile potentziala) izaten da ikuspuntuan. Praktikan ez da bakarrik hau egiten, neurriak ez direlako bakarrik delitugilearekiko (edo delitugile potentzialarekiko) aplikatzen, egunerokotasunean biktimarekiko edo ingurunearekiko bideratu daiteke kontrol sozial hau.

Jarque Llamazaresen (2008) arabera, prebentzio motak ondorengo moduan definitu daitezke: aukerak murrizteko (prebentzio primarioa), arazoak finkatzea saihesteko (bigarren mailako prebentzioa) eta kalteak gutxitzeko eta errepikapenak ekiditeko (hirugarren mailako prebentzioa). Hauek delitugileari, biktimari, komunitateari edo ingurumenari begira egin daitezke, modu ezberdinetan aplikatzen beti ere. Bigarren definizio hau, nahiz eta sinpleagoa izan, helburu edo bideratze ezberdin gehiago dauzka (esan bezala, delitugilean, biktiman eta komunitatean edo ingurumenean aplikatzen ditu hiru prebentzio mailak) eta praktikan errazagoa da aplikatzen, azkenean ez delako delitugile bat agertu arte itxaron behar (eta honek kooperatu nahi izatea horrelako prebentzian) prebentzio-neurriak hartzen hasteko.

Ikuspuntu kriminologikotik bi prebentzio mota bereizten dira. Alde batetik delituzko jokabidearen prebentzioaz hitz egiten da, delitugileak nola sortzen diren oinarri gisa erabiltzen; hau da, pertsona batek delituak egitea edo delitu-jardueretan parte hartzea eragiten duten bizi-baldintzak zein diren aztertzea eta honetan eragitea. Beste aldetik biktimizazioaren prebentzioa, non delituei mesede egiten dieten testuinguruak eta biktima izatera eraman ditzaketen ohiturak edo jarrerak kontuan hartzen diren hauetan aldaketa bat sortzeko biktimizazio hori murriztu ahal izateko (Barberet Havican, 2006).

¹Sozializazioa pertsonen arteko lotura sozial gisa ulertuz.

²Gizarteratzea gizartearentzat baliagarria izateaz ulertuz (enplegu bat izanda eta ekarpen ekonomikoak eginda)

Barberet Havicanek (2006) aipatzen du Kriminologiak, Soziologiak eta Psikologiak (Soziala eta Ebolutiboa) gizarte-prebentzioaren³ eta prebentzio ambientalaren⁴ kontzeptuak garatu egin dituztela (soziologiak egoeraren prebentzioa⁵ aipatzen du). Honek argi uzten du prebentzioaren alorra ikuspegi ezberdinak izan dituela eta ezagutza arlo desberdinen eskutik landu egin dela.

Esan bezala, prebentzio mota hauek helburu bat baino gehiago izan dezakete edo, hobeto esanda, xede ezberdinak daude, eta hemen sartzen da ikerketaren arazoa. Delituak burutzen diren momentuan, prebentzioari begira mota ezberdinetako ekimenak jartzen dira martxan, eta genero indarkeriako delituetan erakunde publikoetatik at dauden neurriak pisu garrantzitsua dutela ikusiko dugu.

2.1.1. Kontrol Soziala

Prebentzioaren kontzeptua ezagutu ostean, kontrol sozialaren kontzeptua sartu beharra dago. Kontrol soziala prebentzio mota bat bezala ikusi daiteke, hainbat korranteetan indarra duen termino bat da eta.

Kontrol sozialak, delitugilea bere delituagatik ezarritako zigorra betetzen duela ziurtatzeaz gain, delitugilea tratatzeko eta delituak prebenitzeko balio du. Kontrol soziala, orokorrean, formala (jokabidea arautzen duten arau eta prozedura publikoen bidez arautua) edo informala (sistema osoa egituratzen duena instituzio formaletatik kanpo) izaten da (García Álvarez, 2013).

Esan bezala, kontrol sozialak bi mota dauzka (formala eta informala), baina horretaz aparte bi horiek aplikatzerako orduan agente batzuk edo beste batzuk sartuko dira, azpimotak sortzen. Adibidez, kontrol sozial formalean poliziaren eskutik edo zuzenbidearen adar batetik etorri daiteke eta kontrol sozial informalean familiaren arlotik edo bizilagunaren eskutik etorri daiteke. Lan honetarako interesatzen zaiguna horietako azpimota bat da, azpimota hau kontrol sozial informalaren barruan aurkitu dezakegu: kontrol sozial informala maila indibidualera eramanda. Kontzeptu hau aurrerago azalduko da modu egokiago eta zehatzago batean.

³Gizarte prebentzioa politika publiko, programa eta ekintza multzo bat bezala ulertzen, zeinak indarkeria eta delinkuentzia sortzen laguntzen duten arrisku-faktoreak murriztera bideratuta dagoena, bai eta arrisku-faktore horiek eragiten duten kausa eta arrazoiei aurre egitera ere.

⁴Prebentzio ambiental gertakari kriminalak aztertzea, ez delitugilearen ikuspegitik testuinguru batetik kanpo dagoen subjektu indibidual gisa, baizik eta delitu bat egiteko arrazoitako kriminal baten arteko topaketaren emaitza gisa, espazioaren eta denboraren une espezifikoetan izan daitezkeen delitu-helburuez inguratuta bezala ulertzen.

⁵Egoeraren prebentzioak, espazioak, giroak edo eraikitakoak esku hartuz delituaren aukera murriz dezaketen estrategia eta modu guztiei egiten die erreferentzia.

2.1.2. Prebentzio Eredu Ezberdinak

Prebentzioa hain zabala izanda eta kontrol soziala aurkituz haren barnean, interesgarria da ikustea prebentzio eredu ezberdinak daudela geroago azaltzeko nola hauek genero indarkeriazko delituetara eraman daitekeen.

2.1.2.1. Prebentzio Komunitarioa

Komunitatearen eremuko prebentzio-jarduerak pertsonak beren ingurunearekin duten elkarreraginaren garrantzian oinarritzen dira, eta jokabide antisozialak murriztera bideratuta daude, erakundeekin, hezitzaileekin, gurasoekin, profesionalekin eta gainerako gizarte-eragileekin horrelako jarduerak bilatuz, arazoa identifikatzeko eta gizartearen mesederako konponbide bateratuak aurkitzeko (Ayuntamiento de Irun, 2018).

Ikusten denez bere definizioan bertan, prebentzio komunitarioa kontrol sozial informalean pisu handia jartzen du, gizarte-eragileei protagonismo handia ematen dion korrante bat delako. Esan bezala, kontrol sozial informala sistema osoa egituratzen dituzten instituzio ez-ofizial guztiak dira, hortaz gizarte-eragile guzti hauek bertan sartzen dira.

Jokabide antisozialak murrizteko hainbat gauza egin daitezke, ez bakarrik horrelako bat ikusterakoan agintari egoki batekin hitz egitea (polizia, adibidez), baizik eta jarrera horiek gertatu baino leheneko hainbat gauza. Horien artean aurkitu ditzakegu, adibidez, informazio eta orientazio kanpainak egitea komunitatearen bidez, auzo-patruilak, gizarte-bazterkeria jasotzeko arriskuan dauden pertsonengan laguntza bermatzea...

Hala ere, prebentzio komunitario hau ez da eksklusiboki ingurune fisikoan geratzen, gaur egun, prebentzio komunitarioa materiagabeko ingurune batean ikusi egin daiteke ere Internetari esker. Azken finean, ziberespazioan gertatzen dena gauza berdina da, pertsonak beren ingurunearekin elkarreragiten dute, nahiz eta anonimotasun ildo bat egon, fisikoki mundu errealean egiten diren gauzetako asko oraindik egiteko ahalmena badago.

Ziberespazioan ematen den prebentzio komunitario hau da gazteengan gehien iristen den prebentzio mota, azkenean median 1058 ordu urtera ematen dituzte sare sozialetan (UNICEF, 2021). Sare sozial hauek, analisisan ikusiko dugun moduan, hainbat joera (edo Interneten deitzen den bezala, *trend*) sortu izan dituzte non genero indarkeriako delituen prebentziorako oso lagungarriak izan diren eta prebentzio

komunitarioaren definizioan sartzen dira (Interneteko komunitatean edo sare sozial konkretu baten komunitatean gertatu izan dira eta).

2.1.2.2. *Situational Crime Prevention (SCP)*

Prebentzio komunitarioan erabili daitekeen estrategia bat izan arren, modu independente batean erabili daiteke. Eredu hau, ondorengo paragrafoetan ikusiko dugun moduan, kontrol sozialean pisu handia jartzen du ere, horregatik prebentzio komunitarioarekin batera erabiltzea erraztasunak ekartzen ditu beste prebentzio mota batzuekin konparatu egiten badugu.

Prebentzioaren kontzeptua kriminologian definitu den momentuan azaldutako prebentzio motetan sartu daiteke eredu hau, zuzenki prebentzio primarioan, delitu aukerak murriztera bideratua dagoena. Baieztapen honek ez du erreferentzia egiten zuzenean edo eskusiboki aukera kantitatea jaisteari, beste modu edo bide batzuk daude helburu berdina lortzeko, eta bertan sartzen da *Situational Crime Prevention* deiturikoa, edo motzean SCP (Clarke, 1980). Eredu hau begiratuz ikusi dezakegu bere barnean bost estrategia daudela (konkretuki esfortzuak handitzea, arriskuak igotzea, helburuak murriztea, probokazioak murriztea eta aitzakiak ezabatzea). Ikus dezagun, beraz, zertan datza SCP eta zer diren bost elementu edo estrategia horiek.

Clarkeren (1980) arabera, SCP-a delitu edo arazo bat detektatu den leku eta egoeretan delitua murrizteko eta, ondoren, prebenitzeko esku-hartze estrategia bat da. Delitu-mota oso espezifikoean eta delitua egiteko aukeretan zentratzen da (eta ez arrazoietan). Hipotesiak zehazten dituen diagnostiko bat ematen du, baita soluzio-proposamen ugari ere. Ondoren, inplementatu egiten da eta honen eraginkortasuna ebaluatzen da.

Esku-hartze teknika horiek eboluzionatzen joan dira urteetan zehar, Clarke zortzirekin bakarrik hasi bazen ere, Cornish eta Clarke (2003) hogeita bostera igo baitzituzten (lehen aipatutako bost helburutan multzokaturik). Helburu eta teknika berri hauen ikuskapen zehatzago bat izateko, bakoitza zerri buruz ari den jakin behar da eta zein teknika multzokatzen diren helburu bakoitzaren baitan:

- **Ahaleginak handitzea.** *Increasing the effort.* Delitu bat burutzea zailago egitea, edo, gutxienez, zailtasun hori itxuratzea edo delitugile potentzialari sinestaraztea. Delitugile potentzialaren pertzepzioan eragitea da kontua.
 - **Helburuak zailtzea.** *Target harden.* Adibidez, garraio publikoko gidariei babes pantailak jartzea agresio fisikoak edo lapurretak zailtzeko.

- **Sarbideak kontrolatzea.** *Control access to facilities.* Adibidez, bankuetan diru kantitate handia dauden lekuetara txartelarekin sartzea, lapurretak zailtzen.
- **Irteeren bigilantzia.** *Screen exits.* Adibidez, aparkalekueetatik ateratzeko tiket bat behar da, eta askotan matrikula erregistratzen du (kointziditu behar du sartzera eta ateratzera).
- **Urratzaileak desbideratzea (sakabanatzea?).** *Deflect offenders.* Adibidez, gaueko aisialdirako lokalak hirian zehar egotea, ez bakarrik zonalde bakar batean, gau-aisialdi delituak murrizteko.
- **Bideratzaileak kontrolatzea.** *Control tools/weapons.* Adibidez, armen kontrola edo kristalezko botilak sendagoak egitea (hauen apurtzea arma zuri gisa erabiltzeko zailtzen), borrokak ekiditeko edo hauen larritasuna apaltzeko.
- **Arriskuak handitzea.** *Increasing the risk.* Delitu bat antzemateko aukerak altuagoak izatea, delitugileek horren berri dutela ziurtatu behar da edo ez du eraginkortasunik izango.
 - **Zaindarien kopurua handitzea.** *Extend guardianship.* Adibidez, gauez taldean ateratzea, mugikor deiak egitea bakarrik joaterakoan edo polizia kantitatea igotzea.
 - **Zaintza erraztea.** *Assist natural surveillance.* Adibidez, argiztapena hobetzea espazioa publikoetan eta kalean.
 - **Anonimatoa murriztea.** *Reduce anonymity.* Adibidez, taxietan identifikazio-zenbakia argi jartzea.
 - **Tokiko kudeatzaileak⁶ sartu.** *Utilize place managers.* Adibidez, saltzaile bat baino gehiago dendetan edo kamerak (ikusgarriak) edukitzea dendetan.
 - **Zaintza formala indartzea.** *Strengthen formal surveillance.* Adibidez, alarmak jartzea edo segurtasun-guardiak egotea.
- **Helburuak murriztea.** *Reducing the rewards.* Delituaren errentagarritasuna edo errentagarritasun-itxaropenak murriztea. Errentagarritasuna ez da soilik esparru ekonomiko bati buruzkoa, delitugileak "onuratzat" hartzen duen edozer izan

⁶Eck-en (2023) Kriminalitatearen Triangeluari egiten dio erreferentzia. Bertan azaltzen denez, delitu bat gertatzeko hiru elementu behar dira: arau-hausle motibatua, biktima eta aldi berean leku berean egotea bi horiek. Hala ere, delitu horiek murriztu edo saihestu egin litezke lehen hirurak babesten edo kontrolatzen dituzten beste hiru elementurekin: gai den jago edo zaintzaile bat (biktima), kudeatzaile bat (lekua) eta kontrolatzaile bat (delitugilea). Kudeatzaile mota honi egiten dio erreferentzia.

daiteke (adibidez: ebasketaren kasuan diru-zorro bat, bortxaketaren kasuan pertsona bat, lapurretan alarmerik gabeko kotxe bat...).

- **Objektiboak ezkutatu.** *Conceal targets.* Adibidez, bankuetako furgonetak identifikatzailerik ez izatea edo erakusleihoetan saltzen denaren kopiak jartzea.
- **Objektiboak kentzea.** *Remove targets.* Adibidez, mehatxatutako emakumeentzako babeslekuak egotea.
- **Jabetza identifikatzea.** *Identify property.* Adibidez, txasisaren zenbakia ikusgarria izatea.
- **Delitu-merkatuei kalte egitea.** *Disrupt markets.* Adibidez, lapurtutako objektuen salmenta kontrolatzea.
- **Onurak ezabatzea.** *Deny benefits.* Adibidez, graffitiak berehala ezabatzea edo lapurtutako dispositiboak urrutitik desgaitzea edo blokeatzea ezin saltzeko.
- **Probokazioak murriztea.** *Reducing provocations.* Delitua egitera eraman dezaketen xedapen emozional iragankorrak saihestea edo murriztea. Xedapen horiek fisikoak (ageriko baliozko objektu bat) edo psikologikoak (maneiatzeko erraza den pertsona bat) izan daitezke.
 - **Frustrazioak/estresa murriztea.** *Reduce frustrations and stress.* Adibidez, leku nahiko egotea garraio publikoan.
 - **Eztabaidak saihestea.** *Avoid disputes.* Adibidez, kirol partidetan aurkakoak diren ekipoetako zaleak eserleku bananduetan egotea eta sarrera/irteera ezberdinak izatea.
 - **Tentazioa eta aktibazio emozionala murriztea.** *Reduce emotional arousal.* Adibidez, indarkeriazko pornografiaren zabaltzea saihestea (nahiz eta bizitza errealean ez gertatu indarkeria hori eta bakarrik irudikatuta edo antzeztuta egon).
 - **Pare-taldearen presioa neutralizatzea.** *Neutralize peer pressure.* Adibidez, drogen aurkako kanpainak eskola osoan zabaltzea eta ez bakarrik ikastaro batean.
 - **Imitazioak burutik kentzea.** *Discourage imitation.* Adibidez, bandalismoaren kalteak azkar konpontzea jendea ez ikusteko eta horren errepikapena ez egiteko beste leku batean.
- **Aitzakiak ezabatzea.** *Removing excuses.* Jokabide-arauak argitzea, arau-hauslearen erruduntasun-sentimenduak areagotzea edo delituzkoak ez diren aukerak erraztea.

- **Arauek ezartzea.** *Set rules.* Adibidez, jazarpenaren aurkako enpresa-politikak jartzea.
- **Jarraibideak ikusaraztea.** *Post instructions.* Adibidez, jabetza pribatuaren edo ez aparkatzeko seinaleekin.
- **Kontzientziazioa.** *Alert conscience.* Adibidez, alkoholaren ondorioei buruzko trafiko kanpainak.
- **Arauekiko adostasuna sustatzea.** *Assist compliance.* Adibidez, aire zabaleko ekintzetan komun publikoak jartzea, kalean txiza ez egiteko araua betetzeko.
- **Drogak eta alkohola kontrolatzea.** *Control drugs and alcohol.* Adibidez, alkoholometroak aparkalekuetan edo bertatik gertu jartzea, gidariak berak jakiteko positibo emango duen edo ez kotxera igo baino lehen (positiboa emanaz gero ibilgailura ez litzateke igoko).

Eck-k (2006) berrikuspen sistematiko bat egin zuen, prebentzio orokorrean neurri eraginkorrenak zeintzuk ziren antzemateko. Hiru teknika izan ziren nabarmenki eraginkorrak: drogen salerosketaren murriztea, polizien eta bizilagunen arteko lankidetzaren eta argiztapena hobetzeak. Drogen salerosketa murriztea kontrolaren bidez lortzen da, eta "aitzakiak murriztu" zutabearen elementu bat da. Polizien eta bizilagunen arteko lankidetzaren bi elementuen barruan sartu daiteke, bai zaindarien kopurua handitzean bai tokiko kudeatzaileak atalean, baina biak zutabe berdinean daude, arriskuak handitzearen zutabearen. Azkenik, argiztapena hobetzeak, zaintza erraztearen elementuaren barne sartuko litzateke, arriskua handitzearen zutabearen sartzen lehen aipatutakoarekin batera. Hiru neurri hauek, bi zutabe barruan banandurik, delituak %43raino murrizteak eragiten zuen Eck-ek frogatu zituen auzoetan.

Emakumeen aurkako delituak gertatzen direnean, gehien erabiltzen diren esku-hartze teknikak *helburuak* (biktimak kasu honetan) *murriztea* edota *probokazioak murriztea* da, nahiz eta teknika eraginkorrenen artean ez egon (Eck-ren berrikuspenean oinarriturik). Azkenean, defentsa neurriak beti emakumeengan jartzen dira eta (bakarrik ez bueltatu etxera, ez joan gauan bertan ezagutu duzun norbaitekin, arropa probokatzailerik ez jantzi, alkohol gutxi edo ezer ez edan...) (Vitoria-Gasteizko Udala, 2017).

Orduan, hiru elementuak batera joaten dira: emakumea, kontrol soziala eta prebentzioa. Nola? Emakumea (biktima izanda) kontrol sozial informala burutu behar duelako bere buruarengan, prebentzio primarioko estrategiak bere egoeran aplikatuz.

Elementu hauek horrela batzeak ekartzen duena, gehienetan, emakumeen segurtasun sententzioa egoerarekin bat ez etortzea, prebentzioa bere esku uzten delako beste kanpotik jaso beharrean beste delitu askotan gertatzen den moduan (Vitoria-Gasteizko Udala, 2017).

Hiru elementu hauek egia da batera joan beharko zirela, baina beste modu batean, adibidez emakumea (biktima izanda) kontrol sozial informala jasotzea (bere inguruko denda batzuk irekiak daudelako, jendearen bistan egonda horrela, adibide bat jartzearengatik) prebentzio primarioko estrategiak sortzen horrela.

2.1.2.3. Crime Prevention Through Enviromental Design (CPTED)

Crime Prevention through Environmental Design: Applications of Architectural Design and Space Management Concepts (Crowe, 2000) lanean adierazi zen eraikitako ingurunearen diseinu egokiak eta erabilera eraginkorrak beldurra eta delituaren eragina murriztea eta bizi-kalitatea hobetzea ekar dezakeela. Terminoa Jefferyk sortu zuen lehen aldiz (1971. urtean), eta oraindik ere gehien erabiltzen den definizioa da berea.

Aipatutako CPTED honek lau zutabe ditu bere helburuak betetzeko: pertsonen partehartzea, mantentze-lanak, behar bereziak eta jarduera positiboak. Zutabe bakoitzak, bere barne, hainbat elementu edo jarraibide dauzka:

- **Pertsonen partehartzea.** Segurtasun-pertzepzioa hobetu nahi duten erabiltzaileen parte-hartzea, auzotarren inplikazioa proiektuan, afektibitate-loturak hobetzea (lurraldetasun-sentimendua, atxikimendua) eta zaintza naturala erraztea.
- **Mantentze-lanak.** Zehaztea zer mantentze-alderdi diren garrantzitsuenak inplikaturako komunitatearentzat (garbiketa, abandonatutako eraikinak, graffitiak...) eta alderdi horiek hobetzeari eta zuzentzeari lehentasuna ematea.
- **Behar bereziak.** Komunitateko talde kalteberak, kontuan hartzea haurren beharrak (segurtasuna, lasaitasuna, mugitzeko askatasuna...), gazteen segurtasun-pertzepzioa (adibidez, sexu-askatasuna) eta adinekoena (beldurra edo babesgabetasuna).
- **Jarduera positiboak.** Birgaitutako komunitateetan, espazioan segurtasun-esperientziak, jarduera seguruak, erakargarriak eta positiboak programatzea eta sustatzea, espazio horien irudi berriak eraikitzeko.
 - **Efektu negatibo posibleak.** Segurtasun-gabeziako esperientziak, zurrumurruak eta ezagunek lekuen

arriskugarritasunari buruz egindako iruzkin negatiboak ekarri ditzake naiz eta aldaketa bat eman.

Argi ikusten da elementu guztiak kontrol sozial informalaren agente eragileen definizioan sartzen direla, organo instituzional ofizialik ez baitira ikusten (gehienez mantentze lanetan eta behar berezietan sartzeko aukera egongo litzateke, baina ez zen haien eremu eskusibo bat izango, hortaz kontrol sozial informalarentzat lekua egongo litzateke). Honekin ikusten dugu, berriro ere, kontrol sozial informala korrante batean baino gehiagotan pisu handia izaten duela.

Zutabe hauen segitzea eta aplikazioa egunerokotasunean lagunduko luke, genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpainen oinarri gisa erabiliz edo, gutxienez, kontuan hartzen egunerokotasunean hartzen diren babes neurrietan, nahiz eta genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpaina batera bideratuak ez egon.

2.1.3. Prebentzioa Genero Indarkeriazko Delituetan

Maitasuna giza harreman osasungarrietan gertatzen da. Ez da beharrezkoa hau sentitzea harremanak ondorioztatzeko, ezta ziurtzat emateko edo harremanaren aurrealdintzat hartzeko ere, ebidentziak kontrakoa erakusten badu ere. Era berean, ez da zuzena substantzia toxikoekin, estresarekin, langabeziarekin edo hormonekin justifikatzea edo horien erantzukizuna bezala hartzea maitasunaren falta. Maitasuna sentitzen, hautematen, komunikatzen, bizitzen da. Nesken % 80k eta mutilen % 75ek ez dute maitasunik eza tratu txarrekin lotzen. Maite dugun norbait eraso, sufriarazi eta min egin diezaiokegula uste dute. Sinesmen horrek oinarri emango die genero indarkeriako delituak eta genero-indarkeria ezkututzen dituzten mito eta jarrera guztiei, lotura biolentoaren existentzia betikotzen dutenei. Berarekin batera doan diskurtso ideologikoa oinarritzen du, eta diskurtso horrek hura pairatzen duena suntsitzen, nahasten eta erotzen du: emakumeak eta neskatok (Merás Llibre, 2003).

Orduan, ulertzen da emakumeen eta nesken aurkako indarkeria generoan oinarritutako diskriminazioan, indarkeria onartzen duten gizarte-arauetan eta indarkeria iraunarazten duten genero-estereotipoetan oinarritzen dela. Orain arte, emakumeen eta nesken aurkako indarkeriari amaiera emateko ahaleginak indarkeriatik bizirik atera direnei erantzunak eta zerbitzuak eskaintzera bideratu dira batez ere. Hala ere, prebentzioa (indarkeriarekin lotutako egiturazko kausei eta arrisku- eta babes-faktoreei ekitea) funtsezkoa da emakumeen eta nesken aurkako indarkeria desagerrarazteko. Prebentzioa da indarkeria gelditzeko modu bakarra, gertatu aurretik ere. Konpromiso politikoa behar da, genero-berdintasuna sustatzen duten legeak aplikatu behar dira,

emakumeen erakundeetan inbertitu behar da eta emakumeek egunero jasaten dituzten diskriminazio-modu ugariari heldu behar zaie (ONU Mujeres, 2021).

Prebentzioari buruz, Espainiako gobernuak aurrera eramaten dituen hainbat genero biolentziaren aurkako kanpaina ikusi ditzakegu bere webgunean (Delegación del Gobierno contra la Violencia de Género⁷ web orrialdea), horietako gehienak bideo edo kartelen bidez promozionatu egin direnak herrialdean zehar. Aurkitzen dira haien artean ez bakarrik Espainian sortutakoak baizik eta beste herrialde batzuetan sortutako kanpainak ere (adibidez, Italia edo Estatu Batuak), zeinak Espainiako kanpainetatik zerbait aldentzen dira, bai hauek egiteko moduagatik bai hauen jo puntuagatik, ondorengo paragrafoetan ikusiko den bezala.

Espainiako Gobernuak bere Berdintasun Ministerioan egindako kanpainen artean ikusi dezakeguna, eta ikusi izan dugunez, biolentziazko egoera baten deskripzioa (bai kronikoa den biolentzia bat bai aldizkakoa den bat edo aldi bakarrekoa)⁸ eta horren ostean 016 zenbakira deitzea edo laguntza eskatzea, biktimari eskatzen akzio bat burutzea sistema aurrera eramateko.

Esan bezala, Espainiako Gobernuak ez ditu bakarrik bere Berdintasun Ministerioak sortutako kanpainak aurkezten bere web orrialdean. Haiek aurkeztutako kanpaina italiar batean ikusi dezakegu umeen arteko kanpaina bat, gidoirik gabe, hainbat galdera eginez eta hainbat aginduen bidez bideratuta dagoena, non azkenengo momentuan 7-14 urte arteko umeei eskatzen zaie haien adineko neskato bati masaileko bat emateko, non haiek ezezkoa ematen dute (*Slap Her*, 2015). Hemen ez da esaten biktimari zerbait egitea biolentzia jasaten duenean, baizik eta biktimario izan daitezkeenei eredu positibo bat erakusten zaie biolentzia hori burutu ez dezaten.

⁷<https://violenciagenero.igualdad.gob.es/sensibilizacionConcienciacion/campañas/home.htm>

⁸Adibide gisa ondorengo kanpaina izanda:
<https://violenciagenero.igualdad.gob.es/sensibilizacionConcienciacion/campañas/violenciaGobierno/CeroDieciseis/vgenero.htm>

1 Figura

Slap Her



Nota. Espainiako Gobernuak bere web orrialdean genero indarkeriaren aurkako kanpaina italiar bat

Iturria. Espainiako Gobernuaren Berdintasun Ministerioa

Espainiako Gobernuak, kanpaina italiarretik aparte, Estatu Batuetako kanpaina bat aurkezten du ere bere Berdintasun Ministerioko web orrialdean, erakusketa batean aurkitzen gara, non genero indarkeriazko delitu bat jasan duten emakumeek zeramaten arropa erakusten da (*What Was I Wearing?*, 2014). Kanpaina honekin erakutsi nahi dena zera da, berdin du zein janzkera daraman emakume bat, biolentzia jasotzeko edo genero indarkeriazko delitu bat jasotzeko aukera berdinak izango ditu. Kasu honetan berriro ere ez zaio biktimari esaten zerbait egitea biolentzia jaso izanagatik, baina ezta ez da biktimarioaren aurka joaten, baizik eta gizarterantz bideratuta dago, biktima bati buruz entzuten dutenean “horrela jantzita eskatzen zebilen” esaten dutenei bideratuta.

2 Figura

What Was I Wearing?



Nota. Espainiako Gobernuak bere web orrialdean genero indarkeriaren aurkako kanpaina estatubatuar bat

Iturria. Espainiako Gobernuaren Berdintasun Ministerioa

2.1.4. Genero Indarkeriazko Delituetan Prebentziorako Neurriak

Gobernuek zeregin erabakigarria dute genero-indarkeriaren prebentzioan, arazo horri heltzeko politika eta programa eraginkorrak ezartzeko betebeharra baitute. Herrialde askotan (Espainia egonda haien artean), genero-indarkeria prebenitzeko eta horri aurre egiteko lege eta politika espezifikoak ezarri dira, baita biktimak babesteko eta erasotzaileak erantzule egiteko ere. Neurri horietako batzuk genero-berdintasuna sustatzea, biktimei arreta emateko zerbitzuak sortzea, babes-aginduak edo -kanpainak ezartzea eta sentsibilizazio publikoa lortzea dira (Naciones Unidas, 2010).

Hala ere, ahaleginak egin diren arren, hutsuneak eta akatsak daude genero-indarkeriako delituen prebentzioaren ezarpenean. Erronka komun batzuk honako hauek dira (Instituto de la Juventud, 2019):

1. **Baliabide egokien falta:** Gobernuek, askotan, aurrekontu-mugei egin behar izaten diete aurre, eta horrek zaildu egiten du genero-indarkeriaren prebentziorako eta arretarako behar adina baliabide esleitzea. Horren ondorioz, langile gaituak, babesleku egokiak, laguntza-zerbitzuak eta prebentzio-hezkuntzako programak falta izan daitezke, ezegokiak aurkezten dira edota eznahikoak izaten dira.
2. **Hutsuneak bai legedian bai bere aplikazioan:** Herrialde askok genero indarkeriari aurre egiteko legeak aldarrikatu dituzten arren, inplementazio eraginkorrik ezak bere eragina ahuldu dezake. Hori borondate politikorik ezaren, ustelkeriaren, eraginkortasun judizialik ezaren edo legea betearazteko ardura duten agentzien eta sistema judizialen arteko koordinaziorik ezaren ondorio izan daiteke.
3. **Estigmatizazioa eta kontzientzia falta:** Genero-indarkeria, askotan, gizartean errotuta dauden estigmez eta aurreiritziez inguratuta dago. Horrek delituen salaketarik eza eta justizia-sistemekiko mesfidantza ekar ditzake. Gainera, genero-indarkeriari eta indarkeria horren forma sotilei buruzko kontzientzia faltak prebentzioa zaildu dezake.
4. **Ikuspegi erreaktiboa izatea prebentiboa izan beharrean:** Askotan, gobernuaren ahaleginak genero-indarkeriari erantzutean zentratzen dira, behin gertatu denean, azpiko kausei heldu eta lehenik parte hartu beharrean. Prebentzio eraginkorrek ikuspegi integrala eskatzen du, adin goiztiarretik genero-berdintasunaren hezkuntza, sentsibilizazioa eta sustapena barne hartzen dituen.

Erronka horiei aurre egiteko, prebentzio-estrategia egoki batek honako alderdi hauek jaso beharko lituzke (Instituto de la Juventud, 2019):

1. **Hezkuntza eta kontzientziarioa:** Gobernuek genero-berdintasunari, rol estereotipatuei eta genero-indarkeria motei buruzko hezkuntza-programa zehatzak ezarri behar dituzte. Hau eskoletan hasi behar da eta bizitzan zehar jarraitu, gizartea orokorrean inplikatur.
2. **Baliabide eta zerbitzuetarako eskuragarritasuna:** Gobernuek bermatu behar dute genero-indarkeriaren biktimentzat baliabide eta zerbitzu nahikoak daudela eskuragarri, babesleku seguruak, laguntza-dei lineak,

lege-aholkularitza eta arreta mediko espezializatua barne. Gainera, genero-indarkeriagatiko lizentzia-politikak sustatu behar dira, biktimak egoera arriskutsuetatik urundu daitezten.

3. **Sektoreen arteko koordinazioa:** Funtsezkoa da gobernuko eragileen arteko lankidetzaren eraginkortasuna, hala nola polizia, gizarte-zerbitzuak, osasun-arloko profesionalak eta sistema judiziala. Sektoreen arteko koordinazioak genero-indarkeriari erantzun integrala eta koherentea ematen laguntzen du, salaketatik hasiz eta epe luzerako biktimentzako laguntzaraino iristen.
4. **Ikerketa eta datu-bilketa:** Gobernuek genero-indarkeriari buruzko ikerketetan eta datu-bilketan inbertitu behar dute, haren kausak, ereduak eta joerak hobeto ulertzeko. Horri esker, erabaki informatuak hartu ahal izango dira eta ezarritako politiken eta programen ebaluazio egokia egin ahal izango da.

Laburbilduz, gobernuek genero-indarkeriaren prebentzioan funtsezko zeregina duten arren, gabeziak daude haren ezarpenean. Baliabideen, legediaren, estigmatizazioaren eta ikuspegi erreaktiboaren erronkei aurre egin behar zaie prebentzio integraleko estrategia baten bidez, hezkuntza, baliabideetarako eskuragarritasuna, sektoreen arteko koordinazioa eta ikerketa barne hartzen dituenak. Alderdi horiei heltzean, genero-indarkeriaren prebentzio eraginkorraren eta gizarte seguruagoak eta berdintasun handiagokoak eraikitzearen alde lan egin daiteke.

2.2. Babes Autonomoa

2.2.1. Prebentzio Instituzionala vs Prebentzio Autonomoa Genero Indarkeriaren Arloan

Garrantzitsua da argi eta garbi bereiztea genero-indarkeriara bideratutako prebentzio instituzionala eta genero-indarkeriara bideratutako prebentzio autonomoa. Orain arte prebentzio instituzional horri buruz hitz egiten aritu gara, eta hemendik aurrera prebentzio autonomoaz hitz egingo dugu, baina aurretik zehaztu behar da zein den bi prebentzioen arteko aldea, ondo ulertu ahal izateko zergatik bien azterketa bat beharrezkoa den.

Prebentzio instituzionala gobernu-erakundeek, organizazioak eta sistema judizialek genero-indarkeria prebenitzeko ezarritako neurriei eta ekintzei dagokie. Erakundeen prebentzioaren ezaugarri batzuk honako hauek dira (Medina Ariza, 2014):

1. **Politikak eta legeak:** Gobernuek genero indarkeriari aurre egiteko lege eta politika espezifikoak aldarrikatu ohi dituzte. Lege horien artean sar daitezke etxeko indarkeriaren kriminalizazioa, babes-aginduak ezartzea eta biktimek justiziarako sarbidea izango dutela bermatzeko mekanismoak sortzea.
2. **Laguntza-zerbitzuak:** Gobernu-erakundeek eta gobernu kanpoko erakundeek genero-indarkeriaren biktimei laguntzeko zerbitzuak eman ditzakete. Zerbitzu horiek biktimei indarkeria-egoeretatik ateratzen eta haien bizitzak berreraikitzen laguntzeko diseinatuta daude.
3. **Sentsibilizazioa eta hezkuntza:** Erakundeek sentsibilizazio-kanpainak eta hezkuntza-programak egin ditzakete genero-indarkeriari buruzko kontzientzia sortzeko, genero-berdintasuna sustatzeko eta biktimentzat eskuragarri dauden baliabideei buruzko informazioa emateko. Ekimen horien helburua da jarrerak aldatzea, indarkeria prebenitzea eta errespetuaren eta ekitatearen kultura sustatzea.

Bestalde, prebentzio autonomoa genero-indarkeriaren biktima izan daitezkeenek beren burua babesteko eta indarkeria-egoerak saihesteko hartzen dituzten banakako ekintzei dagokie. Hauek dira prebentzio autonomoaren ezaugarri batzuk (Vozmediano Sanz, 2010):

1. **Alerta-seinaleak ezagutzea:** Pertsonak genero-indarkeriaren seinaleen gainean hezi daitezke eta abusuzko harreman baten adierazle posibleak ezagutzen ikas dezakete. Horrek erne egoteko eta babesteko neurriak hartzeko aukera ematen die.
2. **Defentsarako trebetasunak garatzea:** Pertsona batzuek defentsa fisikoan trebatzeko aukera izan dezakete, beren konfiantza eta arrisku-egoeretan erantzuteko gaitasuna handitzeko.
3. **Laguntza- eta segurtasun-sareak:** Biktima izan daitezkeenek senideen, lagunaren eta konfiantzazko komunitateen babesa bila dezakete. Laguntza-sare sendoak ezartzeak segurtasun-ingurune bat eskain dezake eta genero-indarkeria prebenitzen lagun dezake.

Prebentzio instituzionala eta prebentzio autonomoa osagarriak dira, eta elkar indartzen dute genero-indarkeriaren aurkako borrokan. Bi ikuspegi horiek beharrezkoak dira arazoari modu integralean aurre egiteko.

2.2.2. Babes Autonomoaren Kontzeptua eta Neurriak

Baina, zer da “babes autonomoa”? Kontzeptu hau ez da berria (ez behintzat kriminologiaren historian zientzia gisa, 1876ko apirilaren 15ean hasi baitzen, Gizon Delitugilearen Itun Antropologiko Esperimentala argitaratu zenean), baina hainbat izen jaso izan ditu, adibidez *autodefensa* (edo *autoprotección* gaztelanienaz). Felson eta Clark-en hitzetan (1995) kontrol hau ez da formala (poliziaren zaintza, adibide gisa) ezta informala ere (auzokideen edo lagunaren zaintza, adibidez), baizik eta hirugarren atal edo kontrol-sistema bat dago: banakakoa; norberak babesteko aktibatzen dituen jarduerak, esandako *babes autonomoa*.

Egileen arabera, honek kontrol-sistema informala errazten du, zentzuzkoak diren portaerei esker delituak edo arriskuak ekiditen ditugu eta (adibidez, surantz korrika ez egitea edo itxura txarreko lekuetara ez joatea beharrezkoa ez bada). Zentzuzkoak diren portaera hauek belaunaldiz belaunaldi erakusten dira aholku moduan eta, garrantzitsuak diren arren, gehienetan nahikoak izatera ez dira iristen. Honek esan nahi duena zera da, genero indarkeriazko delituen prebentzioa begiratzean (lan honen eremura eramateagatik) belaunaldiz belaunaldi informazio mota bat jaso da non erakusten zuten zein leku ekidin edo zein pertsona motatik ihes egin, zein inguruetan mugitu eta zeintzuetan ez. Hau orokorrean erakusten da delituak ekiditeko, bai emakumezkoen bai gizonezkoen, baina genero indarkeriazko delituetan emakumezkoen erakusten zaie intsistentzia handiagoarekin.

Izan ere, kontrol soziala maila indibidualera eramanda, edo babes autonomoa, ez da gehiegi aztertu, beti kontrol sozial informalaren barruan eta garrantzi gehiegirik eman gabe landu baita. Honek esan nahi du, nahiz eta egunerokotasunean gertatzen den zerbait izan eta egunero erabili (nahita edo inkontzienteki), honek daukan inpaktua ez dela neurtu. Baina, hala eta guztiz ere, oinarritzko metodo gisa (eta kasu batzuetan metodo bakar bezala) erabiltzen da prebentzioan.

Batez ere, nabaritzen da hainbat delituetan, biktima mota espezifiko bat daukaten delituetan (fobiazko edo gorrotozko delituak, kolektibo baten aurkakoak...), eta Gradu Amaierako Lan honetan genero indarkeriazko delituen prebentzioan zentratuko gara.

2.2.3. Babes Autonomoa Emakumeen Aurkako Delituetan

Esan daiteke delitu batzuk generoa dutela. Honekin ez dugu erreferentzia egiten delitugile edo arau-hausleari, baizik eta biktimari. Biktima potentzialak, eta askotan eskusiboak, emakumeak (edo, beste era batera esanda, genero femeninoarekin identifikatutako pertsonak) dira.

Delitu hauek, nahiz eta eguneroko bizitzan eman eta edozein momentuan horrelako arriskuen aurrean egon, inpaktu handiagoa izaten dute gauez (ez bakarrik sozialki gehiago azpimarratzen direlako, baizik eta hedabideetan ere gehiago agertzen direlako) edo aisia giroan ematen direnean; hau da, nahiz eta gauez edo aisialdi egoeratan gehiago ez eman, genero indarkeriaren zenbait egoera eta beldur sententzioak gauez handiagotu egiten dira. Hemen sartzen dugu lehen esandako "babes autonomoa" edo kontrol soziala maila indibidualera eramanda.

Emakumeen aurkako delituen kasuetan zabaltzen den mezua (aurrerago ikusiko dugun moduan bai sozialki, bai komunikabideen eskutik, baita gobernuaren hainbat proposamenetan) honako hau da: gerta dakiekeenaren erantzule dira, eta, aldi berean, babesik gabe uzten dituzte, ez baitituzte estrategiak eta baliabideak ematen emakumeen babeserako, gauzak egiteari uztea izan ezik (espazioei uko egitea, gorputzaren eta sexualitatearen gozamen askea mugatzea, etab.), eta beraiek hartu behar dituzte bai neurri horiek bai beraiek imajina ditzaketen beste batzuk (Vitoria-Gasteizko Udala, 2017).

Babes autonomoaren eraginkortasunari buruz oso gutxi jakiten da, gizarte-adituek sortutako eta ebaluatutako estrategia eta azterlan integralen parte diren informazio-kanpainak edo babes autonomorako aholkuak aztertu baitira bakarrik, hortaz faktore askoren galera ematen da hemen (Jarque Llamazares, 2008).

Arazoa sortzen da prebentzioa soilik babes autonomoko estrategia mota horietan oinarritzen denean. Emakumearen aurkako delitu bat aisialdiko edo gaueko giroetan gertatzen denean, hurrengo egunean albisteetan emango diren "prebentzio-neurriak" (bai erreportarietakoak, bai dagozkien agintarietako proposatu nahi dituztenak) bat etorriko dira Felsonen eta Clarkeren emandako definizioarekin.

Ez da prebentzio programen aldaketa bat egongo arriskugarritasun gutxiago egoteko, ez da ikusgarritasun gehiago emango delitua gertatzen den momentuan norbait esku hartu ahal izateko (Vicente, 2018). Neurri asko emakumeak berak (biktima) hartu beharko ditu, eta egiten ez badu iritzi publikoaren presioa jasango du, askotan bere kulpaz izan dela sentiarazten duten arte (azkenengo hau kasuen %14,5ean aurkitu da) (Generalitat de Catalunya, 2021).

Lehen esan bezala, kontrol sozial informala sistema legaletik at dauden erakunde edo instituzio guztiak (familia, lagunak, eskola...) dira. Honekin ulertu dezakegu (eta lehen aipatu dugun bezala, horrela ulertzen da) pertsonak berak bere buruarekiko hartzen dituen kautela neurriak kontrol sozial informal honen barruan sartzen direla, nahiz eta kontrol hau biktimaren kanpotik ez etorri.

2.2.4. Babes Autonomoaren Neurrien Adibideak

Lehen esan dudan bezala, autodefentsa pertsona batek bere buruaren gaineko segurtasuna areagotzeko hartzen dituen neurri batzuei buruzkoa da. Neurri horiek norberaren gain edo besteei begira har daitezke. Bigarren horrek nahasmena sor dezake, pentsa baitaiteke "auto" neurriak izateari uzten diotela; hala ere, besteak ez hurbiltzeko edo hurbiltzerakoan urruntzeko prebentzioa hartzea da, ez beste pertsonak kontrolatzeko.

Norberari aplikatutako autodefentsa-neurriei buruzko adibideak jartzeko hainbat gauza erabili daitezke, hala nola janzkera begiratzea, hartutako alkohol kantitatea kontrolatzea (eta alkoholaren koparen edo edalontziaren zaintza), denbora errealean kokapena bidaltzea edo telefono-deiak egitea etxerako bueltan edo bakarrik aurkitzerakoan. Bestalde, besteei aplikatzen zaizkien autodefentsa-neurriak alarmak, piperbeltz gasa, giltzak behatzen artean jartzea, linterna indartsuak edo txilibituak izan daitezke, adibideak jartzearen.

Iturri bat zitatzearen, Espainiako Gobernuak bere genero biolentziaren aurkako web orrialdean [autoprotección](https://violenciagenero.igualdad.gob.es/informacionUtil/autoproteccion/home.htm)⁹ izeneko azpi atal bat dauka. Bertan eguneroko bizitzan hartzea gomendatzen dituzten babes autonomoko neurriak agertzen dira, ondorengo taulan agertzen direnak:

⁹<https://violenciagenero.igualdad.gob.es/informacionUtil/autoproteccion/home.htm>

Taula 1**BABES AUTONOMOKO NEURRIAK**Etxebizitzatik kanpo**Mugikor bat zurekin beti eramatea.****Larrialdi zenbakiak (112, 091, 062) mugikorrean markatze-tekla edo komando batekin lotzea.**

Arreta jarri ohiko joan-etorrietan eta lanera joaterakoan, seme-alaben ikastetxetik eta abarretatik iristeko eta irteteko orduetan arreta mantendu.

Autoa erasotzailearekin partekatu bada, aldatu sarrailak. Muntatu eta ibilgailutik jaitsi aurretik, begiratu inguruei, erasotzailea ez egoteaz ziurtatzeko.

Ateen itxiera automatikoa aktibatua mantendu.**Ez aparkatu gutxi argituta dauden lekuetan, eta ez ibili jende gutxi ibiltzen den lekuetan.**

Aldez aurretik jakin baldin badakizu erasotzailearekin bat egiteko aukera dagoela (elkarguneak, baterako jarduketa judizialak, etab.), eskatu senideren bati edo konfiantzazko pertsonaren bati zurekin egoteko.

- Egoera horren berri eman polizia-unitateari, eta hark baloratuko du, hala badagokio, zer babes-neurri izango den egokia.

Etxebizitzan**Ettxera sartzeraoan eta etxetik irtetean, erreparatu eta begiratu etxebizitzaren inguruak.**

Segurtasun-neurriak hartu: atearen sarraila aldatu, behatxulotik ondo ikusi ahal izatea, etab.

Aldatu telefono-zenbakiak eta eskatu enpresari ez erregistratzeko gida publikoetan.

Atea ireki baino lehen, begiratu nor ari den deitzen; argi ikusten ez baduzu, EZ ireki.

EZ ireki inoiz erasotzaileari, eta ohartarazi seme-alabak, ardurapeko pertsonak edo etxebizitza partekatzen duzun beste pertsona batzuk.

- Berak deitzen badu, are gehiago urruntze-agindu bat badu, jarri harremanetan poliziarekin.

Jakinarazi zure egoera konfiantzazko pertsoneri, bizilagunei batez ere, ohartaraz diezazuten erasotzailea zure etxebizitzaren inguruetan barka ikusten duten, prebentzio-neurriak har ditzaten eta, hala badagokio, poliziarri ere abisu eman diezaioten.

Adostu lagun, bizilagun edo senide batekin nora joan, etxetik urgentziaz alde egin behar baduzu.

Erabaki bizilagun batekin zalantzarik gabeko seinaleren bat poliziarri deitzeko.

Presta ezazu, badaezpada, poltsa bat agiri garrantzitsuekin eta beharrezkoak diren gauzekin.

<u>Erasotzailea ikusten bada</u>	Etxetik kanpo zaudenean	<p>Joan berehala jendea dagoen leku batera, eta deitu poliziarri egoeraren berri emateko. Leku publikorik ez baduzu, deitu kalean dauden pertsonen arreta, edo gertuko etxeren batean laguntza eskatu.</p> <p>Autoan bazaude eta erasotzailea ikusten baduzu, ez gelditu ibilgailua, eta joan zaitez segurutzat jotzen duzun leku batera (senideen etxeak, lagunak, polizia-bulegoak, etab.).</p>
----------------------------------	-------------------------	--

Etxean	Joan telefono batekin gela seguruago batera, non giltzapetu zaitezkeen (adibidez, komuna), eta deitu poliziari.
	Ez badizu sartzen astirik ematen, zoaz leiho batera, oihu egin eta laguntza eskatu norbaitek lagundu diezazun.
	Urrundu sukaldetik eta objektu arriskutsuak dauden etxeko geletatik.
	Prest eduki seinale bat zure seme-alabekin, gela batean itxi daitezen edo hurbil bizi den konfiantzazko norbaiti laguntza eske atera daitezen etxetik.

Erasotua izango bazara... **lhes egiten saiatu**

Oihu egin eta laguntza eskatu beste pertsona batzuei, lagundu edo poliziari deitu ahal izateko.

Saiatu zeure burua defendatzen

Babestu zure gorputzeko atal kalteberenak (aurpegia, burua, bularra eta sabela) besoekin eta hankekin.

Iturria. Espainiako Gobernuak proposatutako neurriak (Ministerio de Igualdad)

Erakutsitako taulan hainbat neurri aurkitu ditzakegu, ez bakarrik GRAL honetan ikertzen ari naizen genero indarkeriazko delituetan, baita eraso kronikoak edo jarraituak jaso dituzten emakumeentzat. Hori dela eta, ikerketa honetarako baliagarriak izan daitezkeenak indartuak izan dira.

2.2.5. Genero Indarkeriaren Aurkako Komunikazio Kanpainak eta Babes Autonomoa

Genero biolentziako delituen prebentziorako bideratutako kanpaina batzuk, prebentzio neurriak ezartzean baino gehiago, “informazio kanpaina”-ren antza daukate (zer egin delitu baten biktima zaren momentuan, nora jo laguntza bila edo zein metodo erabiltzen dira delitu horiek burutzeko). Horretaz aparte, kanpaina mota hauek, askotan, biktiman jartzen dute salaketaren pisu guztia, batzuetan inkluso kulpa zantzuak jartzen bere buruarekiko.

Kanpaina honen adibide argiak Espainiako Gobernuaren webgunean aurkitu ditzakegu. Kanpaina asko daude bertan, baina batzuetan zentratuko naiz gehiegizko informazioan garrantzitsuak diren puntuak ez galtzeko.

Analisi labur hau egiteko *Guía para Sensibilizar y Prevenir desde las Entidades Locales la Violencia contra las Mujeres* (2007) dokumentuan agertzen den kontrol zerrenda erabiliko dut (Anexoetan agertzen dena).

#MachismoEsViolencia kanpaina aurkitu dezakegu. 2021 urteko kanpaina bat izan zen hau, bideo moduan eginda, non hainbat gizonezko ikusten ziren fondo ilun batean, pausu bat aurrera emanda (sinbolikoki geldirik ez zirela geratuko) jokabide bat aipatzen zuten (kontrolatzea, jazartzea eta umiltzea) eta segidan es *violencia* (biolentzia da) esaten zuten esaldia bukatzeko. Kasu honetan “informazio kanpaina” puruaren antza dauka, ez baitago egoera hauetara ez iristeko eskuhartze proposamenik edo eginbiderik, esaten den bakarra zein egoera biolentzia gisa ulertu daitezke da. Horretaz aparte, mezu paternalista bat da eta emakumeak biktimizatzen ditu.

3 Figura

#MachismoEsViolencia




Nota. Espainako Gobernuaren genero indarkeriaren aurkako kanpaina

Iturria. Espainiako Gobernuaren berdintasun Ministerioa

Beste kasu oso deigarri bat 2007ko kanpaina bat izan zen *016 contra el maltrato, llama* izenekoa. Kanpaina hau kartel bat zen, bertan tratu txarrak sufritzerakoan 016 zenbakira deitzeko agindua ematen zen esaldi baten ondoan *la violencia de género siempre avisa* (indarkeria beti abisatzen du, euskaraz). Kanpaina honetan, informazio kanpaina puru baten irudia ematearen zantzuaz aparte, biktimarengan jartzen da salaketaren pisu handia eta, horretaz aparte, erruduntasun kutsu bat ikusten da, biktimari ulertarazten diolako sufritzen duen egoerak abisua eman duela eta horiek ez dituela ikusi (emakumeengan jartzen erantzukizuna, kontrol zerrendaren errenkada bat). Gainera, mezu sentsazionalista bat bezala ulerti daiteke, aspektu deigarriak argi uzten dituelako deigarria izateko, nahiz eta ez izan garrantzitsuena.

4 Figura

016 contra el maltrato




Nota. Espainiako Gobernuaren genero indarkeriazko delituen aurkako kanpaina

Iturria. Espainiako Gobernuaren berdintasun Ministerioa

Oraindik argiago ikusteko, ez hain atzera joateko denboran (azkenean eboluzio bat eman delako eta pentsa daitekeelako horrelako biktimaren erruduntasun kanpainak jadanik ez direla existitzen) eta biolentzia kronikotik urruntzeko, Xunta de Galiziak 2022 urtean aurkeztutako kanpaina dago. Bertan korrika atera den emakume bat agertzen da ondorengo testuarekin: *Vístase coas mallas de deporte. Vai correr pola noite. Que sucede agora? Non debería pasar, pero pasa* (Kirol galtza elastikoak janzten ditu, gauez korrika egitera doa. Zer gertatzen da orain? Ez luke gerta behar, baina gertatzen da.). Kasu honetan argi ikusten da biktimaren janzkera juzgatzen duela eta delitua horregatik gertatzen direla diola. Nahiz eta kanpaina berriena izan, kontrol zerrendan erantzun oker gehienak dituen kanpaina da. Hamaika baieztapenetik, bakarrik bost betetzen ditu, erdia baino gutxiago.

5 Figura

Que sucede agora?



*Vístese coas mallas de deporte
Vai correr pola noite*

Que sucede agora?

**NON
DEBERÍA PASAR,
PERO PASA.**

016 900 400 273 igualdade.xunta.gal

NON Xacobeo 21-22

XUNTA DE GALICIA

GOBIERNO DE ESPAÑA **MINISTERIO DE IGUALDAD**

Nota. Xunta de Galicia egindako genero indarkeriaren aurkako kanpaina

Iturria. Xunta de Galiciaako berdintasun kontseilaritza

Egia da kanpaina mota hauek ez direla instituzioen eskutik prebentzioan erabiltzen diren tresna bakarrak, baina kanpaina mota hauek garrantzi handia izaten dute eta jendeak egunerokotasunean ikusten dituenak dira, hortaz inpaktu handia daukate gizartean.

2.3. Hautemandako Segurtasuna edo Segurtasun-Ezaren Sentsazioa

Segurtasun sentsazioa eta babes autonomoa gurpil zoro baten parte dira. Azkenean, prebentzio instituzionala huts egiten duenean segurtasun sentsazio baxu bat edo segurtasun sentsazio eza ekartzen du gizaterian, izateak babes autonomoko neurriak hartzera bultzatzen gaitu, beldur gutxiago sentitu ahal izateko.

Horregatik atal honen beharra eta garrantzia, segurtasun sentsazioa aztertzea eta honek nola funtzionatzen duen ulertzeak garrantzitsua delako beste bi kontzeptuak (prebentzioa eta babes autonomoa) ulertzeko eta haien eragina.

2.3.1. Segurtasun Ezaren Sentsazioa Arazo Sozial eta Politiko Gisa

Atal honetan, arazo sozialak aipatuko ditugu, eta Zuloagak (2010) egindako azterlan baten bidez segurtasun eza zergatik arazo horietako bat bihurtu den. Azterlan horren helburua herritarren segurtasuna agenda politikoetan lehentasunezko gai bihurtzeko arrazoia aurkitzea zen.

Beldurraren, dimentsio psikologikoz haratago, dimentsio soziala du. Beldurra pertsonak testuinguru sozial jakin batean egindako eraikuntza sozial bat da. Gizarte bakoitzak bere mehatxu eta arriskuak sortzen ditu, halakotzat har daitekeena definitzen du eta erantzun-eredu orokorrak eraikitzen ditu. Nahiz eta pertsonak izan beren gaitasun emozionaletik beldurra sentitzen dutenak, gizarteak eredu sozial bakoitzean aldi bakoitzeko arriskuak eta beldurrak eraikitzen eta definitzen ditu, bere balio eta egitura sozialetatik abiatuta.

Alde horretatik, egungo errealitate soziala ezin da konparatu duela mende edo hamarkada batzuetako errealitatearekin. Hainbat fenomenok eragin dute izandako aldaketan, besteak beste, globalizazioak eta komunikabideen hedapenak (Zuloaga, 2010). Adibide gisa, Erdi Aroan ez zen egon eraso informatiko baten beldurrik, eta gaur egun, berriz, askoz txikiagoa da naturaz gaindikoaren beldurra, deabruari, adibidez. Gizarte bakoitzak bere unearekin bat datozen beldurrak izan ditzake, eta horiei nola erantzuten dien definitzen du; hau da, gizarteak aldatzen direnean, beldurrak ere aldatu egiten dira.

Era berean, gizarte bakoitzak bere gizarte-arazoak eraikitzen ditu. Margarita Rozasek (2001) dioenez, gizarte-arazoak *“fragmentaciones de la cuestión social, términos en los cuales se instituye lo social como instancia pública de la acción social del Estado”* dira, eta Estatu kapitalista da une historiko bakoitzean gizarte-arazoa

gizarte-arazo gisa definitzeaz, hierarkizatzeaz, sailkatzeaz eta zatikatzeaz arduratzen dena.

Gizarte-testuinguruaren araberrako gizarte-beldurren eta -arazoen aldaketa hori hainbat gertakaritan islatzen da, hala nola segurtasun ezaren pertzepzioa hiri-ingurune handietan gehiago ematea, herri txiki edo landa-eremuetako biztanleetan baino.

Zenbait ikerketa historikok hirien hazkundearen eta krimenaren arteko lotura zalantzan jarri badute ere, teoria ugarik baliatu dituzte hiri-bizitzaren ezaugarri batzuk delituaren kausak azaltzeko (horien artean, pilaketa, anonimotasuna eta delituak egiteko aukera handiagoak nabarmendu daitezke, inguruko ondasunak eta pertsonak ugaritu direlako). Gizakiak ezin du hiria babes-babeslekutzat hartu, komunitate-loturak pixkanaka galtzen ari direlako, eta galera hori beldurraren eta segurtasun-ezaren konfigurazioaren elementu nagusietako bat da (Zuloaga, 2014).

Gizarte modernoan komunitate-loturak progresiboki galtzeak komunitatean beldurra areagotzea ekarriko luke; izan ere, lotura estu horiek eta komunitatearen aldeko pertzepzioa desagertzean, egoiliarrek bizilagunenganako konfiantza galduko lukete, eta horrek ekarriko luke laguntzarik ez eskatzea beharrian-une batean. Beraz, auzo-kohesioaren gainbeheraren aurrean gaude.

Hiriko bizimodua independentea eta biztanleen arteko lotura gutxikoa dela esan daitekeen bitartean, badakigu herri bateko bizimodua askoz ere hurbilagoa dela auzotarren artean. Ezberdintasun hori Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak herri eta hirietako bizi-kalitateari buruz egin zuen ikerketa batean islatzen da. Ikerketa horrek agerian uzten du euskal herritarrek, oro har, herri txikiak eta auzoak hiri handiak baino bizitzeko leku seguruagoak direla hautematen dutela (Eusko Jaurlaritza, 2017). Oro har, gizon eta emakumeen %89k uste du bere herria edo auzoa bizitzeko leku nahiko edo oso seguruak direla. Soilik %9k uste du ez direla seguruak. Hala ere, ehuneko hori %12ra iristen da hiriburuetan, eta %5era jaisten da udalerritxikietan.

Teoria hedatuenak faktore sozialak duen pisua neurtzen saiatu dira; hau da, leku baten kohesio soziala eta existituko den izaera komunitarioa beldur horren aurkako konponketarik onena izango litzatekeenari lotutako planteamendua. Kohesio sozialaren aurreko ideiarekin batera, kohesionatutako komunitateaz ari gara beldur horri aurre egiteko modu gisa.

Gizarte-arazoak ez dira estatikoak, unean uneko errealitatearen arabera aldatzen dira. Gaur egun, langabezia, ustelkeria, immigrazioa, Europako ezegonkortasun politikoa eta herritarrek alderdi politikoekin duten nahigabea izan dira gizartea gehien kezkatu dutenak. Horien artean, herritarren segurtasunik eza gizarte-arazotzat ere hartzen da, eta halakotzat hartzen da estatistika ofizialetan.

Espanian 1999an egin zen Herritarren Segurtasunari eta Biktimizazioari buruzko azken inkesta, Ikerketa Soziologikoen Zentroaren (Centro de Investigaciones Sociológicas edo CIS) eskutik. Emaitzen arabera, herritarren segurtasunik eza zen inkestatuen kezka handiena eragiten zuen arazoetako bat (%18,1ek aipatu zuen). Segurtasun ezaz gain, arazo aipatuena langabezia (%74,6), droga (%62) eta terrorismoa (%59) izan ziren (Ikerketa Soziologikoen Zentroa, 1999). 2017ko martxoko CISen barometroari buruz eskuragarri dauden azken datuak adierazten du inkestatuen %3k segurtasun eza herrialdeko hiru arazo nagusietako bat dela pentsatzen zutela.

Izan ere, herritarren segurtasuna eta biktimizazioari buruzko neurketa hau Euskadin beste inkesta baten bidez egin izan da. Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologiko Kabineteak 2022ko urrian inkesta baten emaitzak aurkeztu zituen (Eusko Jaurlaritzak, 2022), segurtasun eza herrialdeko hiru arazo nagusietako bat dela pentsatzen zutenek bakarrik %4,6 zen, Espainia mailarekin konparatuz %1,6 gehiago. Hala ere, kezka handien artean lan merkatuarekiko arazoak (%24,29), arazo ekonomikoak (%12,15) eta osasuna, Osakidetza edo Gizarte Segurantzarekiko arazoak (%8,87) ziren.

Datu horiek galdera batzuk sortzen dizkigute: segurtasun falta arazo txikiagoa da gaur egun? Gobernuak jarritako kanpainak eraginkorrak dira segurtasun faltaren beldurra %4,6ra (Espainia mailako kasuan %3ra) jaisteraino? Edo, besterik gabe, bigarren maila batean geratu da, arazo "larriagoak" edo "premiazkoagoak" egoteagatik? GRAL honen bidez segurtasun faltaren pertzepzioaren eremu batera hurbildu naiz, egungo gazteen artean dagoen segurtasun ezera eta zehazki, emakumeen aurkako erasoek sortzen duten segurtasun ezaren hautematera.

2.3.2. Segurtasun Sentsazio Objektiboa vs Segurtasun Sentsazio Subjektiboa

Segurtasunari buruz hitz egiten dugunean gizakiak, komunitateak, erakundeak eta estatuak ere arriskuen eta mehatxuen aurrean (terrorismoa, jarduera kriminalak, hondamendi naturalak, etab.) hautematen duten babesari buruz ari gara. Aipatutako babesa zentzumenetan eragindako inpresio material bat da. Orduan, segurtasun

pertzepzioa honela definitu dezakegu: pertsona batek bere inguruan dituen segurtasun-baldintzen edo segurtasun ezaren aurrean duen sentrazioen neurketa, ikuspegi emozionaletik (beldurra, amorrua, antsietatea, arriskua, etab.) edo instituzionaletik (ezjakintasuna, mesfidantza, ziurgabetasuna, etab.) bere bizitza-inguruneen barruan (Zumeta, 2018).

Izan ere, segurtasuna objektiboa edo subjektiboa izan daiteke. Segurtasun objektiboa auzo, herri, hiri edo herrialde batean gertatzen diren delitu-egintzen kantitate objektiboaren arabera neurtzen da. Segurtasun subjektiboa, bere aldetik, pertsona bakoitzaren neurketaren arabera da. Izan ere, segurtasun objektiboa eta subjektiboa alderatzerakoan ikusiko da, kasu gehienetan, bat ez datozela datuak (Robret, 2009).

Esan bezala, delitu tasak ez datoz beti bat segurtasun subjektiboarekin, delitu tasak behera egin dezake baina segurtasun sentrazioa mantendu edo jaitsi (igo beharrean). Segurtasun sentrazio baxu batek ekartzen du bizi kalitatearen jaitsiera bat (antsietatea, ohituren aldaketa, komunitatearen sentimenduaren apurtzea, komunitatean gertatzen diren aktibitateetan parte-hartze txikiago bat izatea, isolamendua, politika zigortzaileagoen aldeko jarrerak...) delituen arriskugarritasun objektiboa alde batera utzita (Larruskain, 2022).

Larruskainek dioenez, eta beldurra segurtasunaren sentrazioaren aurkakoa dela argi utziz, beldur funtzionala eta disfuntzionala ezberdintzen ditu. Beldur funtzionala gizakiok izan behar duguna da, delitu baten biktima izateko arriskuaz jabetzea, herritarrek biktimizatuak ez izateko neurri egokiak har ditzaten eta beren bizitza naturaltasunez egiten jarrai dezaten errazten du. Beste aldetik, beldur disfuntzionala daukagu, pertsonen eguneroko bizitza normaltasunez bizitzeko zailtzen edo eragozten duena.

Literatura zientifikoak¹⁰ erakusten du hiri diseinuak delituetan (segurtasun objektiboa) eta segurtasun sentrazioan (segurtasun subjektiboa) eragiten duela. CPTED (Crime Prevention Through Environmental Design) diseinu on batek segurtasun objektibo eta subjektiboa sustatzen duela berretsi da. Gure kasurako, segurtasun subjektiboarekiko interesgarria izango litzateke eta aurrerago aztertuko dugu.

2.3.3. Segurtasun Sentrazioa Emakumeen Artean

Emakume eta neskato guztiek jasotzen dute haien bizitza osoan gizonetakoek jasaten ez dituzten komentarioak haien irudi fisikoagatik (kurba gehiegi edo gutxiegi

¹⁰Adibide gisa, Marta Escuderok (2018) idatzitako *La Prevención del Delito desde el Espacio y la Arquitectura*.

izateagatik, altuegia edo baxuegia izateagatik, arropa motagatik...). Bullying Statistics (2019) atariaren arabera, emakume nerabeen %94k adierazi du bere gorputzari buruzko komentario negatiboak edo kritikoak jasan izan dituela; hau da, ia emakume guztiak beraien gorputzarekiko kritikak entzuten dituzte adin-nagusitasunera iritsi baino lehen. Komentario hauek bizitza osoan jasateak ekartzen du askotan emakumearen indar psikologikoa murriztea, biktima izateko joera edo aukerak handitzea delitugile edo erasotzaile bati aurka egiteko zailtasunagatik (Instituto INUPSI, 2021).

Beste aldetik, emakumeen ehuneko oso altu batek dauka gizon batekin ikaragarria den historia bat. Beldur hau ez da zertan fisikoki zerbait egin diotelako, ezta konfrontazio penal batera iritsi beharrik, batzuetan familian barruan edo eskolan/lanean gertatzen dira eta ingurunearentzat interakzio normal bat bezala pasatzen da, baina emakume horrentzat traumatikoa izatera iritsi daiteke.

Orain esandakoa defendatzeko, Noctambul@s-ek (2017) inkesta bat egin zuen eta galdetutako emakumeen erdiak baino gehiagok (%57) indarkeria normalizatuko egoerak (irainak, ordutegien kontrola, pasahitzen kontrola, komunikazioen kontrola, jantzien kontrola, kaleko "piropoak"...) (Evangelista García, 2019) noizbait bizi izan dituela erakutsi zuen.

Gainera, hazten diren bitartean inguruan ikusten diren kanpainak askotan biktimari bideratuak daudenez (beraien errua dela hortik ez ateratzea, bertan sartzea edo horrelako zerbait) sufrimendua areagotzen da biktimengan eta beldur sentsazioa handiagoa sortzen da segurtasun neurriak berriro emakumeengan erortzen direlako, ez delako erasotzailea kontzientziatzen agresio hori egin ez dezan.

Hortaz, kontrol soziala emakumeei huts egiten digunaren sentsazioarekin hazi egiten gara emakume gehienak, indar gutxirekin haziz eta laguntza eskasa jasotzen kanpoaldetik. Gure defentsaren edo babesaren pisua gure gainean sentiarazten dugu gure inguruko erasotzaile posibleak kontzientziatu beharrean. Gure alde dauden "kanpainak" gure biktimizazioan laguntzen.

2.3.4. Segurtasun Sentsazioa Ikerketa Gai Gisa

Segurtasun subjektiboarekin segituz, edo beldurrarekin hobeto esanda, delituarekiko beldurra azaltzeko faktore asko daudela ikusi dezakegu, eta autoreen arabera aldatu egiten da.

Delituari beldurrari buruz kriminologiako literatura jasotzen duen azalpen-hipotesiak asko dira. Izan ere, hiru nagusitzen dira:

1. **Zaugarritasuna.** Generoaren eta adinaren arabera bulnerabilitate ezberdina sentituko dugu kalera ateratzerakoan.
2. **Esperientzia.** Biktimizazioa jadanik jaso egin bada, beldur handiagoa izango zaio delitu bat sufritzeari biktimizaziorik egon ez denean baino (hau zuzena izan daiteke, baina baita bitartekoak edo zeharkakoak; beste pertsonak sufritu dutelako).
3. **Ekologia.** Auzoko dinamika, hiritartasuna edo horren eza, toki arriskutsuak egotea, espazio-babesgarria...

Hiru elementu horiek kontuan hartuta, Hale (1996) eta Van Beek-en (2004) garrantziko faktoreen proposamenak segurtasun sententzioan ikusi eta konparatu ditzakegu (ikusi 2. Taula).

2 Taula

Hale eta Van Beek Gert konparazioa

Hale	Van Beek Gert
Kalteberatasuna edo Zaugarritasuna <ul style="list-style-type: none"> • Generoa • Adina • Klase soziala eta faktore sozioekonomikoak 	Perspektiba sozio-demografikoa (kalteberatasuna) <ul style="list-style-type: none"> • Generoa • Adina • Egoera sozioekonomikoa • Etnia
Delituarekiko esperientzia <ul style="list-style-type: none"> • Biktimizazio pertsonala • Zeharkako esperientzia (iruzkinak eta komentarioak, zurrumurruak) • Komunikabideak 	Delituarekiko esperientzia <ul style="list-style-type: none"> • Biktimizazio zuzena eta zeharkakoa • Komunikazioa eta hauen baliabideen kontsumoa
Ingurumen fisikoa eta soziala <ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-laguntza/komunitate kohesionatua • Bakarrik bizitzea vs. besteekin bizitzea • Incivilities (desordena fisiko eta sozialaren zeinuak)/Broken Windows/Signal Crimes • Desantolaketa soziala, aurreikusi ezin diren pertsonak (Social incivilities) Beste faktore batzuk (psikologikoak) <ul style="list-style-type: none"> • Alienazioa/Anomia • Aldaketa sozialak eragindako deserosotasuna • Kontrol faltaren/mesfidantzaren pertzepzioa auzo-bizitzan • Aurre egitea (afrentamiento) 	Ikuspegi ekologikoa <ul style="list-style-type: none"> • Hirigintza • Incivilities • Bizitza komunitarioa

Nota. Bi autore ezberdinen arteko konparazioa segurtasun sententzioan eragina duten faktoreei buruz. (Larruskain, 2022)

Taulan hainbat faktore ikusten ditugu bi zutabeetan agertzen direla, bai jatorrizko ikerketan bai zortzi urte geroago egindako berrikusketan. Lan honetan interesatzen zaizkidanak bi faktore dira: generoa eta, delituarekiko esperientziaren barruan, komunikabideak, hauek baitira genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpainak zabaltzen dituztenak.

Bi puntu horiek interesgarriak iruditzen zaizkit, beste ezer baino gehiago, kokatutako atalagatik. Generoa *kalteberatasunean edo zaurgarritasunean* kokatzen dute bai Hale bai Van Beek Gert-ek, eta komunikazio-bideak *delituarekiko esperientzia* izeneko atal baten barruan sailkatzen dute baita ere bi autoreek.

Generoa horrelako atal batean klasifikatzea argi uzten du historikoki ikusi diren genero rola oraindik garrantzi handia dutela gizartean. Urtetan zehar eta belaunaldiak atzera begiratu, generoen ezberdintasun handia ikusi da, gizonezkoaren papera indartsua, ausarta, langilea, liderra eta abar bezala definitu egin da; emakumearen papera, berriz, ahula, maitekorra, etxeandrea, obediente eta abar bezala definitu da. Horrelako ikerketak egiterakoan ikusi egiten da errol hauek mantentzen direla, ikerketa hauek (nahiz eta aipatutako berriena 2004 urtekoa izan) haien artean ia hamarkada bat dute, eta ezberdintasun handia ez da ikusten, bietan emakumearen generoa zaurgarritasuna ekartzen duelako, genero errolek sortzen dituzten estereotipoengatik. Hau argiago gelditzen da berdintasunaren ikuspuntutik begiratzen dugunean, aurrerago ikusiko dugun moduan, generoaren arabera egoera berdinegatik galdetzerakoan (egunerokotasunean egiten diren ekintzak) beldur edo egoera beldurgarri oso ezberdinak ikusten dira generoen artean (nahiz eta genero berdinekoen artean bat egin).

Komunikabideei buruz interesgarria da delituarekiko esperientziaren atalean sartzea berezko esperientzia ez delako sartzen. Filma bat ikustean edo liburu bat irakurtzean arrisku handiko eszenak ikusten dira: gudak, giza-hilketak, gizateriaren aurkako delituak, torturak... baina ez da arrisku edo delitu horiekiko esperientzia garatzen. Izan ere, komunikabideek hau egiten dutenean, egiazko informazioa ematen dutenez, delituarekiko esperientzia hau sortzen dute. Esperientzia hau geroz eta handiagoa izango da delitu hauek erakusterakoan, eta adibide argiena (generoa alde batera utzita edozein pertsona bere burua islatua ikusi ahal izateko) okupena da, delitu hauen kondenak 2021 urtean 255 izan ziren, baina Europako larritasun tasarik altuena jaso egin zuen Espainia, horietako arrazoi bat teleberrian edo beste komunikabideek sortzen duten notizietan ikusitakoarengatik (Fernandez, 2022). Orduan, hau gure delituetara estrapolatzen badugu, jakin dezakegu komunikabideetan horrelako

informazioa ikusteagatik larritasuna gora egingo duela eta, horrekin batera, delituarekiko esperientzia sortuko da. Hortaz, nahiz eta inoiz horrelako deliturik sufritu ez izana ezta inguruko inork sufritu ez izana, esperientzia hori sortzen da.

2.3.5. Komunikabideen Eragina Segurtasun Ezaren Sentsazioan

Arazo soziala dela argi utzi dugu, baina orain komunikabideekin sartuko gara. Komunikabideen parte hartzea agian zerbait arazotsua izan daiteke atal honetan zehar azalduko dudanagatik. Nahiz eta emakumeenganako delituak izan, emakume guztiek ez dute delitu hauekiko esperientzia zuzena (ez behintzat delitu larriekiko), baina bai nabari dute horiekiko beldurra edo segurtasun falta.

Komunikabideek intereseko elementu bat da kasu honetan, nahiz eta beste instituzio publikok eragina izan dezaketen. Honengatik, jakitea segurtasun sentsazioa (edo honen falta) komunikabideen influentzia handiagoa edo txikiagoa duen zaila da, beste elementu askorekin elkarreragiten du eta, baina horrelako fenomenoetan eragina duela argi gelditzen da ondorengo paragrafoetan ikusten den moduan.

Hala ere, segurtasun-sentsazioarekin (edo honen faltarekin) lagun dezaketen komunikabideen estrategien artean, *Agenda Setting*-aren teoria eta honen barruan aurkitzen dugun *framing*-a aurki ditzakegu.

Hirurogeiko hamarkadatik aurrera garatutako *Agenda Setting*-aren teoria izan da komunikabideek iritzi publikoan eta agenda politikoan izan duten eragina hobekien azaldu duen eredu. McCombsek eta Shawk 1972an sortu zuten termino hori, masa-komunikabideen boterea aipatzeko iritzi publikoa gai jakin batzuetara bideratzeko. Gai jakin batzuei arreta jartzean eta beste batzuk alde batera uztean, ikuslearen iritzia azpimarratzen dute; izan ere, ikusleek komunikabideek eman dioten garrantziaren arabera ordenatuko dituzte gaiak (Zuloaga, 2014). Teoria honek nabarmendu egiten du komunikabideek gai edo arazo sozial jakin batzuei buruzko arreta erakartzeko duten ahalmena, eta gizarte-gertakariak interpretatzeko esparruak sortzen dituzten aldi berean, gai edo arazo horiek iritzi publikoaren aurrean garrantzitsuenak direla aurkeztuz.

Agenda Setting-aren bigarren faseari *Framing* deitzen zaio, eta komunikabideen informazio-lanaren asmo objektibistak hausten ditu, pertsonak, beren kidesun ideologikoaren edo gustu pertsonalen arabera, errealitatea interpretatzen baitute, kontzienteki edo oharkabean parametro batzuk txertatuz (egungo adibide bat Ukraina eta Errusia arteko guda litzateke non Europako notizietan eta Errusiako notizietan, gertaera bera modu oso ezberdinean erakusten baitira).

Honek ekartzen du komunikabideek informazioa zabaltzerakoan hedabide bakoitzaren interesei begira erakustea (edo interesatzen zaien ideologiaren ideiekin bat egiteko) (Aruguete, 2016). Helburu horri begira, eta genero indarkeriazko delituetara eramanda, hainbat tresna erabili daitezke: delituen kopurua eraldatzea (handiagoa edo txikiagoa iruditu dadin), benetan gertatzen diren delituen arriskugarritasuna edo biolentzia maila handitzea edo txikitzea, gertakariaren arazoia pertsona, kolektibo, leku edo arropa mota batean edo bestean jartzea... Honekin delituarekiko esperientzia ematen diote haien ikusle, entzule edota irakurleei eta biktima potentzialek esperientzia hori barneratzen dute, nahiz eta zuzenki ez duten inoiz jasan horrelako krimen edo deliturik (Aruguete, 2016).

Barry Glassner soziologoak dioenez, komunikabideak dira beldur horiek masiboki errepikatzen dituen kanala, eta, beraz, beldur faltsuak eta legitimoak bereizten ikasi behar da, komunikabideek zenbaitetan haien ikusleengan arazo larrietatik arreta galtzea eragiten dutelako etengabe, gertatzeko aukera gutxi dauzkaten gauzetan zentratuz atentzioa (Glassner, 2009 in Zuloaga, 2014). Izan ere, gaztaroan hasten direnez horrelako beldurrak gorputzean sartzen, oso barneratuta gelditzen dira beldur horiek, eta zaildu egiten da objektiboak eta subjektiboak diren beldurren arteko bereizketa egitea.

2.4. Segurtasun Sentsazio Handiagoa vs Beldur Sentsazio Txikiagoa

Nahiz eta gauza berdina iruditu, segurtasun sentsazio handiago bat izatea edo beldur sentsazio txikiago bat izatea ez dira gauza berdina. Honen oinarria aurkitzen dugu segurtasuna eta beldurra berdina ez direnaren ondorio argian. Horregatik, atal honen barruan aurkitutako tituluetan saiatuko nahiz erakusten hauen ezberdintasunak eta ekartzen dituzten ondorio ezberdinak.

2.4.1. Segurtasun Sentsazio Handiagorearen Kontzeptua

Jadanik segurtasunaren eta segurtasun sentsazioaren kontzeptuak aztertu egin ditugu. Izan ere, segurtasun sentsazio *handiagoa* definitzea zaila den zerbait da. Lehen esan dugun bezala, *segurtasun sentsazioa* pertsona bakoitzaren neurketaren araberakoa da, hortaz sentsazio hori areagotzeko pertsonaren sentimenduetan eta sentsazioetan oinarritu beharra dago.

Segurtasun sentsazio handiagoa sentituko da geroz eta delitu bat gertatzeko (eta haren biktima izateko) sentsazio txikiagoa izaten denean. Sentsazio-aldaketa hauen

arrazoiak gizarteratze hobeago batetik hasita benetan segurtasun handiago bat egoterarteko neurriengatik da, argiztapena hobetzearen gai simple edo argiak alde batera utzi gabe izan ere, ez dago ikerketa erabakigarririk pertsona guztientzat eta leku guztietan funtzionatzen duten neurriei buruz.

Segurtasun ezaren sentrazioa eta segurtasunaren sentrazioa bata bestearen aurkakoak dira, polarizatua dago. Segurtasun handiagoaren sentrazioaren emaitzak aztertzen dituzten azterlanen eskasia ikusita, segurtasun ezaren (edo segurtasun txikiagoaren) sentrazioak aztertu beharko dira haren alderantzizkoa (segurtasun handiagoaren sentrazioa) aztertu ahal izateko. Alderantzizkoa aztertzearekin zera esan nahi dut: segurtasun handiagoaren sentrazioak ekartzen dituen ondorioen datuekin segurtasun txikiagoaren ondorioak ondorioztatuko ditugu; ilunpetan ez gaudela dakigun moduan, ez iluntasuna ez dagoelako, baizik eta argia dagoelako. Horretarako, hainbat autoreen ikerketetatik lortutako ondorioak aztertuko ditugu:

3 Taula

Segurtasun sentsazio txikiagoaren ondorioak

	Objektiboki	Subjektiboki
Martínez, Ávila, Vera, Rivera eta Musitu (2016)	Osasun fisikoaren narriadura, kliniketako gastuak eta lan-jardueren etetea.	Osasun mentala okertzea: Errutina-aldaketak (etxetik irteteko ohiturak) eta lotura pertsonalen murrizketa.
Pizarro (2021)		Osasun mentalaren okertzea: Produktibitatea gutxitzea horren ondorioz.
Vuanello (2009)	Osasun fisikoaren okertzea.	Osasun psikologikoa okertzea eta lotura pertsonalak murriztea
Muratori eta Zubieta (2016)	Lan-denbora galtzea edo etetea eta gastu ekonomikoak.	Osasun mentalaren okertzea
Galvez (2019)		Osasun mentalaren okertzea
Martínez eta Cerrón (2020)		Osasun mentalaren, bizi-kalitatearen eta ongizatearen eta zorientasunaren okertze orokorra.
Stefanizzi eta Verdoline (2016)		Osasun mentalaren okertzea

Nota. Nik egindako taula honako ikertzaileek egindako ikerketetan oinarrituta: Galvez, 2019; Pizarro, 2021; Martínez eta Cerrón, 2020; Martínez et al., 2016; Muratori eta Zubieta, 2016; Stefanizzi eta Verdoline, 2016; Vuanello, 2009

Argi ikusten da hainbat ondorio errepikatzen direla autore batean baino gehiagotan (adibidez, osasun mentalaren okertzea), honek erakutsi dezake segurtasun sentrazio ezeko egoera iraunkor batean egoteak gehienetan ondorio horiek ekartzen dituela. Esan bezala, alderantzizko azterketa bat egin beharra dago. Segurtasun sentrazio handiago batean egotea aurkako ondorioak ekarriko lituzke, hortaz osasun mental hobea bat, ongizate eta zorientasun tasa altuagoak, lotura pertsonalak mantentzea (eta berriak egiteko erraztasuna segurtasuna sentitzeagatik ingurugiroarekiko) eta produktibitatea mantentzea.

2.4.2. Beldur Sentrazio Txikiagoaren Kontzeptua

Nahiz eta segurtasuna eta horren sentrazioaren kontzeptuak definitu izana, beldurra ez dugu definitu. Beldurraren definizio zehatza honako hau da: arrisku edo kalte erreal edo irudizko batek eragindako larritasuna (RAE, 2006)¹¹. Kriminologian, aldiz, beldurra “oinarrizko erreakzio emozionala da mehatxu pertsonaltzat hartzen diren gertaera kriminalen aurrean” (Dittmann, 2008) definitu egin da. Hortaz, kasu honetan, beldur gutxiago sentitzea ez litzateke delitu bat gertatuko delako sentrazio txikiagoa izatea, baizik eta, delitu bat gertatuz gero, biktimak lagunduko dion norbait edo bere kabuz defendatzeko moduren bat izango duelako sentrazioa izatea.

Berriz ere, ez dago azterketarik beldur gutxiago izatearen ondorioei buruz, baina badaude beldurrak pertsonengan eragiten duenari buruz, bai beldurra sentitzen den une zehatzean, bai epe luzera begira. Ikerketa horien ondorioak ikustean, alderantzizko azterketaren bidez beldur gutxiagoren ondorioak aztertuko dira. *Once* fundazioak ikerketa hauen jasotzeaz arduratu egin da hurrengo ondorioak azaltzen:

*Beldurrak geldiarazi egiten gaitu eta arreta guztia estimulu eragilean jartzeak eragiten du, baina arazoak sor daitezke beldur hori eragiten duen estimulu zehatzik ez badago, beldurra jasaten duen pertsona hiperzaintza-egoeran egotea eragiten baitu. Gainera, beharrezkoa den kasuetan, defentsarako jokabideak erraztuko dizkigu. Beste erreakzio fisiologiko batzuen artean, hauek daude: bihotz-presioaren igoera, izerditzea, begi-ninien dilatazioa, gorputz-tenperaturaren jaitsiera, larruazalaren eroankortasunaren igoera eta tonu muskularraren igoera (baita zurrunketara heltzeraino ere) (*Once Fundazioa, 2011*).*

¹¹Real Academia Española. (2006). Miedo. En *Diccionario esencial de la lengua española*.

Aldi baterako erreakzio fisiko horien ondorioz, epe luzera erreakzio subjektiboak sortzen dira, hala nola ondoezaren eta kezkaen sentsazio handia, eta, askotan, kontrola erabat galtzearen sentsazioa. Horrek blokeo emozionala eta bizitzaz gozatzeko zailtasun altuak ekar ditzake, eta, gainera, lehen urratsa izan daiteke nahasmendu psikologiko bat jasatera eramango duen bide batean (adibidez, antsietate-nahasmendu bat).

Hortaz, alderantzizko ikerketa egiterakoan, beldur gutxiago sentitzearen ondorioak ondoezaren eta kezkaen sentsazio baxuagoak izatea, blokeo emozionala ez izatea, bizitzaz gozatzeko zailtasun baxuagoak eta nahasmendu psikologikoak izateko aukerak jaitsi ditzakeela ondorioztatuko litzatekeela uste dut.

2.4.3. Alderaketa

4 Taula

Segurtasun sentsazio handiagoa vs Beldur sentsazio txikiagoa

Segurtasun sentsazio handiagoa	Beldur sentsazio txikiagoa
Osasun mental hobego bat	Ondoezaren eta kezkaen sentsazio baxuagoak izatea
Ongizate eta zorientasun tasa altuagoak	Blokeo emozionala ez izatea,
Lotura pertsonalak mantentzea (eta berriak egiteko erraztasuna segurtasuna sentitzeagatik ingurugiroarekiko)	Bizitzaz gozatzeko zailtasun baxuagoak
Produktibitatea mantentzea.	Nahasmendu psikologikoak izateko aukerak jaitsi ditzake

Nota. Nik egindako taula honako ikertzaileek egindako ikerketetan oinarrituta: *Once* fundazioa (2011); Galvez, 2019; Pizarro, 2021; Martínez eta Cerrón, 2020; Martínez et al., 2016; Muratori eta Zubieta, 2016; Stefanizzi eta Verdoline, 2016; Vuanello, 2009.

Ikusten dugun moduan, segurtasun sentsazio handiagoa izateak sentsazio, egoera edo ekintza onak hobetzen ditu; berriz, beldur sentsazio txikiago bat izateak sentsazio, egoera edo ekintza txarrak murrizten ditu. Honekin bi kontzeptuen arteko ezberdintasun nagusia ikusi dezakegu.

Hala ere, argiegi ez bada gelditzen, adibide bat lagungarria izango da. Bi egoera berdinetan, pertsona bat korridore ilun baten aurrean dago, zuloz, zoruan irregulartasunak izanda edo sabaitik zintzilik dauden hainbat objektuz beteta. Lehenengo egoeran, A deiturikoan, pertsonak *makila zuri* bat jasotzen du korridorea zeharkatzeko. Bigarren egoeran, B deiturikoan, pertsonak argia pizteko aukera du. B egoeran, pertsonak segurtasun handiagoa sentituko du argia piztean, korridorean dagoen guztia ikusteko gai izango delako; A egoeran, berriz, *makila zuria* jasotzean, pertsonak beldur gutxiago sentituko du, kolpeak jasotzeko, oreka galtzeko edo oraindik ikusteko gai ez den korridoreko irregulartasunengatik erortzeko arriskua izango baitu.

3. Metodologia

Esan bezala, ikerketa honen helburua hiru hipotesi frogatzea da, hipotesi horiek ondorengoak izaten:

- 1) Ez da segurtasun sententzioa handitzen, baizik eta beldur gutxiago sentitzen
- 2) Emakumeen defentsa babes autonomoko neurriak dira
- 3) Gobernuaren prebentzio neurriak ez dira eraginkorrak

Hiru hipotesi horiek frogatzeko elkarrizketa erdiegituratu eta dokumentazio lanean oinarritu egin nahiz. Lan hau egiteko denbora gehiago izan banu, behaketaz baliatuko nintzateke hipotesi horik egiaztatzeko edo ezeztatzeko, baina denbora falta ikusterakoan elkarrizketa erdiegituratuak erabili izan ditut hau ordezkatzeko saiatzeko, aurrerago azaltzen dudan arrazoiengatik.

3.1. Teknikak

Lehen aipatu dudan moduan, ikerketa kualitatiboa garatu dut GRAL hau burutzeko. Honetarako bi teknika erabili ditut: 1) Elkarrizketa erdiegituratuak; 2) Dokumentazio lana.

3.1.1. *Elkarrizketa Erdiegituratuak*

Cristina Ortigaren (2018) arabera, elkarrizketa bat ikerketa kualitatiboko teknika bat da, eta elkarrizketatutako pertsonarekin hitz egiteko galderak egitean eta gai bati buruzko datuak biltzean datza. Kasu gehienetan, elkarrizketatzailea aditua da, eta elkarrizketatuen iritziak ondo planifikatutako eta gauzatutako galdera eta erantzunetan ulertzen saiatzen da. Elkarrizketek foku-taldean eta inkestak funtzio bera betetzen dute informazioa bildu nahi denean, nahiz eta funtzionamenduan guztiz desberdinak izan. Foku-taldeekiko aldea 6-10 pertsonako talde txikia elkarrizketak pertsona bakar batera mugatzen direla da. Bestalde, inkestak kuantitatiboak dira, eta elkarrizketek, batez ere, datu kualitatiboak jasotzen dituzte. Hau dela eta, informazio kualitatiboa lortzeko elkarrizketetan oinarritu egin naiz.

Elkarrizketek erraminta bat eskaintzen diete ikertzaileei, parte-hartzaileak bultzatzeko eta nahi duten informazioa lortzeko. Ikerketan funtsezkoak diren hiru elkarrizketa mota daude: egituratua, erdiegituratu eta egituratu gabekoa. Kasu honetan egokiena erdiegituratu izan da, gidoi bat segitzea baimentzen duelako, elkarrizketatuen iritziak eta ideiak erabiltzea eragotzi gabe.

Kriminologiaren arloko elkarrizketa ikerketa edo analisi kriminologiko baten barruan informazioa lortzeko metodo kualitatiboa da. Elkarrizketa kriminologiko baten helburua da gizartearen aurkako egitateari edo delitu-egitateari buruzko informazioa lortzea, bere osotasunean, kriminologian aztertzen diren alderdi guztiak kontuan hartuta. Galdera ireki batzuk egitean datza, informazio sakona bilatzeko. Horretarako, kontuan hartu behar dira elkarrizketatuaren alderdi subjektiboak, interes kriminologikoko gertakari edo gai bati dagokionez (LISA Institute, 2021).

LISA Institute (2021) arabera, elkarrizketa kriminologiko batean elkarrizketatzaileak eta elkarrizketatuak parte hartzen dute. Kontuan izan behar da elkarrizketa kriminologikoa biktinario edo kriminalari zein biktinari zuzenduta egon daitekeela, bai eta kriminologiaren ikerketa-eremuarekin zerikusia duten gainerako eragile guztiei ere (adibidez, lekukoei). Elkarrizketatuari zuzentzen zaizkio elkarrizketa kriminologikoko galderak, eta horri buruzko informazio edo datu garrantzitsuak lortzea espero da. Arreta bereziz aztertu behar da zer motatako elkarrizketatua den (biktima, biktinarioa, adingabea, familiakoa, etab.), bai eta bere ezaugarri psikologiko garrantzitsuenak ere, elkarrizketa egokitzeko, nahi den informazioa lortuz, baina une oro pertsonarekiko tratu enpatikoa errespetatuz eta zainduz.

Elkarrizketatzaile kriminologoak gidatu behar du elkarrizketa, eta bera arduratzen da *rapport* (edo enpatia-konexioa) ezartzeaz. Halaber, beharrezkoa bada, elkarrizketa kriminologikoaren helburua lortzen lagunduko duten laguntza-materialen erabilera planifikatzeaz arduratzen da. Kasu honetan, laguntza-material hori elkarrizketatzailearen erantzunak izango lirateke, informazioa ematen jarrai dezan beharrezko erantzunak lortu arte.

Lehen esan bezala, elkarrizketa mota bat baino gehiago daude, eta interesatzen zaiguna erdiegituratu da. Elkarrizketa erdiegituratuaren abantailen artean galderak elkarrizketa baino lehen programatzen direla dago, denbora ematen galdera hauek prestatzeko eta azaltzeko, baita beste elkarrizketa batzuen erantzunekin lotzeko ondorengo elkarrizketetan; horretaz aparte, malgua da, eta aldi berean gidalerroei eusten die; galderak formatuz aldatu daitezke elkarrizketatutako pertsonak hobeto ulertu ditzan edo erosoago sentitu ditzan horiekin; azkenik, datu kualitatibo fidagarriak bildu daitezke, errekurso ona bihurtzen behaketa zuzen bat egiteko denbora ez dagoenean (Ortega, 2018). Ikerketa honetan sei elkarrizketa egin ditut eta guztiek elkarrizketa erdiegituratuaren ezaugarriekin bat egiten dute.

Elkarrizketa hauek lortzeko, elkarrizketatutako batzuk adingabeak zirenez, gaiari buruzko azterketarekin lotura zuzenik ez zuten beste pertsona batzuekin hitz egiten ikusi dut neure burua, adibidez gurasoak. Guraso horiek, elkarrizketa zer zen entzutean, uko egiten zioten azaldu ez zidaten arrazoiaren ondorioz, edo alderantziz, azterketa interesgarri bat ikusten zuten, eta beren burua eskaintzen zuten elkarrizketak egiteko (adidasunez baztertzeko nituen, ez baitziren nire ikerketarako zehaztutako adin-tartean sartzen). Izan zen kasua, baita ere, non haien seme-alaba elkarrizketatzeko baimena ez zuten ematen, baina haien burua eskaintzen zuten. Izan ere, solasaldi espontaneo hauek ez nituen alde batera utzi, nahiz eta grabaketarik ez egin, interesgarriak izan ziren gauzak azaldu zizkidan eta. Elkarrizketa hauetako interesgarriena saskibaloiko entrenatzaile (2023-03-09) batekin izan zen, haren jokalaria baten gurasoaren baimena lortuta nuen elkarrizketa egiteko, baina haren baimena beharrezkoa nuen entrenamendutik zeozer lehenago ateratzeko eta elkarrizketa aurrera eramateko. Entrenatzailea gizonezkoa izanda (22 urtekoa, gutxi gora behera) eta neskatoak entrenatzeak nire buruan ekartzen zuen “defentsa sentimendua” izango zuela, baina horrelakorik izan bazuen, gure solasaldi motzean aurkakoa demostratu zuen.

Elkarrizketa hauetan aztertu nahi dudana da bai prebentzioaren eskuhartzea kaleko jendeak nabarmentzen duen bai segurtasun sententzia nolakotasuna. Ikerketa honetarako sei elkarrizketa erdiegituratuak egin ditut, hiru neskekin egin ziren eta beste hiru mutilekin. Pertsona hauen adin tartea 15 eta 25 urte artekoa izan da, adin horien artean izaten baitira, gutxi gora behera, gaueko aisialdira ateratzeko momentuetan genero indarkeriazko delitu hauen biktimak (SEXVIOL-ek 2022 urtean egindako ikerketa bateak ikusarazten duelako horrelako delituen salaketa eta sententzien datuak biktimen %80ak 10 eta 30 urte artean aurkitzen dira). Biktima objektiboak delitu hauetarako (adinetik aparte) neskak direnez, adin ezberdinetakoak izateak informazioa ematen du beldurra adinarekin handitzen edo gutxitzen den. Horretaz aparte, mutilak elkarrizketatzea (zeinak delitu hauetan biktimarioak izaten diren) informazioa ematen gaitu ikusteko beldurraren ezberdintasuna eta, baita, ea beraien buruarengan presioa sentitzen dute edo besteengan beldurra sortzen dutenaren sententzia izaten dute. Jaiotako edo hazitako tokia garrantzitsua izan daitekeenez, baita Donostiako jendea edo Oarsoaldeko jendea izan da elkarrizketatutakoa. Elkarrizketan gidoi bat banuen ere (eranskinetako orrialdeetan agertzen da erabilitako gidoia), elkarrizketatutako pertsonaren (edo lehendik elkarrizketatutako pertsonen) aportunetatik gauza interesgarriak lortzeko aukera egon denean, gidoitik atera eta bertatik segitu egin dut, nahiz eta gidoiko puntu guztiak betetzeaz arduratu momentu oro. Asmoa elkarrizketatutako pertsona eroso egotea zen, azkenean hainbat galderen erantzunak

deserosoak izan daitezkeelako, baina haiek kontatu ahal izango lituzketen esperientziak baliagarriak ziren, bai onak izanda bai txarrak. Hona hemen elkarrizketatutako pertsonen datu orokorrak:

5 Taula

Elkarrizketatuen datuak

Bizilekua	Elkarrizketaren Data	Adina	Generoa	Izena
Pasaia San Juan	Otsailak 20	21	Emakumea	Kattalin
Donostia	Martxoak 4	22	Emakumea	Goizane
Errenteria/Oiartzun	Martxoak 7	23	Gizona	Ibai
Oiartzun	Martxoan 9	15	Emakumea	Irati
Donostia	Martxoak 17	21	Gizona	Adei
Donostia/Errenteria	Martxoak 26	18	Gizona	Unax

Taulako datuak azalduko ditut, baina lehenik eta behin esan beharra dago elkarrizketatuen anonimotasuna bermatu ahal izateko bertan agertzen diren izenak eta analisiaren luzera osoan erabiliko diren izenak asmatuak direla.

Esan bezala, hiru aldagai daude ikerketa honetan: generoa, adina eta jaiotako/hezitako tokia. Generoaren arabera bi talde aurkitu ditzakegu: emakumeak eta gizonak. Nahiz eta hasierako ideia lehenengo emakume guztiak elkarrizketatzea eta gero gizonetzkoekin egotea zen, egokia iruditu zitzaidan gizon baten ikuspuntua jakitea (2023ko martxoak 7an egindako elkarrizketa) emakumeen elkarrizketa guztiak egin baino lehen, galderei buelta bat eman ahal izateko eta sesgo edo estereotiporik egon izan balego lehenengo bi elkarrizketetan hirugarren horretatik desagerrarazteko. Bigarren aldagaia, esan bezala, adina zen, baina bariante honen helburu bakarra elkarrizketatutako pertsonak antzeko gau edo aisialdi giroan ibiltzea zen, hortaz garrantzi handiagorik ez du. Azkenik, jaiotako/hezitako lekua daukagu aldagai gisa. Kasu honetan aztertu nahi nuen ea, generoaz gain, leku ezagun edo ezezagun batean egoteak sentrazioak aldatzen dituen edo ez; Hau da, gaez ibiltzea bizi zaren herrian edo bizi ez zaren herrian areagotzen duen segurtasunez ibiltzen ari zaren sentrazioa ala ez.. Horregatik, subjektuen erdia Oarsoaldeakoa zen, beste bik Donostiakoak ziren eta azkenengoa Donostian eta Errenterian (Oarsoaldea) bizitza egiten zuen pertsona bat izan da.

Subjektu hauetaz gain beste pertsona bat elkarrizketatu behar nuen: horrelako lanetan aditu bat. Aditu hau aurkitzeko Emakumeen Etxearen bidez egin dut, eta nire beste elkarrizketen subjektuen adinarengatik Lahaia Elkartearen parte zen emakume batekin kontaktuan jarri ninduten, zeinak psikologian lizentziatu zen gero sexologia klinikoa eta bikote terapian espezializatzeko, emakume eta gizon arteko berdintasuneko beste espezializazio bat egiten ere. Emakume honen testigantzak oso baliagarriak izango ziren nire Gradu Amaierako Lanaren analisiarentzat, hamar urte baino gehiagoko esperientzia baitzuen gai hauekin lan egiten eta horrek sortuko zuen ez bakarrik ideia profesional baten ikuskera analizatzea, baizik eta denboran aldaketarik ikusi ahal izan zuen edo ez. Emakume hau Irundarra zen jaiotzaz, baina lan egin izan du bai Donostian bai Oarsoaldeko hainbat lekutan (momentuan Pasaian eta Erreterian), hortaz lekukotasunaren faktorea baita hartzeko gai zen, konparaketak eginez Donostian jasotzen zituen kasuen eta Oarsoaldean jasotzen zituen kasuen artean, bai kantitatean bai motan. Horretaz gain, berak proposatu ahalko zituen kanpainak aztertutako beste pertsonen kanpaineekin alderatzeko aukera sortzen du, bere kanpainak profesionalagoak izanda edo jakinduria gehiagorekin bideratuak egonda, konparaketa honek lagundu dezake jakiten ea proposatutako zeintzuk izango lirateke baliagarriagoak edo inpaktu gehiago sortuko zuten jakiteko, hoberenak borobiltzeko eta ez hain onak hobetzeko, proposatutako guztia erabiltzen saiatzeko.

6 Taula

Adituaren datuak

Lan postua	Lan eremu geografikoa	Elkarrizketaren data	Generoa	Izena
Berdintasun langilea	Orokorrean, Donostialdea eta Oarsoaldea	Maiatzak 2	Emakumea	Iraide

Elkarrizketak hasterakoan, pertsona bakoitzari grabatzeko baimena eskatu diet (adingabeak izan direnean, haien gurasoei baita baimena eskatu diet), eta ados egon direnez kasu guztietan elkarrizketarekin aurrera egin dut, honen grabazioa martxan jarrita. Elkarrizketa guztiak grabatu ondoren, hauen transkribapena egin dut. Transkribapenak eskuz eginak dira, kontzienteki egin dut hau, elkarrizketak berriro entzutera behartzen duelako horrela, eta honek ez du bakarrik ideiak freskatzen laguntzen, baizik eta elkarrizketaren momentuan nabarmendu ez nituen datuak (bai

berbalak bai ez-berbalak, pentsa-soinuak¹² adibidez), jadanik elkarrizketan hartutako oharrei gehitzen aurkikuntza berri hauek. Transkribapenak hizkuntza formalera ez dut ekarri, ezta zuzendu ere, pentsa-soinuak, isiltasunak, errepikapenak, zalantzak edo autozuzenketak eta horrelakoak interesgarriak iruditu zaizkit eta, lehen esan dudan bezala datu ez-berbal bezala jaso ditudalako. Horretaz aparte, gauzak azaltzerako momentuan, erabiltzen diren espresioak, isilune luzeak egotea edo datu espezifikoen kantitatea ematea unea gogoratzerakoan erosotasuna sentitzen duen edo ez jakiten lagundu dezake.

3.1.1.1. *Rapport*

Lehen *rapportari* (edo enpatia-konexioa) buruz hitz egin dugu, baina ez dut azaldu zer den espezifikoki. Anthony Robbins estratega, idazle eta hizlari estatubatuarraren arabera, honako hau da: “*rapport* norbaiten munduan sartzeko gaitasuna da, ulertzen duzula eta elkarrekin lotura estua dutela sentiaraztea. Zure munduko mapatik haren munduko mapara erabat joateko gaitasuna da”. Hau dela eta, komunikazioan erosotasuna eta enpatia bilatzea dela esan dezakegu. Elkarrizketa hauetan bi pertsonaia nagusi egin dira beti, elkarrizketatua eta elkarrizketatzailea, eta *rapporta* lortzea bigarren honen esku egon da. *Rapport* hau zaila denez lortzea elkarrizketa bakar batean eta alde zaureratik ezagutzen ez nuen pertsona batekin, erraztasunak eman dizkiet elkarrizketatuei bai lekua bai ordutegia erabakitzeko eta, ahal zen kasuetan, freskagarri edo jateko zerbait eskaintzen nien lasaiago egon zitezten. Hala ere, badaude hiru elementu klabe elkarrizketan: elkarrizketatuak daukan informazioa, elkarrizketaren unea eta lekua eta elkarrizketaren gidoia eta dinamika (LISA Institute, 2021). Orain esandakoarekin bigarren puntua gutxi gora behera barne hartzen da, baina hiru puntuak garrantzitsuak dira ikustea.

- **Informazioa.** Elkarrizketatuak nahi duen informazio bezain beste izan behar du (beti ere ikerketa kaltetzen ez badu eta baimena badugu holako datuak partekatzeko), datu hauek normalean hautaketaren pautak, elkarrizketatzailearen identitatea, elkarrizketaren helburua eta horrelakoak izaten dira. Nire kasuan, elkarrizketa hasi bezain laster nire burua aurkezten nuen eta GRALarekin lotutako ikerketa batentzat zela elkarrizketa aipatzen nien, baita azalpen labur bat ematen nien galderen testuinguruari buruz (informazio gehiegi eman gabe erantzun landuak ez izateko, baizik eta beraien momentuko pentsamenduak ikusteko). Egia

¹²Etenaldiak egitean elkarrizketa batean igortzen ditugun soinuak, solaskideari adierazteko elkarrizketa ez dela amaitu, soilik eten dela edo jasotako edo igorriko den informazioa prozesatzen ari dela. Adibidez: *um* edo *em*.

da grabazioa hitza entzuten zuten momentuan zalantzak sortzen zitzaizkiela, baina bakarrik ahotsa grabatuko zela jakiterakoan eta anonimotasuna bermatu zezaketela jakiten zutenean errezelo hori desagertu egiten zen.

- **Lekua eta unea.** LISA Institutuarekin segituz, argi uzten digu elkarrizketa pertsona elkarrizketatuaren beharretara egoki behar dugula, hortaz tokia eta ordua erabakitzea haien eskutan utzi izan dut.

Elkarrizketa guztiak puntu finko batean eman ziren, kafetegi batean gehienetan, baina izan dira kasuak non kiroldegi batean edo lokal batean egindakoak. Egia esanda, nahiz eta kafetegiak puntu neutro bat izan eta haien erabakia izana seguru sentitzen zituzten lekuak haien egunerokotasunean bertan egoten zirelako ez erakustea (adibidez, etxea), aldaketa galanta ikusi nuen erosotasunari begira kiroldegian egiterakoan (astero hiru egun joaten den leku bat izanda entrenatzera, ezaguna den leku bat da eta segurtasuna sentitzeko aukerak egon bazeuden). Ez zen bere espazio propioa non segurtasuna bere kabuz jorratuz eroso sentitu egin den, baizik eta ezezaguna zen leku bat propio bezala hartu duen leku bat, nahiz eta horren jabetza ez izan.

Egindako lehenengo elkarrizketa Pasai San Juaneko *Tahona* kafetegi batean izan zen, barrualdean egin genuen kanpoaldeko jendearen joan etorriak distrakzio bat ez izateko eta ezagun bat pasatzen bazen ez gerturatzeko hitz egitera elkarrizketaren erdian, haria galtzeko arriskua ekarriko luke eta. Ondorengo hiru elkarrizketak baita kafetegian barrualdean egin ziren. Nahiz eta barrualdean egoteak egokia izan elkarrizketak burutzerakoan, transkribatzean arazoak ekartzen zituen, grabagailu moduan mugikorra erabili nuenez, ez zituen atzeko soinuak ondo isolatzen, hortaz kafetegian zeuden beste pertsonen elkarrizketak gainetik entzuteko arriskua neukala jakinda egin nuen (eta kasu batzuetan horrela gertatzen da, bi edo hiru alditan entzuten segundo berberak elkarrizketa egokia ulertzeko). Azkenengo bi elkarrizketak izan dira leku ezberdin batean eman direnak, azken-aurrekoa kiroldegian eta azkenengoa elkarrizketatutako mutikoaren eta haren kuadrilaren lokalean. Kiroldegian zarata asko entzuten da atzealdean bai entrenatzen duten pertsonengatik bai haien seme-alaben entrenamenduak ikusten dituzten gurasoengatik, nahiko neketsua bihurtzen bai elkarrizketa bere baitan bai haren transkripzioa, eta neskatoa azelerazio konstantean egotearen sentsazioa ematen horrenbeste estimuluengatik. Lokalean

emandakoa, berriz, ia zaratarik ez zen aditzen (kanpotik pasatzen zen kotxeren bat, agian) eta mutikoa eroso sentitzen zela ikusten zen, baina denboraren kontra egindako elkarrizketa bat izan zen, bere kuadrila iristerakoan joan behar zen eta. Bi azkenengo elkarrizketa hauek denboraz larri ibilitakoak izan ziren, eta ziurrenik faktore hori alde batera uzteko aukera egon izan balitz informazio hobea edo osoago bat ateratzeko posibilitate altuak izango ziren.

- **Elkarrizketaren gidoia¹³ eta dinamika.** Gidoia beharrezkoa da nahi ditugun puntuak aztertzeke, baina dinamikoa izatea beharrezkoa da. Gidoia segitzeko bidea da, gure burua galdu ez dezagun hainbeste informazio tartean dagoela, baina ez da modu zurrin eta eskusibo batean segituko, elkarrizketatuak gidoian ez dagoen zerbait interesgarria esaten badu, hori ikertzea interesgarria izango litzateke. Azken finean, konfiantza sortuko da elkarrizketatuak bere ordenean eta bere lehenetsuen arabera hitz egitea lortzen badu, elkarrizketatzaileak bermatuko du puntu guztiak jorratzen direnik (LISA Institute, 2021). Gidoiaz gain, beste elkarrizketetan entzundako datu edo iritzi interesgarriak ere atera izan ditut elkarrizketetan, beste elkarrizketatuen iritzia jakiteko gai horri buruz eta, honekin batera, elkarrizketaren dinamizazioan laguntzen. Elkarrizketa dinamikoa¹⁴ izatea gauzarik zailena izan da niretzat, entzute aktiboko teknikak erabili behar nituelako, baina ziurtatu behar nuen elkarrizketatuaren hitz jarria ez nuela moztzen, erantzunen etetea ekarri zezakeelako, edo ez zela trabaturik gelditzen denbora gehiegiz, erantzunen etete hori berriro ere lortuko nukeelako eta.

3.1.2. Dokumentazio Lana

Prebentzioaren eta segurtasun sententzioaren kontzeptuak ulertzeko dokumentazio lana egin dut. Marko teorikoa osatzeko hiru atal nagusi egon dira, hiru sub-marko osatzen modu honetan. Lehenengoa, esan bezala, prebentzioaren sub-marko teorikoa egon da, bere ikuspuntu guztietatik. Hirugarrena segurtasun sententziari buruzko sub-marko teorikoa jorratu dut, bai segurtasun objektiboa bai subjektiboa. Azkenik, bigarren sub-marko teoriko bat jorratu dut babes autonomoari buruz, lehen azaldu bezala, beste bi kontzeptuak lotzen ditu eta.

¹³Eranskinetan aurkitzen da gidoi hau.

¹⁴Gaztelaniazko *escucha activa*, Carl Rogers (1951) psikologoaren lanean oinarritutakoa, giza komunikazioaren teknika eta estrategia espezifikoak bezala definituak.

3.2. Zailtasunak

Zailtasunak lan simple honetan nahi baino gehiago izan dira. Ikerketa lan guztietan horrelakoak aurkitzen diren arren, egon dira zailtasun batzuk ustekabeen harrapatu nindutenak, ez bainuen horrelakorik espero.

Hasieratik izan dudan zailtasuna jendearen lokalizazio geografikoa izan da. Lehenengo neskekin zortea izan nuen arren, beste pertsona guztiekin arazoak aurkitu izan ditut. Donostian bizitza osoa bizi izatea edo Oarsoaldetik kanpo inoiz bizi izan ez diren pertsonak aurkitzea zaila izan zen hasieran, gehienek Donostian jaiotakoak eta hazitakoak baitziren, baina hamar eta hamabost urte tartean Oarsoaldera bizitzera mugitu izan ziren, horrek ezagun egiten zien ikerketaren bi zonaldeak. Alderantziz ere gertatzen zen, bizitza osoa Oarsoaldean eman izana baina hamabi urterekin bizitza Donostian ematea (nahiz eta Oarsoaldean bizi) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, gradua edo batxilergoa Donostian egin behar izan zutelako.

Horretaz gain, baita gertatu zitzaidan agertu beharreko norbait ez agertzea. Kasu espezifiko bat izan zen arren, elkarrizketak behar baino bi aste geroago bukatzeak ekarri zuen. 25 urteko gizon gazte bat zen, berarekin lehenengo aldiz 2023ko martxoak 9an, goizez (11:30), ikusi behar genuen elkar. Hamabost minutuko itxarotearen ostean eta nire kontaktu saiakerak ez ikusiarena suertatzen ari zirela ikusirik, alde egin nuen eta beste pertsona bat elkarrizketatu beharko nuela pentsatu nuen. Ordu batzuk geroago bere mezu bat jasotzen nuen esanez ahaztuta zeukala eta, mesedez, berriro ikusi gintezen, agertuko zela. Hau beste birritan gertatu zen (2023/03/13 eta 2023/03/19), egoera bera errepikatzen eta bere erantzun bera jasotzen. Egoeraz nekaturik elkarrizketa bertan behera utzi eta beste mutil baten bila jarri nintzen, denbora gehiago ez galtzeko.

Beste zailtasun bat adin txikikoekin aurkitu izan dut. Nahiz eta hamabost eta hamazazpi urte arteko neska bat eta mutil bat aurkitu behar nituen ikerketa parekoa izan zezan, ezinezkoa izan zait horrelakorik lortzea. Neskekin konplexua izan zen, kiroldegian egonda eta nesken baimena lortuta, gurasoen baimena eskatzerakoan trabak jartzen zizkidaten elkarrizketa ez egiteko haren alabari, baina azkenik bi neska adingabe lortu nituen, bat elkarrizketa egiteko eta bestea erreserba moduan. Mutilekin, berriz, guztiz ezinezkoa izan zen. Mutil gehienek elkarrizketaren gaia jakiterakoan ezezkoa ematen zuten eta, baiezkoa eman zutenen artean gurasoen baimena lortzea ezin izan zen, guztiek ezezkoa eman zuten, baten hitz testualak izanda: *no voy a dejar que adoctrines a mi hijo con tus preguntas de feminista*. Horregatik, nahiz eta 15 urteko

neska bat lortu dudan, mutilik gazteena 18 urtekoa izan da, gurasoen baimena jadanik beharrezkoa ez zenean.

Azkenengo zailtasuna erakundeari egindako elkarrizketan aurkitu egin dut. Aste Santua baino lehen (2023/04/03) hasi nintzen *Emagin* elkartearekin kontaktatzen saiatzen. Hasieran, deien bidez saiatu egin nintzen, baina Aste Santuko egunak eta Pazko-astea erdian zeudenez, email bidez baita ere kontaktatzen saiatu egin nintzen (2023/04/05 eta 2023/04/17), erantzunik jaso gabe. Deiekin segitu nintzen arren, ez nuen erantzunik jaso, hortaz fisikoki haien bulegoetara joan nintzen (2023/04/25), eta sarreran bulegoetan bazegoela norbait esan ondoren, ez nuen erantzunik jaso ez atea jo nuenean ez irekitzen saiatu nintzenean (giltzaz itxita zegoen atea). Horregatik, egun berdinean Emakumeen Etxearekin kontaktuan jarri nintzen email bidez, haien erantzuna izanda hurrengo egunean bertara joatea datu gehiago izateko elkarrizketa nori bideratu behar den jakin ahal izateko. Iritsi nintzenean (2023/04/26, 10:30) solasaldi motz bat izan nuen bertan zegoen emakumearekin jakin ahal izateko biktimen zein adin-tartea interesatzen zitzaidan, zein delitu mota eta zein ikuspuntutik interesatzen zitzaidan. Horren ondoren, beste email bat bidaltzea eskatu zidaten, beste korreo batera, zuzenean elkarrizketatuko nuen emakumearekin hitz egiteko. Erantzuna jaso nuen ordu batzuk geroago, eta hurrengo asteartean (2023/05/02, 16:30) geratu ginen elkarrizketa aurrera eramateko.

Dokumentazio lanean, berriz, beste zailtasun bat aurkitu dut: babes autonomoaren terminoaren eza. Termino hau orain dela urte batzuk *Movimiento Feminista de Euskal Herriak*¹⁵ martxoak zortziko hitzaldi feminista batean entzun izanaren ustetan nengoen, baina ikertzerako momentuan ez dut termino hori aurkitu, ez gaztelaniaz ez euskaraz, ezta ingelesez ere. Termino horri erreferentzia egiten dioten hainbat ikerketa edo liburuen sekzioak aurkitu arren, ez da babes autonomoan gehiegi sakontzen, edo beste ikerketa batzuen barruan sartzen da kontzeptu autonomo bat izango ez balitz bezala. Hala ere, elkarrizketetako bat egin ondoren, termino hau berez existitzen dela aurkitu nuen, baina izen hori ez dela erabiltzen, baizik eta *autodefentsa* (Euskaraz hitz egiterakoan) edo *autoprotección* (gaztelaniaz hitz egiterakoan). Hori jakin ondoren berrikuspen bat ekin nuen Interneten liburu edo artikuluen bila eta, nahiz eta ez aurkitu, Marko Teorikoan agertzen den Espainiako Gobernuaren orrialdean agertzen den

¹⁵*Movimiento Feminista de Euskal Herria – Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxa*. (2003).

<https://www.emakumeenmundumartxa.eus/es/category/movimiento-feminista-de-euskal-herria/>

babes autonomoko neurrien zerrenda eta neurri horiek noiz aplikatu behar diren azaltzea.

Hortaz, faktore hauek jakinda eta denbora eskasia batuz, zaila izan da ikerketa hasieran planteatutako daten barruan egitea (ondorengo azpiatalean agertzen den kronogramaren arabera data batzuekin bukatuz azkenik), baita nahi izango nukeen luzera eta zehaztasuna ematea (elkarrizketa gehiagorekin informazio askoz gehiago lortzeko aukera egongo zen eta). Hala eta guztiz ere, elkarrizketa hauen bidez eta dokumentazio lanaren arabera lortutako emaitzak interesgarriak eta gustukoak direla esan dezaket, baita hauetatik sortu egin diren proposamenak, bai propioak bai elkarrizketatutako pertsonak proposatu egin zituztenak grabazioak egiterako momentuetan.

3.3. Kronograma

Hasieran maiatzak 15ean entrega topea zegoenez, hiru hilabetetan banatu egin dut lana presaka ez ibiltzeko baina denbora nahiko uzten datu guztientzat. Hala ere, lehen aipatutako lizitazioengatik, ezinezkoa izan zait hiru hilabetetan egitea eta bigarren deialdian (ekainak 15-16) entregatzea erabaki nuen, hortaz maiatzeko asteak erabili behar izan ditut.

Egin-beharra	Otsaila				Martxoa				Apirila				Maiatza			
	1-5	6-12	13-19	20-26	27-5	6-12	13-19	20-26	27-2	3-5	17-23	24-30	1-7	7-14	15-21	22-28
Emakumeen elkarrizketak				X	X	X										
Gizonezkoen elkarrizketak						X	X	X								
Adituaren elkarrizketa													X			
Elkarrizketen datuak hautatzea					X	X	X	X	X				X			
Informazio jasotzea	X	X	X													
Informazioaren analisia				X	X											
Marko teorikoa					X	X			X		X				X	
Metodologia										X		X	X			
Datuen analisia										X		X	X			
Ondorioak													X	X	X	X

4. Analisia

Analisi hau lanaren hasierako momentutik hasi nuen, dokumentazio lana hasterakoan marko teorikoa lantzeko jadanik garrantzitsuak ziren puntuak markatzen hasiz eta elkarrizketen gidoiak egiterakoan berriro markatzen puntu horien garrantzia. Hala eta guztiz ere, azkenengo puntu honetan analisi sakonago bat egiteko aukera izaten da, eta hasieratik analizatutako guztia azpimarratzen da horren interpretazio bat lortzeko. Kasu honetan analisia nahiko lineala izan da, marko teoriko osoa egin ondoren eta elkarrizketak emandako informazioa lortu ostean analisi sakona egiten hasi naiz. Izan ere, elkarrizketak egiterakoan eta hauek transkribatzerako orduan hasi zen analisia bere baitan, agian ez modu sakon batean, baina pertsonak esandako guztia entzuten edo idazten nuen bitartean oharrak hartzen hasi nintzen, interesgarriak iruditzen zitzaizkidan esaldi edo hitzekin eta, elkarrizketaren momentuan bazen, hitz horien azalpenak ematea eskatuz.

Oraingo sekzio honetan, analisi sakona eta interpretazioa ikusi egingo dugu, bost azpiataletan bananduta: ikertutako kontzeptuen analisia (prebentzioa, babes autonomoa eta segurtasun sententzioa bere barnean izanda), emakumeen ikuspegia, gizonen ikuskerak, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak eta adituen ikuspegia.

4.1. Ikertutako Kontzeptuen Analisia

Esan bezala, ikertutako kontzeptuak hiru izan dira: prebentzioa, babes autonomoa eta segurtasun sententzioa. Hiru ikertutako kontzeptu hauek elkarrizketa guztietan jorrateaz arduratu naiz, bai modu zuzenean galdera egiten edo zeharkako bidean beste galdera batzuen erantzunen bidez. Puntu bakoitza bere baitan aztertuko ditut, baina ez dira gai isolatuak, hortaz bata bestearekin zerikusia dutenez ezinezkoa izan da elkarrizketetan bata bestearekin ez erlazionatzea (azkenean babes autonomoaren existentzia prebentzioaren akzio eskasiengatik ematen da eta).

4.1.1. Prebentzioa

Prebentzioari buruz beti erantzun antzekoak jaso ditut, nahiz eta ezberdintasunak nabaritu nesken eta mutilen artean, bazeuden hainbat puntu non berdina suertatzen zen.

Prebentzioari buruzko gaiak jorratzerakoan hainbat puntu egon ziren non, elkarrizketatutako pertsona edozein izanda, antzeko erantzunak ematen zituztenak. Puntu hauek bi izan ziren: gobernuaren neurriak eta kanpaina motak

Gobernuaren neurriei dagokionez, ia elkarrizketatutako guztiek bat egiten dute esaterakoan ez dituztela delituzko gertaerak edo portaera antisozialak prebenitzen. Hauek gertatu ondorengorako bideratutako neurriak dira: atxiloketak egiteko edo isunak jartzen hasteko eta gertatutakoa grabatzeko hau gertatu ondoren. Polizia da administrazioak bideratzen dituen neurri horiek aktibatzeke arduradunak, baina 18 urte dituen Unaxek erantzun zuen polizia agertzerakoan horrelako kasuetan ikusi izan zuela gauzak okerrera joaten direla, agresibitatea handitzen delako:

“la verdad que siempre he visto algún problema con alguna persona, no he visto ni a la policía ni a un segurata ni nada ayudar, sino a gente de alrededor acercarse a ayudar y... Solucionar el problema entre, pues la gente de a pie, por así decirlo. Nunca... Siempre que he visto policía o seguratas siempre ha habido golpes o gente herida, así que no creo que sirvan para absolutamente nada, la verdad” (Unax, 18 urte, Donostia/Errenteria)

Hala ere, aurkako posizioa daukan 21 urteko Adeik, non poliziaren eskuhartzea ona edota beharrezkoa den, baina hobetzeko marjina badutela: *“Yo creo que sí, porque es como... Yo creo que tendrían que abarcar más zonas, en plan, separados un poco y que vayan... porque al final la policía tiene poder y puede defenderse.” (Adei, 21 urte, Donostia)*

Hala ere, elkarrizketatutako gehienek posizio neutro bat zeukaten, ez zituzten lagungarriak ikusten, baina ezta ez zuten okerrera egiten zutenaren sentsazioa:

“Hombre, pues está claro que no, porque pasan... En plan, sé que no puedes evitar que en una noche alguien haga algo, no puedes evitar que pase todo (...) Creo que lo estoy diciendo mal, pero me entiendes, ¿no? (...) Pero sí que se pueden evitar más” (Goizane, 22 urte, Donostia)

“Si que he visto en ciertas ocasiones que... pues que sí que hacen algo, pero... Normalmente suelen llegar... en las ocasiones que he visto, por ejemplo, sí que han llegado tarde.” (Kattalin, 21 urte, Pasai San Juan)

Kanpaina motei begira bi motatakoei buruz egin ditut galderak: prebentzio-kanpainak eta informazio-kanpainak. Definizio propioa eskatzerakoan kanpainen arteko

aldea egiten dute arazorik gabe. Batetik, prebentzio-kanpaina delituak gerta ez daitezen egiten da eta, bestetik, informazio-kanpaina delitu edo jarduera antisozialei buruzko informazioa emateko eta horien aurrean nola jardun behar den jakiteko egiten dira. Hala ere, beren oroimenean prebentzio-kanpainak bilatzen zituztenean, bizitza osoan zehar eta ez bakarrik azkeneko urteetan, konturatzen ziren prebentzio-kanpaina bezala saldutako guztia, berez, informazio-kanpainen definizioan sartzen zirela, ez prebentziozkoan.

“A: Vale, entonces sí que ves una diferencia entre las campañas informativas y las campañas de prevención, ¿No?”

G: Pues en verdad no mucho, porque te están dando información, en plan, como te está pasando cierta cosa haz cierta cosa.” (Goizane, 22, Donostia)

Horren adibide argiak eman izan dituzte elkarrizketetan, ez bakarrik kontzienteki prebentzio-kanpaina eta informazio-kanpaina ezberdintzean, baizik eta prebentzio-kanpainak gogoratzerako orduan. Adibidez, Goizanek ondorengoa zion prebentzio-kanpainarik gogoratzen zuen galdetzerakoan:

“G: Había uno el de... había uno que salió en la tele que era para la llamada...”

A: ¿Al 016?

G: Si... ¿Es la de maltrato no?

A: Si

G: Si. Me acuerdo de eso. (...) era un piso y estaban como discutiendo el hombre y la mujer, y el hombre le pegaba, y... luego ella se quedaba como llorando, no sé qué, y luego salía como una voz diciendo que llamara al 016.”

Adibide honetan argi ikusten da prebentzioa ez dagoela, argi utzi dugulako, bai lanaren marko teorikoan bai orain dela hainbat paragrafo, delitua edo portaera antisoziala ez gertatzea dela prebentzioa. Kanpaina honetan, berriz, argi ikusten da

delitua jadanik gertatu egin dela eta “konponbide”¹⁶ bat ematen dela. Beste adibide argi bat gizon baten eskutik etortzen da, Ibaiek honelakoa egiten dela dio Oiartzuneko festetan:

“El año pasado estaba el tema de los pinchazos y había, pues las choznas y tal, había puestos en que a la mínima podías pedir ayuda y tal, cundo se enteraban de que había habido un pinchazo paraban el concierto para que estuviera la gente atenta” (Ibai, 23 urte, Errenteria/Oiartzun)

Berriro ere delitua gertatu egin behar da “prebentzio-kanpaina” martxan hasteko, postu horietara laguntza bila joateko delitua gertatu edo gertatuko den susmoa beharrezkoa da, hortaz gertatu baino lehen laguntza lortzea zaila da. Beste alde batetik, kontzertuaren etetea emateko eta jendea adi egoteko, ziztada bat gertatu izan behar zen, berriro ere berandu iristen eta prebentzioaren zatia guztiz galtzen.

Hala eta guztiz ere, elkarrizketa batean benetako Genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpaina bat agertu egin zen, martxan jartzen zena delitua gertatu baino lehen, ez zen ezta delituaren susmoa egon behar, eskaera batekin martxan jartzen zen eta biktimak ez lirateke hainbeste arriskatuko. Neurri hau autobusek egiten dituzten eskaerapeko geldialdiak dira. Geldialdi hauek adin txikiko edonor eta edozein emakume eskatu dezake (gautxori batean joanda, ez eguneko autobusetan) bere geldialdia baina geltoki bat lehenago, autobus gidariak jakiteko non jaitsi nahi duen (beti aurreko atetik ateratzen). Unaxek horrela kontatzen zuen: *“me parece una medida de prevención porque al final lo que está haciendo es que las... algunas personas no tengan que hacer un viaje largo hasta casa en el cual pueden pasarles cosas.”* (Unax, 18 urte, Donostia/Errenteria)

4.1.2. Babes Autonomoa

Egia da ezberdintasuna handiak zeudela nesken eta mutilen arteko erantzunen artean, hala ere, hori aurrerago aztertuko da, momentu honetan babes autonomoko zein neurri diren gehien errepikatu direnak eta horren arrazoia zein izan den aipatuko dut.

Babes autonomoari dagokionez, ez dago genero bateko eta besteko elkarrizketatuen artean berdinak edo oso antzekoak diren erantzunik, nahiz eta genero berean kointzidentzia esanguratsuak egon (aurrerago aztertuko dudana). Hala ere,

¹⁶Konponbidea kakotxen artean idatzita, dei hori egitea biktimaren esku dagoelako eta kasu gehienetan ez da horretarako kapaza.

punturik nabarmenena *babes autonomoko* neurriak ez ezagutzea izan da. Horrekin ez dut esan nahi neurri horiek zeintzuk diren ez dakitenik, baizik eta, neurri horien definizioa emanda ere, ezin erlazionatzea ekintza definizioarekin, informazioa eta ekintza ezin lotuz.

Elkarrizketetako batean, babes autonomoko neurriak zer diren azaldu ondoren, ea baten bat hartzen duen galderari emandako erantzuna ezetz esatea izan da, ezagutzen ez dituela ere, segidan babes autonomoko neurrien definizioan sartzen ziren ekintzak zerrendatu zituen (*“desconozco lo de las medidas autónomas, pero sí que conozco la norma de siempre tratar de estar con tus amigos, tratar de estar en contacto y bueno, al final, si es que se puede estar en contacto claro”* -Kattalin, 21 urte, Pasaia San Juan), bere eguneroko bizitzan edo aisialdiko momentuetan hartzen zituenak, konturatu gabe babes autonomoko neurriak zirenik. Hau seguruenik guztiok egiten dugu, edo gutxienez gizartearen ehuneko altu bat, baina beste arlo batzuetan, adibidez, zorrolapurrekin kontuz izateko kartel bat ikusterakoan eskua eramaten dugunean sakelako mugikorra eta diru-zorroa gorde dugun lekura. Egoera horrekin batek baino gehiago bere burua islatua ikusi izan du, eta hau irakurtzen duen emakume bat baino gehiago ohartuko da gauez etxera bueltatzerakoan entzungailuak ez dituela jartzen, azkarrago ibiltzen dela nahiz eta takoiak eramateagatik oinetan mina sentitu, mezuak bidaltzen dituela (bai idatziak edo audiozkoak) bere ondoan norbait dagoelaren sentsazioa izateko... Aitortuko da aitzakia bidez normalizatu dituen ekintza hauek (adibidez, “horrela etxera lehenago iritsiko nahiz” edo “norbaitekin hizketan ez nahiz aspertzen”) sakonago edo ez hain sakon dagoen eta kontzienteki edo inkontzienteki bizi duen beldur batengatik dela. Honek erakusten du pertsona askok ez dituztela babes neurriak hartzen modu kontziente batean eta babes neurri bezala ez dituztela antzematen, baizik eta haien bizitzan eta honetan egiten dituzten jardueretan integratu dutela, hauek normalizatu.

Horretaz gain, interesgarria da babes autonomoko neurri horiek nondik ikasi egin dituzten ikertzea. Logikak adierazten digu kanpotik datorrela, ez haien ideia pertsonaletik eta, ikusi dugunaren arabera, gobernuak proposatzen dituen kanpainetatik ere etor daitekeela suposa dezakegu. Hala ere, elkarrizketatutako pertsonen testigantzak (jarraian ikusiko dugun moduan) adierazten dute etxean edo oso gertuko zirkuluetan ikasi egin zituztela.

“A ver, no, nadie me ha, en casa... No me han dicho literalmente “tienes que hacer esto en este momento”, pero sí que me han ido hablando sobre que hay a veces en ocasiones hay X peligros y me han enseñado que en esos casos se

puede actuar de X manera o de otra manera pues para que... Haya un poco de ayuda.” (Kattalin, 21 urte, Pasaia San Juan)

“A: Y estas medidas, ¿Dónde las aprendiste?

G: Am... mi ama. Y... no sé, creo que alguna vez he visto alguna cosa en tele, en plan, pelis y así.” (Goizane, 22 urte, Donostia)

“Azkenean gurasoek esan ohi didate beti bakarrikan etxera ez bueltatzeko eta horrela eta gero nik uste seguru sentitzen ez garenean taldean joatean hobeto dela eta hobeto ikusia dagoela, eta guk ere seguruago sentitzian garela.” (Irati, 15 urte, Oiartzun)

“Algunas veces... antes cuando no salía tanto sí que me pasaba que me preguntaba a mi uno sin que hubiese ninguna razón aparente ni nada... pero no tengo nada si no.” (Ibai, 23 urte, Errenteria/Oiartzun)

“Me dijeron los padres principalmente, un poco esa educación de jo avisar cuando llegues a casa, a X hora que me llamen mis padres para ver como estoy... Pero creo que es una medida de control” (Adei, 21 urte, Donostia)

Bost testigantza hauetatik lauk gurasoetatik ikasi egin dituzte neurri hauek, eta bosgarren hori lagunetatik ikasi egin ditu. Gurasoetatik ikasi egin dituztenen artean, batek “kontrol neurri” bat bezala ikusi egiten ditu neurri hauek. Hau bitxia da konturatzen garenean bi pertsona horiek ez dutela babes autonomoko neurriarik aplikatzen, ez bere buruan ez euren lagunengan, baldin eta hauek ez badute eskatzen edo horretarako “arrazoiak” ikusten ez badute. *“con amigas suelo preguntar, a veces, según qué tipo de amiga es porque tengo amigas que han tenido problemas con esas cosas, entonces sí que les pregunto a esas, pero si no pues no” (Ibai, 23 urte, Errenteria/Oiartzun); “Si, o sea, preguntar a ver si habían llegado, o si habían cogido el bus... Muchas veces incluso acompañarlas (...), pero más por verlas mal” (Adei, 21 urte, Donostia)*

4.1.3. Segurtasun Sentsazioa

Segurtasun sentsazioa asko aldatzen zen faktore anitzengatik (lekua eta generoa gehien bat), eta ez zuen beti neuzkan hipotesiekin bat egiten, baina aurreragoko kontu bat da hau. Momentu honetan segurtasun sentsazioari buruzko erantzun orokorrenak eta sentsazio horren (edo faltaren) arrazoiak argituko ditut. Hemen hiru puntu interesgarri daude: kokapen geografikoa, segurtasun-sentsazioa bera eta segurtasun-sentsazio hori sortuko lukeena. Hau jakinda, puntu bakoitza bere aldetik aztertu eta azalduko dut.

Kokapen geografikoaren kontzeptuak ea hiri batean (Donostia erreferentziazat hartuta) edo herri batean (Oarsoaldean daudenak erreferentziazat hartuta) seguruago sentitzeari erreferentzia egiten dio. Hori behar bezala alderatu ahal izateko, Donostiako eta Oarsoaldeako pertsonak hartu nituen, eta nire hasierako hipotesia zen norbera seguruago sentituko zela hazitako tokian. Hala ere, elkarrizketa gehienetan aurkitzen nuen (hazi ziren tokiak alde batera utzita) denek sentitzen zutela segurtasun handiagoa herrietan.

“La verdad es que sales con gente de tu pueblo o que normalmente es de tu entorno y en ese entorno sabes que todo el mundo te va a conocer, sí que se nota un poco más de libertad, de un saber que... O sea, te sientes de alguna manera más seguro que estando en un entorno en el que no todos te pueden conocer, no están... Digamos que es más como grande, más abierto y en ese entorno igual te encuentras un poco más despistado, un poco más a la deriva, por así decirlo y... Noto diferencia en eso.” (Kattalin, 21 urte, Pasaia San Juan)

“Pues estoy más tranquila en Oiartzun (donde sale en verano de fiesta), la verdad, que en Donosti. Yo creo que es porque en Donosti hay más gente, y en Oiartzun como es un pueblo y hay menos gente... Bueno, que Oiartzun es un pueblo grande, pero... pero sí” (Goizane, 22 urte, Donostia)

Nahiz eta nesketako bik segurtasun handiago bati egin erreferentzia, Iratik, 15 urteko neska, beldurrari egiten zion erreferentzia. Honekin pentsatu dezakegu batzuetan herriaren segurtasuna ez dela sentitzen, baizik eta bertatik ateratzerakoan beldurra sentitzen dela:

“(...) beldur gehiago sentitu.. beno, beldurra ez baina intseguritate bat bezala sentitu genuen azkenean ez zelako gure herria eta egia da talde handiagoan ibilginala eta prebentzio gehiago hartuz, ondoan nor genuen eta begiratzen, eta hori Oiartzunen ez genuen hainbesterako hartzen gure herria zelako” (Irati, 15 urte, Oiartzun)

Pentsa dezakegu galderen ildoarengatik bakarrik neskak sentituko luketela horrelako ezberdintasunak, genero indarkeriazko delituetan oinarritzen zen eta elkarrizketa. Hala ere, mutilek zentzu berdinean erantzuten zuten, nahiz eta batzuetan ezberdintasun txiki batzuk ikusi. Adibidez, gizonezko lehen elkarrizketatua horrela erantzuten zuen:

“A: Vale, y dependiendo de por donde salgas de fiesta (...) ¿En cuál de los dos te sentiste más seguro y por qué?”

I: En Oiartzun, en Oiartzun completamente porque en Donosti pues tenía un grupo grande y ya está, pero si no salgo con un grupo grande en Donosti ya no hay un grupo grande y en Oiartzun, aunque no salga con un grupo grande conozco a la gente que sale como si estuviese con ellos.” (Ibai, 23 urte, Errenteria/Oiartzun)

Esan bezala, ezberdintasun txiki batzuk ikusten dira. Gizonezko batek beldur edo intseguritate sentazioa izaten zuen ideologia politikoarengatik: *“Pues... (...) no he notado tanta diferencia porque el ambiente en el que me muevo es parecido, pero a veces sí. Más que nada por temas políticos y demás.” (Unax, 18 urte, Donostia/Errenteria)*

Eta beste batek ez du esaten leku batetik bestera beldur gehiago edo gutxiago sentitzen duenik, baizik eta denbora-konparazioa egiten du, esaten orain dela urte batzuk kaletik lasaia joateko aukera zegoela, baina bere adinagatik (21 urte) ezinezkoa da denbora hori bizi izana, hortaz entzundakoagatik hitz egiten du, ez bere esperientzia pertsonalagatik:

“Pero es una pena porque hace años que, pasaría igual, pero mucho menos, entonces era más común en cualquier pueblo, en un Donosti o lo que sea, que

podieras estar por la calle tranquilamente sin que te pasara nada. Eso si se ha dicho mucho toda la vida, pero ahora es un peligro.” (Adei, 21 urte, Donostia)

Segurtasun-sentsazioaz, nahiz eta zehatzagoa izango naizen aurrerago, orain esan beharra daukat guztiek esaten zutela aplikatutako neurriak (bai gobernuak edo beste entitate batek hartzen dituenak bai bakoitzak bere babes autonomorako hartzen dituztenak) ez zutela segurtasun handiagorik ematen, baizik eta beldur gutxiago sortzen zutela edo segurtasun faltsu bat ematen zutela:

“pero en verdad soy consciente de que por llevar las llaves en la mano o estar hablando por teléfono con alguien o hacer como que estoy hablando por teléfono con alguien pueden pasarme las mismas cosas, es simplemente como algo de seguridad falsa que me doy a mí misma porque no creo que se aplique bien lo de la prevención.” (Goizane, 22 urte, Donostia)

Hirugarren puntuak segurtasun-sentsazioa sortuko lukeenari buruzkoa izango zen. Hemen ez dago errepikatzen den ekintzarik edo punturik, baina denak bat datoz segurtasun-sentsazio hori sortzen saiatzeko jartzen diren neurriak (gobernuak edo beste erakunderen batek jarritakoak) segurtasun-sentsazio hori sortzea lortzen ez dutela esatean. Batek dio segurtasun-sentsazioa zerbait hautemangarri emango diela *“La seguridad al final te la da el... algo tangible, que se pueda ver, que se pueda... Que el saber literalmente físicamente, que estas en un sitio seguro.” (Kattalin, 21, Pasai San Juan)*, beste batzuk, berriz, lagunartean edo familiarartean egoteak ekartzen dio *“Pues cuando estoy con mis amigos o mi familia, pues estoy tranquila.” (Goizane, 22 urte, Donostia)* eta gizonezkoen artean, berriz, jende lasaiarekin egotea *“gente tranquila. No necesito un apersona que me pueda proteger, si no una persona que no le interesen ese tipo de conflictos” (Ibai, 23 urte, Errenteria/Oiartzun)* edo inguruan ikusten duen pertsonen itxura ona izatea *“gente que veas que tiene cara de este es buen tío, no va a haber problema” (Adei, 21 urte, Donostia)*. Ezartzen dituen neurriak baliagarriak diren edo ez pentsa dezakete, hobeto edo okerrago funtzionatzen dutelaren sentsazioa izan dezakete, baina, oro har, ez dute segurtasun-sentsaziorik lortzen horrelako neurriekin.

4.2. Emakumeen Ikuspegia

Nesken informazioa, biktima potentzialak direnez, interesgarria i rudituz zitzaidan hasieratik. Nire kasuan, elkarrizketekin hasi nintzen momentuan, nire esperientziatik

urrundu behar izan nintzen objektiboa izateko, ez pentsatzeko esaten zutena gehiegizko edo gutxiegi zela, bakoitzak bere esperientzia du eta.

Nahiz eta elkarrizketatutako hiru neskek aisialdian eta gaueko planetan ondo sentitu, hirutik bik azaldu dizkidate haien azkenengo irteeratan deseroso edota beldur sentazioa ekarri zizkioten egoerak, horietako batean etxera bueltatzeko egoera suertatu arte. Egoera horietako bat bestea baina larriagoa izan zen, horregatik erantzun oso ezberdinak suertatu ziren (batean festa segitzeko aukera egon zen, baina bestean etxera bueltatu ziren). Lehenengo egoera horrelakoa izan zen: *“Había en algunos momentos que había tíos que me daban un poco de asco, porque se arrimaban mucho, pero no me daba miedo era más bien ‘iug, espacio personal’”* (Goizane, 22 urte, Donostia)

Egoera honetan ikusten dugu beldur sentazioa ez dagoela, baizik eta nazka sentazioa espazio pertsonalaren errespetu faltagatik mutilen eskutik. Hau gau osoan zehar gertatu egin zen tarteka, baina ez ziren lehenago joan etxera nahiz eta hau jasan izan. Beste kasuan, larriagoa izan zena, etxera bueltatu egin ziren gertatutakoarengatik:

“Bueno, mis amigas estaban ya un poco contentas, pero yo tuve suerte, y fue un momento en el que apareció un desconocido y la verdad es que estaba todo el rato molestando bastante, insistiendo bastante y mis amigas no... no estaban como para defenderse ellas solas y al final decidimos irnos.” (Kattalin, 21 urte, Pasai San Juan)

Hemen hainbat gauza ikusi ditzakegu. Nabariena gaua nahi baino lehenago bukatu behar izan zutela gizonezko ezezagun baten gogaipen eta tematzeagatik. Horretaz gain, aipagarria da esaten duenean *“pero yo tuve suerte”*, bere lagunak mozkortuak zeuden, eta bere ustez zorte onekoa zuen bere burua mozkor ez egoteagatik. Hau deigarria da gauez parrandan irtetea eta mozkortzea askotan eskutik helduta doazelako. Beraz, mozkortuta ez egoteagatik eta horrelako jarrerak zerbait txarra gertatu aurretik detektatu ahal izateagatik zorionekoa sentitzeak argi uzten du jazarpen mota hau ohiko jokabide bat dela.

Honek ekartzen du nesken erantzunen artean babes autonomoko neurri gehiago egotea eta guztiak arrazoi antzekoengatik. Babes autonomoko neurrien artean beranduegi ez bueltatzea, beti norbaitekin bueltatzea, iristerakoan abisatzea, deien bidez bueltako bidean kontaktuan egotea eta antzerakoak aurkeztu dira. “Kattalinekin”,

adibidez, lagunekin harremanetan egoteko arauari buruz mintzo zen: *“conozco la norma de siempre tratar de estar con tus amigos, tratar de estar en contacto y bueno, al final, si es que se puede estar en contacto claro, pero... es eso.”* (Kattalin, 21 urte, Pasaia San Juan)

“Goizane” etxera bakarrik ez itzultzen saiatzen dela aipatu zuen, baina bakarrik joatea egokitzen bazaio bestelako estrategia batzuk aktibatzen dituela kontatu zuen:

“Bueno, primero que todo, siempre vuelvo acompañada. Lo de que vuelva sola no es una opción, aunque es verdad que alguna vez ha pasado, y en esos momentos o cuando me quedo sola a casa directamente ya que quedan cinco minutos yendo a casa y pues me quedao sola yendo a casa hago como que hablo por teléfono, luego llevo las llaves en la mano y estoy alerta mirando a todos lados y de todo y no llevo los cascos puestos. Para escuchar si viene algo.”
(Goizane, 22 urte, Donostia)

“Irati” ordutegiari erreferentzia egiten dio, etxera berandu ez joateaz hitz egiten du, baita etxekoekin lotutako neurri batzuk edo, berriro ere, lagunduta joatearen garrantzia:

“(...) azkenean ez naiz oso berandu joaten etxera eta joaten naizenean beti nire gurasoei abisatzen diet eta saiatzen naiz horrelako prebentzioak eta horrela hartzen, badaezpada ezer ez gertatu ez dadin. (...) batzuetan talde txikietan joaten gara etxera segurtasuna bermatzeko, bata besteei etxera lagunduz.” (Irati, 15 urte, Oiartzun)

Neurri hauek betidanik jakin dituzte, ez horrekin jaio izanagatik, baizik eta haien gurasoek beti esan dietelako neurri horiek hartzeko, txikitatik portaera horiek ikusi dituztelako eta ikasi egin dituztelako. Gainera, nahiz eta ziurrenik kontzienteki ez egin, ezberdintasun bat egiten dute lagunaren generoaren arabera: *“Pues a mi amigo la verdad... siempre digo lo de que me digan cuando han llegado a casa siempre lo digo, pero... por ejemplo, a algún amigo hombre no le digo si tienes miedo llámame.”*
(Goizane, 22 urte, Donostia)

Honen arrazoiak baita ere nahiko antzekoak izan dira, beldurratik edo gizartearen egoeratik. Nahiz eta bigarren hau hasieran txantxa moduan esan, bere aurpegia aldatu egin zen barre ez nuenean egin, segundo batzuen ostean hitz egiten segitu zuen gai horri buruz.

“Por la sociedad (se ríe, breve silencio incómodo). A ver, por miedo, porque eh... es una realidad que de noche al estar todo más oscuro y demás, pues no sabes lo que puede pasar... Ya puede pasar... Ya por ser mujer pueden asaltarte eh... con propósitos sexuales, también te pueden asaltar pues por robo, que eso a un hombre también pero probablemente entre comillas somos como el sexo débil según la sociedad, entonces pues siempre estamos como más vulnerables en ese sentido.” (Goizane, 22 urte, Donostia)

Gaueko egoera horietaz gain, interesgarria izan den puntu bat izan da haien egunerokotasunean beldurra sortu diezaieketen egoerak badaudela ere jasotzea. Kattalinek, adibidez, trenean sentitzen duen deserosotasuna deskribatu zuen:

“Pues a veces, si voy sola en el topo, o si me siento... siento que alguien desconocido está detrás mío me suele pasar mucho eh... el querer correr. Pero trato de no correr, para que esa persona o lo que sea pues... no me persiga, y no se dé cuenta de que yo me he alarmado. Intento tranquilizarme y... bajar el ritmo de mis pasos, intento no enfrentarme a esa persona porque me podría hacer algo. (...) me ha pasado en alguna ocasión, pues sí que me alarmo bastante.” (Kattalin, 21 urte, Pasaia San Juan)

“Goizanek” ere antzera mintzo zen baina garraio publikoaz gain kalean ere kokatuta:

“Igual cuando estoy andando por la calle y hay alguien como raro, que está mirando mucho o que está actuando extraño pues... ahí sí que me rayo, pero igual luego no es nada, eh? Pero me rayo, o cuando estoy en el metro o lo que sea... pues lo mismo. Alguien que este como mirando mucho o así, me siento incomoda.” (Goizane, 22 urte, Donostia)

Eta "Irati" ere oso antzekoa den egoera deskribatu zuen: "agian goizetan ikastolara joaterakoan iluna badago agian pentsa dezaket pertsona bat atzetik daukadala edo horrelakoetan" (Irati, 15 urte, Oiartzun)

Ikusi dezakegunez, hiru kasuetan haien atzetik norbait egotea izaten da, berdin du egoera edo bidea, ezaguna den edo ez, baina haien beldurra hor egongo da, nahiz eta pertsona bat benetan ez egon.

Beldur hori gehiagora joaten dira gauez edo aisialdian. Gobernuak ematen dizkien babes neurriak ez dizkiete beldur hori leuntzen edo segurtasuna bermatzen. Haien babes autonomoko neurriak segurtasun faltsu bat sortzen dute, baina ez benetako segurtasun bat (ondorio honen azalpenak aurrerago ikuziko ditugu).

4.3. Gizonen Ikuskerak

Mutilen kasuan, hiruetatik bakar batek esan zidan deseroso sentitu zenik aisialdiko edo gaueko egoera batean, ez izanda ezta ere kanpoaldeko faktore batengatik, baizik eta bere taldean gertatutako zerbaitengatik, bere lagunek edanda zeudelako eta bere kargu gelditzen zirelako.

Hemen aldiz ez ditut ia babes neurririk lortu, eta lortutakoak gehienetan ez dira haientzat, baizik eta haien lagunentzat, askotan neskak diren lagunak (adibidez, etxera joaterakoan beraiekin joatea edo mezuak bidaltzen dietenean erantzutea). Haiek bere buruan aplikatzen zituzten neurriak lagunei edo etxean abisatzea jadanik iritsi egin zirela ziren, eta gehienetan ez nahiagatik, baizik eta gurasoek edo lagunak eskatu egin dietelako, eta askotan ahaztu egiten dute.

Kasu honetan, egunerokotasunean beldurra sortzen dieten gauzak hiru kasuetan baita berdina izan da: lapurtuak izatea. Kasu batean zuela gutxiko esperientzia batengatik, beste batean poligono batean lan egiten zuelako eta azkenekoan beste zeozer okurritzen ez zitzaiolako.

Segurtasun hau sentitzearen arrazoiak, esan dutenez, ez dute aurkitzen. Jendea egoteak segurtasuna ematen die, baina bakarrik daudenean sentsazio hori mantentzen dute ere, hortaz ez du ematen arrazoi horrek azaltzen duenik mutilen segurtasun sentsazioa. Izan ere, ulertzen dute bere lagun neskak beldurra izatea, eta laguntzen saiatzen dira:

"no, en mi caso no, como mucho... pues según qué tipo de amigos salgo, que en este caso sí, pues les digo cuando llego a casa o cuando estoy cerca porque

bueno, pues me preguntan, pero si no, no diría nada. (...) con amigos no suelo, porque a veces... pero con amigas suelo preguntar, a veces, según qué tipo de amiga es porque tengo amigas que han tenido problemas con esas cosas, entonces sí que les pregunto a esas, pero si no pues no. Pero si tienen algún antecedente, no tiene por qué pasarles algo, pero si tienen miedo de algo, pues suelo preguntar.” (Ibai, 23 urte, Errenteria/Oiartzun)

“Sí, alguna vez he acompañado a amigas al portal, o he mandado mensajes a mis padres para que se queden tranquilos ellos más que nada de qué pues he llegado a casa. (...) Eso sí, o sea, sí que muchas veces ya no es que yo haya... En plan, no es que me haya salido a mí de acompañar a una persona solo por acompañarla, sino porque he visto que está como asustada y acompañarla hasta casa y se quedan más tranquilas y así.” (Unax, 18 urte, Donostia/Errenteria)

Laguntza hau; kasu askotan ez da berez egiten duten zerbait, baizik eta haien lagunaren sentimenduak ikusterakoan nabarmentzen dutelako zerbait gaizki doalako.

Adeieri egindako elkarrizketan interesgarria izan zen hitz bat agertu zen: *machirulo*. “*me acuerdo que había actitudes de chavales que eran rollo en plan machirulo*” (Adei, 21 urte, Donostia)

Hitza interesgarria iruditu zitzaidan, ez bakarrik hitza beragatik, baizik eta eman zuen definizioagatik. Teorian hitz hau bere zentzua dauka, neologismo honek bi hitzen batutzeaz dator, lehenengoa “macho” latinetik etorria (*musculus*) eta hau bere baitan grekeratik (*andros*), gizonezkoa seinalatzen duena eta “chulo”, italieratik eratorria (*ciullo*, *fanciullo* hitzarekin asoziatzen dena). Hitz hauen elkartzea gizon batek azaltzen duen emakumearen gaineko nagusitasun-, harrokeria- edo degradazio-jarrera markatzeko tresna bihurtzen da (Veschi, 2018). Adeiek emandako definizioa, nahiz eta kaleko hitzetan, nahiko antzekoa izan zen:

“Pues los típicos tíos que se creen mejores que los demás, que van un poco chulitos, te dicen bua, esa tía esta to’ buena, te la follabas, ¿eh? (...) O comentarios muy tema pues... temas machistas de bua mira que buena esa” (Adei, 21 urte, Donostia)

Zera, interesgarriena da bere diskurtsoa aurrera doan heinean nola esaten du horrelako portaera, *machirulo* hitzez definitzen duen gizonezkoek egindako ekintza hauek, errotik kendu daitezkeela: *“tampoco se da un control de eso, la ley no está marcando de erradicar, porque eso se puede erradicar”* (Adei, 21 urte, Donostia)

Baina gero, *machirulo* hitza lehenengo aldiz definitzen duenean, ez du bakarrik esaten portaera hauek beti egongo direla, baizik eta gizonezko guztietan egongo direla, bere buruarekin kontraesanetan erortzen: *“siempre va a haber ese punto un poco fóbico, machista en todos los hombres principalmente, porque es ese perfil un poco machirulo”* (Adei, 21 urte, Donostia)

Honekin esan nahi dudana zera da, Adeiek lehenago esan du babes autonomoko neurriak bere buruan aplikatzen direnean kontrol gisa sentitzen dituela *“Pero creo que es una medida de control”* (Adei, 21 urte, Donostia) eta bere lagunetan ez dituela babes autonomoko neurri hauek aplikatzen ez baditu gaizki ikusten *“incluso acompañarlas (...), pero más por verlas mal”* (Adei, 21 urte, Donostia), baina gero, bere hitzekin, arriskutsuak diren portaera hauek mantenduko direla dio.

4.4. Gizon eta Emakumeen Arteko Desberdintasunak

Hainbat puntu izan dira interesgarriak elkarrizketetan, elkarrizketa egiterako momentuan edo hauek transkribatzerakoan deigarriak iruditu ez zitzaizanak, baina analisia egiterakoan, interesgarriak irudituz, haientzat atal berezi bat behar zutelaren sententzia izan nuen. Puntu hauek hasieran ez nituen lotu elkarrizketetan aineratu ziren komentarioak izan zirelako, ez elkarrizketetan zegoen eskeletoaren puntu bat, horregatik analisi sakonean agertu ziren.

Lehenengo puntua hitzen erabileran oinarritzen da. Kattalin elkarrizketatzerakoan momentu batean ondorengoa esaten du: *“nosotras al salir ya nos fuimos al taxi y pudimos escapar de la situación fácilmente.”* (Kattalin, 21 urte, Pasaia San Juan). Berriz, Ibaien elkarrizketan egoera batetik joan beharraren aurrean erabiltzen duen hitza beste bat da, haren elkarrizketan hau esaten du eta: *“en el momento de encontrarlo prefiero no proceder con ese tipo de cosas e irme”* (Ibai, 23 urte, Errenteria/Oiartzun). Zera, gauza gutxi iruditu arren, erabiltzen diren hitzak garrantzi handia daukate, hauek jasotako sententziarekin edo sentitutako sentimenduarekin zerikusia baitute. Honen adibide gisa Loftus eta Palmerrek 1974ean egindako esperimentuan ikusi dezakegu, non auto istripuaren deskripzioan hitz batzuk edo beste batzuk erabiltzerakoan istripuaren larritasuna aldatzen zen. Gure kasuan, leku batetik joaterakoan *joan* (irme) hitza erabiltzea edo *ihes egin* (escapar) hitzak erabiltzea

garrantzitsua izango da, egoera horretan sentitutako larritasunaren pista garrantzitsu bat izango da eta.

Beste alde batetik, entzungailuak daude. Bi elkarrizketetan aipatzen dira gailu elektronikoen hauek, egoera berdinean egonda baina ekintza oso ezberdinak deskribatzen. Entzuten dugun lehen aldia Goizaneren testigantzan da: *“pues me quedo sola yendo a casa hago como que hablo por teléfono, luego llevo las llaves en la mano y estoy alerta mirando a todos lados y de todo y no llevo los cascos puestos.”* (Goizane, 22 urte, Donostia)

Gailu hauek berriro aipatzen dira Ibairen testigantzan: *“voy a mi bola con los cascos y tal, y no... no suelo tener ningún tipo de prevención como tal”* (Ibai, 23 urte, Errenteria/Oiartzun). Bi testigantza hauek aurkakoak dira, gizonezkoaren kasuan entzungailuak erabiltzen ditu etxerako bueltan berdin zaiolako eta “bere bolara joateko” erabiltzen dituela; emakumearen kasuan, berriz, ez ditu entzungailuak erabiltzen erne egoteko etxerako bueltan. Honek erakusten du nahiz eta gizonezkoek bide luzeago bat egin beharra (Goizanek Donostiatik atera zen eta bere etxea Donostian zuen eta Ibaiek Donostiatik atera zen eta bere etxea Oiartzunen zuen), objektiboki babes autonomoko neurri gutxiago hartuko dituela.

Beste gai batekin segituz, jende ezezaguna aurkitzen dugu. Lau testigantzetan egiten da erreferentzia ezezagunei, horietako batean modu “txar” edo konfiantza faltako modu batean eta besteetan aurkako zentzuan. Lehenengo kasua Kattalinena da:

“iba con algunos amigos y conocidos que eran relativos de mis amigos. Con lo cual, pues la verdad que sí que nos cuidamos bastante, pero... No es lo que pudieses esperar de gente con la que igual estas en contacto todos los días” (Kattalin, 21 urte, Pasaia San Juan)

Ondorengo hiru kasuak, berriz, hiru mutilen kasuak dira: *“Bastante bien, o sea, era un grupo de amigos bastante grande, entonces por temas de seguridad no tenía problema porque al ser un grupo grande pues te sientes más acogido aunque no los conozcas a todos”* (Ibai, 23 urte, Errenteria/Oiartzun); *“Porque si hay un grupo de gente o alguien (...) gente que veas que tiene cara de este es buen tío, no va a haber problema”* (Adei, 21 urte, Donostia); *“salimos por ikatz, que es Juan de Bilbao, creo que se llama la calle. Y pues eso, ahí me siento seguro, porque todo el mundo ahí es como muy... No sé, coloquialmente, muy piña, no sé”* (Unax, 18 urte, Donostia/Errenteria)

Testigantza hauetan zer ikusten dugu? Hasteko, Kattalinen kasuan ezagunak izatea lagunak izan beharrean jadanik ez dio hainbeste konfiantza edo lasaitasuna sortzen, nahiz eta bere lagunak lagunak izan, beharrezkoa du lasai egoteko lagunak izatea. Aurkako aldean gizonezkoak ditugu: Ibairen kasuan (Kattalinen egoera berdina izanda, lagunak lagunak agertzea) ez zuen bakarrik segurtasuna sentitu, baizik eta babestua sentitu izan zen pertsona horiengatik, nahiz eta ez ezagutu; Adeiren kasuan zeozer haratago doa eta jadanik ez du behar lagunak lagunak izatea, baizik eta *“que tiene cara de este es buen tío”* nahikoa da segurtasuna sentitzeko, arazoak ez direla egongo sentitzen baitu horrelako jendea ikusten duenean; azkenik Unaxen kasua daukagu, non berdina dio lagunak lagunak izatea edo itxura ona ematea, nahiko zaio *Ikatzetik* egoten den jendea izatea, horiekin “piña” sentimendua lortzen duelako eta horrek segurtasuna ematen dio.

Gai hauei buruz ea hitz egiten dela edo erreflexionatzen dela galdetzerakoan baita aurkako ideiak ikusten dira. Elkarrizketatutako bi neskek ez dute sentazio hori jasotzen, gaiari buruz gutxiegi hitz egiten dela ere iruditzen zaie: *“Normalmente no, normalmente es un tema que... entre muchos jóvenes, entre muchas personas adultas, es un tema que no se llega a hablar, porque igual no tiene tanto interés como el mundial de fútbol”* (Kattalin, 21 urte, Pasaia San Juan)

“A: vale, es porque en una entrevista anterior, dijo una frase que me llamó mucho la atención, que decía es un tema importante pero no se le da tanta importancia como la que se le puede dar al mundial de fútbol, ¿Tú tienes esa sensación también?”

G. Pues sí, la verdad.” (Goizane, 22 urte, Donostia)

Bi testigantza hauetan ikusten dugu bigarren maila batean utzita bezala sentitzen dutela gai hauek, bai gazteen artean bai helduen artean. Beste alde batetik, Ibaien testigantza aurkitzen dugu:

“A día de hoy sí, pero bueno, que ya se habla bastante, no es una cosa que todo el mundo ignore. (...) en un día normal, no se suele hablar de estos temas (...) un día en el que vamos a salir de fiesta, sí que se tienen en cuenta esas cosas”
(Ibai, 23 urte, Errenteria/Oiartzun)

Testigantza honetan aurkakoa jasotzen dugu, sentitzen duela gaiari buruz nahiko edota gehiegi hitz egiten dela. Hala ere, badio egun normal batean ez dela hitz egingo lukeen gai bat, baizik eta festan atera beharko zela horrelako gai bat kontuan izateko. Izan ere, horrelako gaiei buruz hausnarketak egiteko leku ziurak sortzen ari dira eskoletan, edo hori ulertu dezakegu Iratiren testigantzatik: *“nik uste gizartean geroz eta garrantzi gehiago ematen zaiola, genero indarkeria eta horrelako gaiak gutxitu nahi direlako. Guri, adibidez, ikastolan tailerrak eskaintzen dizkigute” (Iraiti, 15 urte, Oiartzun).*

Leku ziur hauek eskolatan sortzea lagungarria izango da etorkizunerako, bai neskek ziurrago sentituko direlako haien ingurugiroarekin bai mutilek haien ekintzak baloratzeko eta jakiteko ea egokiak diren edo ez.

Dena den, gaur egun hori ezartzen hasi da 15 urtekoekin, baina elkarrizketatutako beste guztiak adin nagusikoak dira eta ez dute hau jaso. Horregatik logikak pentsarazten gaitu emakumezkoak (biktima potentzialak direnak) zigor gogorragoak bilatuko zituztela delitu hauekiko eta gizonezkoak (biktimarioaren ikuspuntutik gertuago aurkitzen direnak) zigor ahulagoak. Testigantzek, berriz, aurkakoa erakusten dute: *“no puedes evitar que pase todo, por mucho que castigues... habrá otras formas...” (Goizane, 22 urte, Donostia)*

“si tu estas solo lanzando ese mensaje y no erradicando eso con mano dura de la ley, no se está haciendo mucho (...) Y yo creo que lo demás se resolvería mucho más fácil, pero dando mano dura, porque la mano dura... (...) Habría que poner más mano dura, y en España en general pasa eso con todo.” (Adei, 21 urte, Donostia)

Honekin ikusi dezakegu aurkakoa gertatzen dela. Ezin da orokorrean esan pertsona guztientzat, baina elkarrizketa hauetatik atera izan dudanarekin gizonezkoak punitiboagoak direla ikusten da kasu hauetan emakumezkoak baino. Hau arrazoi askorengatik izan daiteke, baina gizonezkoaren kasu honetan seguraski ondorengoarengatik izango da: *“me da pena porque se está dando una imagen de muchos hombres que somos que parece que somos una mierda” (Adei).*

Idea hau beste azpiatal batean jarrita neukan hasieran, baina beste elkarrizketa batean esandako komentario batekin lotu nuenean, hemen leku hobe bat zeukala pentsatu egin nuen. Ikusi dugun moduan, genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpainak funtzionatzen ez dutelaren sententzia zutela esan zuten elkarrizketatutako

batek baino gehiago, edo gutxienez zeozer gehiago behar zutela genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpaina hauek:

*“yo creo que **debería haber algo más**. No solo campañas en las que se hable si no en las que se enseñe, no solo teórico, debería ser práctico también. (...) porque en una charla puedes asimilar los conceptos, pero **no los puedes poner en práctica** porque nunca has estado ante una situación en la que te comprometas a ... a estar en práctica y a hacer uso de lo que se te ha enseñado, incluso lo podrías olvidar.” (Kattalin, 21 urte, Pasaia San Juan)*

*“Porque que me pongan una patrulla en el Boulevard, que se queda ahí (...), que es donde hay menos gente, **pues no hace nada**. Si que es verdad que corta el rollo si estas en Ikatx o lo que sea ver a la Ertzaintza, pero... que patrullen más y anden un poco más alrededor no creo que venga mal.” (Goizane, 22 urte, Donostia)*

*“nire ustez hori luzarora begiratu beharko zela, **zeren motzean...** baina atzera begiratzuz esan beharko nuen baietz, geroz eta gutxiago daudelako, hala ere badaude, baina nik uste dut gutxitu egin direla urteetan zehar. (...) batzuetan adibidez polizia jartzea eta gehiegi iruditzen zait, asko gerturatzan direlako eta agian pertsona **hori agobiatua** sentitu daitekeelako.” (Irati, 15 urte, Oiartzun)*

*“yo creo que la gente hacia un **mal uso** entonces **se inutilizaba** un poco, pero eso es algo que no se puede controlar. Pero sí que las pegatinas me parecían un poco **inútiles**, (...) las veía más fácil usarlas mal que a bien. Incluso usándolas bien me parece una chorrada, porque era que una persona tuviera una pegatina de erasotzailea, es como, no sé si se la han puesto de broma, a posta, y si es de verdad no sé qué quieres que haga con eso, porque no se si crérmelo o no, porque es una medida que no me parecía muy lógica, aunque el silbato si porque con el ruido por lo menos la gente puede darse cuenta y tal,*

pero que también se puede usar mal porque puedes hacer ruido por hacer ruido sin más.” (Ibai, 23 urte, Errenteria/Oiartzun)

“Yo creo que sí, porque es como... Yo creo que tendrían que abarcar más zonas, en plan, separados un poco y que vayan... porque al final la policía tiene poder y puede defenderse.” (Adei, 21 urte, Donostia)

*“la verdad que siempre he visto algún problema con alguna persona, no he visto ni a la policía ni a un segurata ni nada ayudar, sino a gente de alrededor acercarse a ayudar (...) así que **no creo que sirvan para absolutamente nada, la verdad**” (Unax, 18 urte, Donostia/Errenteria)*

Honekin ikusten dugu elkarrizketatutako guztiek bat egiten dutela beharrezkoa dela hobekuntza bat neurri hauetan, ez baitute ondo funtzionatzen. Baina zergatik ez? Kattalinek teoria oso zuzen bat dauka:

“Es que le problema de ponerlo en practicidad es el miedo en parte a que las personas se delaten y poder llegar a generar otro problema, otra dificultad y en ese caso yo creo que... a ver, no se me ocurre ninguna idea concreta que pueda llegar a ayudar del todo a que se solucione ese problema, porque, por ejemplo, tanto en las escuelas como cuando sales de fiesta el acoso es el mismo, entonces...” (Kattalin, 21 urte, Pasai San Juan)

Emakume honen ideia zera da, eskoletan edo jendeari bideratutako kanpainak ez dute eragin handia izaten pertsonak beldur direlako bere benetako izaera erakusteko. Honen adibidea izango litzateke lagunaren artean egonda norbaitek komentario fobiko bat esango balu eta besteak, zerbait esan beharrean komentario hori mozteko edo ikusarazteko gaizki dagoela, barre egiten diotenean edo isilik gelditzea. Pentsatu leike hau ez dela gertatzen, baina Adeiek aurkakoa erakusten gaitu nahiz eta ez egin kontzienteki: *“te dicen bua, esa tía esta to’ buena, te la follabas, ¿eh? Yo muchas veces he sufrido esa situación, me lo han dicho a mí y yo en plan ja, ja... si, si...” (Adei, 21 urte, Donostia)*

Testigantza honek erakusten du askotan, taldearen presioagatik edo bakarrik gelditzearen beldurragatik, okerrak diren jokaerak laguntzen direla nahiz eta ideologia horren partaide ez izan. Ideologiaren parte ez dela jakitea erraza da, bere burua horrelako egoera sufritu egin duela diolako, eta aurrerago ondorengoa dio: *“aún queda ese tipo de gente y son los que principalmente tiran un poco a hacer estos actos tan despreciables”* (Adej, 21 urte, Donostia).

Honek ondorengo galderak bideratu zituen eta galdetu nien zer kanpaina mota bururatzen zitzaien hori saihesteko eta jendea benetan eskuhartze bat izateko aukera izango zituen momentuetan edota genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpaina moduan funtzionatuko zuen kanpaina bat sortzea. Ideia asko atera egin ziren, horietako batzuk oso interesgarriak izanda (aurrerago aurkeztuko ditudanak), baina orokorrean ondorengoa ikusi nuen: Kattalinen eskutik eskolatan edo talde txikietan egiten diren genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpainetan simulazioak egitea proposatzen du ez izateko entzun beharreko monologo bat, praktikotasun bat izan dezaten: *“No solo campañas en las que se hable si no en las que se enseñe, no solo teórico, debería ser práctico también. (...) tanto en las escuelas como cuando sales de fiesta el acoso es el mismo”* (Kattalin, 21 urte, Pasaia San Juan)

Beste alde batetik, alderantzizko egoerak simulatzeko ideiak sortu egin dira Goizaneren eskutik: *“Pues hacer una campaña de choque que vean como es ser una mujer, ponerse en su papel, vaya.”* (Goizane, 22 urte, Donostia)

Elkarrizketatutako gazteenak emakumeen aldeko txosnak jartzearen alde zegoen, ez edariak eta janaria saltzen duen txosna bat bezala ikusiz, baizik eta txosna independente bat bezala: *“emakumeen aldeko txosna horiek ondo iruditzen zaizkit azkenean segurtasun bat bermatzen digutelako, eta festetan adibidez horrelako gehiago jarriko nituzke guri laguntzeko, ezer ez saldu gabe.”* (Irati, 15 urte, Oiartzun)

Gizonezkoarekiko lehenengo elkarrizketan lortzen duguna kanpainak funtzionatzeko oso ezberdina da, ez du ideia berririk ematen, baizik eta jadanik dauden ideiak behin eta berriz errepikatzea proposatzen du, jendeak jakin dezan bertan daudela: *“no era que te dijeran mira tienes esto aquí si no que cada dos por tres te estaban recordando que tenías eso”* (Ibai, 23 urte, Errenteria/Oiartzun)

Bigarreanean bakarrik orain dauden neurriak gogortasunez aplikatzea eta ez egotea malgutasunik: *“debería de hacerse es coger y meter mano dura, como he dicho hace un segundo”* (Adej, 21 urte, Donostia)

Gizonezkoen azkenengo elkarrizketatua ez zeukan ideiarik horrelako kanpainak epe motzean egiteko, baina bai epe luzera: *“Calles bastante luminosas y... bastante anchas. No sé, qué eso a mí me da seguridad, no son zulos.”* (Unax, 18 urte, Donostia/Errenteria)

4.5. Adituen Ikuspegia

Elkarrizketa hau egiterakoan besteen analisisa egina neukanez, jadanik lortutako datuak erabili nituen elkarrizketaren gidioiaz gain, hortaz lortutako informazioa askoz gehiago izan zen besteekin konparatuz (bakoitza bere baitan begiratuz, ez seirak batera pentsatuz), horregatik pentsatu nuen bere atala izan behar zuela nahiz eta batzuetan beste elkarrizketa batzuei egin erreferentzia.

Deigarria iruditu zitzaidan lehenengo gauza prebentzioa non aplikatzen duten izan zen. Popularki entzuten da prebentzioa delitu hauentzako (eta gehientzako) hezkuntzan jarri behar dela, gazteenak hezterako orduan. Hala ere, horrek ez du inora eramaten, nahiz eta hori esan gehienek ez baitute haien etxeetan aplikatzen eta, askotan, eskoletan ez dakite ezta zer egin: *“horrelako egoerak dira super zailak kudeatzeko, zeren o sea, zu bakarrik ezin duzu, laguntza eskatzen duzu eta askotan ikusten duzu irakasleak ez dutela erantzuten, askotan ez dakitelako ezta zer egin daitekeen”* (Iraide, berdintasun langilea). Horregatik, haiek eramaten dituzten genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpainak ez daude bakarrik biktimetara bideratuta, baizik eta gurasoei eta irakasleei baita ere: *“lan eremuan egiten duguna da, alde batetik prebentzioa; hau da, ikastetxetan batez ere, ikasle, guraso eta irakasle eta profesional ezberdinekin”* (Iraide, berdintasun langilea).

Prebentzio hau ez dute bakarrik hezkuntzaren instituzioetan egiten, Lahia Elkarteak, nahiz eta fisikoki bulegorik ez izan, beste elkarte askoren lokaletan eskaintzen dituzte haien zerbitzuak: *“orduan Donostin daukagun zerbitzu bat emakumeen etxean, beste bat Abadiñon lokal batean, beste... Pasaian ere beste bat, o sea, espazio ezberdinetan biltzen gara, eta espazioaren arabera jasotzen ditugun kontsultak”* (Iraide, berdintasun langilea). Hau garrantzitsua da ikerketa honetarako faktore geografikoa aztertu egin dudalako beste elkarrizketetan, elkarrizketatuak Donostiakoak edo Oarsoaldeakoak izanda hainbat galderen erantzunetan eragina izaten zuelako, hortaz haien zerbitzu batzuk Donostian eskaintzea eta beste batzuk Oarsoaldean (Pasaiakoa) lagungarria izaten da konparaketa hauekin segitzeko. Galdetzerakoan ea ezberdintasunak ikusten zituen iritsitako nesken arazoetan edo kezketan leku batean edo bestean, bere erantzuna argia izan zen: *“nik uste dut ezberdina dela espazioak ere*

egiten duelako. Adibidez, Pasaian etortzen dira gazteagoak (...) eta erlazioaz kanpoko arazoekin (...), Donostian bikotearen barneko kezkak nagusitzen dira” (Iraide, berdintasun langilea).

Hori dela eta leku bakoitzean eskaintzen dituzten zerbitzuak aldaketa batzuk izaten dituzte, bertara joaten diren pertsonen arabekoak egiten dituzte eta. Donostian, adibidez, *Neska Gazteentzako Jabekuntza Taldea* daukate, non edozein indarkeria sufritu duten neska gazteak (hamabost eta hogeit hamar urte tartekoak gehien bat) joateko aukera dute jabekuntza eta haien enpoderamendu propioan lagunduko dizkieten neurriak hartzen ikasteko, baita tailer ezberdinetan neurri hauek praktikan jarri ahal izateko.

“gaiarekin lotuta egongo litzateke neska gazteentzako jabekuntza taldea deitzen dioguna, izen hori darama baina azken finean da indarkeria modu ezberdinetan pairatu duten neskentzako jabekuntza talde bat. Eta bueno, ba bertan urtearen arabera eta taldearen arabera joaten gara programa egokitzen, azkenean beraien beharretara egokitzen gara” (Iraide, berdintasun langilea)

Zerbitzu horrek eskaintzen duenen gauzen artean babes autonomoko neurrien erakusketa edo sorketa berriak bilatzea da. Nahiz eta neurri asko orokorrak izan eta emakume guztiak hartu izan dituzten beraien bizitzan, pertsona bakoitza ezberdina da eta baita ere haren egoera, sentimenduak eta sentsazioak, horregatik orokorrak diren neurriaz aparte beste neurri batzuk sortzen edo eskaintzan saiatzen dira eskakizuna egiten duen emakumearen arabera:

“kasuaren arabera oso ezberdinak dira, azkenean ikusten dugu egoera horietan zer egin daitekeen beraiak ondo ateratzeko egoeratik, ez? (...) babes eremu bat sortu zuen artean... azkenean, kasuen arabera ezberdina izango da, , kasuen arabera ezberdina izango da baina... pues hori, alde batetik.. badaude estrategia pila bat” (Iraide, berdintasun langilea)

Galdetzerakoan orain dela gutxiko kasu batean zein nolako neurri pertsonalizatua proposatu egin ditu segundo batzuek pentsatu behar izan du gaizki ulertzerik ez egoteko eta azalpen bakar batean ideia osoa sintetizatzeko:

“adibidez kaletik zoaz, edifizio pila bat daude, pues agian korrika ibili beharrean ba gelditzen baldinba zara eta esaten baduzu eh, Mikel, hemen nago, bale? Jaitsi eta gelditzen baldinba zara hor, seguraski zure atzetik doana begiratuko du gora, ikusiko ditu etxebizitza pila bat, ez du jakingo nora begiratu duzun eta pentsatuko du Mikel bat jeitsiko dala momenturen batean” (Iraide, berdintasun langilea)

Idea hau pertsonalizatua dago, ez bakarrik pertsonarako, baita egoera konkretu baterako. Pertsonaren partetik, teknika hau oso azkarra ez den emakume batentzako izango da, edo lesio edo egoera konkretu batengatik azkar korri egin ezin duen emakume batentzako. Egoeraren aldetik, berriz, emakumearen atzetik norbait dagoenean aplikatzeko izango litzateke, berari segika dagoen horrek ondotik pasatuko delako, baina aurrera segituko du norbait gehiago agertuko delaren pentsamendua izango duelako. Horrekin arrisku egoera pasatzeko aukera egongo da, nahiz eta ez egon funtzionatuko duen estrategia bat haren ehuneko ehunean edo egoera guztietan.

Neurri edo estrategia hauek, hala ere, ez ditu bakarrik bere lanagatik aplikatzen, bai bere buruan bai bere lagunetan aplikatu behar izan ditu aldi batean baino gehiagotan. Arriskua ikusten du ez bakarrik kalean, baizik eta etxebizitzan baita, eta une horretan elkarriketa egiten aritzea neurri horiei esker zela pentsatzen zuen:

“nire bizitza pertsonalean bai, klaro, es que azkenean emakume bezela... esan behar nuen kalera ateratzen zaren momentuan, baina etxe barruan gerta leikegu gauza txar... Hori, emakume izateagatik denoi gertatzen zaizkigu gauzak, eta hemen baldin banago da erabili egin ditudalako estrategiak eta baliagarriak izan direlako” (Iraide, berdintasun langilea)

Testigantza hau entzuteagatik hiru puntu ikusi nituen deigarri: lehenengoa segurtasuna etxean ez zegoela eta, bigarrena, esperientzia propiotik irakasten zituela horrelako neurriak hartzera. Lehenengoa ez da sentsazio subjektibo bat, objektiboki egia den zerbait ere bada, emakumeen aurkako sexu-eraso gehienak (gertatutako guztien %80a) biktimarekin aldeztatik aurretik nolabaiteko lotura edo harremana zuten pertsonengandik eratorriak ziren. Erasoren %60 baino gehiago etxebizitzan gertatzen ziren eta bakarrik %13,5ean erabiltzen ziren armak biktimak gutxitzeko eta gehienetan (%90ean) ez zen muturreko indarra erabili (SEXVIOL, 2021). Honekin ikusten da delitu hauek, nahiz eta kalean ezezagunen esku gertatzen direlaren

oihartzuna egin askotan (*agenda settingaren* eta *framingaren* ondorioz), ehuneko handiena ezagututako norbaiten esku eta etxebizitzan gertatzen direla; hala ere, beste elkarriketetan ikusi egin dugu emakumeen beldurra hiru kasuetan kaletik joaterakoan ezezagun bat haien atzetik ibiltzea zen. Hau dela eta galdetu beharra neukan: zein zen errealitatea ikusten duen emakume baten egunerokotasunaren beldur bat?

“nahiko seguru... sentitzen naizela orokorr... es que iruditzen zait orokorrean daukagula segurtasun sentsazio bai... bueno, ez dakit. (...) es que pentsatzen ari nintzen nesketan ere, ez? Como ba, aquí nunca pasa nada, nunca pasa nada pero me vienes contando que te ha pasado o que te han hecho ez dakit zer. (...) nik uste dut beldur gehiago izango nukeela agian harremanekin lotuta, iruditzen zait askoz bulnerableago bihurtzen garela bikote baten barruan sartzen garenean kaletik goazenean edo beste egoeretan baino, horrek igual beldur gehio ematen dit.” (Iraide, berdintasun langilea)

Ikusten dugu orduan bere beldurra logikoagoa dela objektiboki gertatzen denarekin konparatuz eta ez duela, beste emakume elkarriketatuekin konparatuz, bere beldur subjektiboetan erortzen, *agenda settingaren* eta *framingaren* ondorioak murriztu egiten direla errealitatearekin kontaktuan lan egiten duelako.

Bigarren puntua esperientzia propioetik irakasten zituela horrelako neurriak hartzea zen, baina azkenean berak bere buru propioan sortzea horrelako neurriak baliabide estrarik gabe sortuko lituzke elkarriketatutako nesken ideia antzekoak, gorago aipatu dugun estrategia imajinatzeko sormen handi bat edo baliabide gehiago behar zirela pentsatu izan nuen, eta horregatik jakin nahi nuen nondik ikasi du horrelako neurriak hartzen.

“Egin ditut mila ikastaro, hemen emakumeen etxean apuntatu nahiz hiru aldiz autodefentsa feministako ikastaroetara, lehen bazeuden batzuk zirenak... izan beharrean intentsibo asteburu bat, gehienetan egiten diren bezela, bazeuden batzuk bazirenak ostiralero, ematen zuen aukera konpartitzeko pertsona ezberdinek izandako esperientziak eta esperientzia hauetatik nola atera garen, ez? Nola aurre egin diegun egoera hauei, eta jo, da super lagungarria entzutea

beste emakumeentzat lagungarriak izan diren estrategiak. Eta gero ba libururen bat irakurri dut, beste ikastaro...” (Iraide, berdintasun langilea)

Pentsatu nuen bezala, ideia hauek ez ziren hutsetik sortu, ikastaroak, liburuak eta beste emakumeekin izandako kontaktu eta hausnarketetatik ateratakoak ziren, bata besteari kontatzen dioenean eta bigarren horrek bere ideia propioak jarriz hobetzen duenean, norbaiten ikerketan sortutako ideiak zabaltzea liburu baten bidez edo bi gauza horiek egiterakoan sortutako jakinduria ikastaro baten bidez hedatzean. Ideia guzti hauekin bere lanarekin aurrera segitzeko laguntza lortzen zuen, eta beste elkarrizketetan komentatutako hainbat gauza (normaltzat hartu nituenak elkarrizketa egiterakoan baina berarekin hitz egiterakoan beste modu batean ikusi nituenak) argitu zizkidan: Egia esanda, ez nizkion buelta gehiegi eman Goizanek komentatu zuen genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpainari, emakume heldu bat tratu txarrak jaso izan zituen eta 016 zenbakira deitu behar zuena. Izan ere, Iraiderekin hitz egiterakoan esandako esaldi bat nire buruan geratu zen:

*“askotan iruditzen zaie komunikabideetan ateratzen dela emakume heldu bat hil duela bere senarrak eta gelditzen dira hor, ez? Eta **garrantzitsua da beraien errealitatera hurbiltzea indarkeria**, zen aurkitzen gera kasu pila bat non oraindik adin txikikoak diren eta indarkeria ematen den edo abusua sufritu dituzten edo indarkeria mota ezberdinak” (Iraide, berdintasun langilea)*

Indarkeria hori errealitatera hurbiltzea garrantzitsua da, ikusten diren Genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpaina gehienak emakume heldu bat dutelako protagonista gisa, baina nire ikerketa 15-25 urte tartean eginik horrelako delitu gehienak haiek jasotzen zituztelako jakinda ez nuen pentsatu agian hori identifikatzea zaila zela ez bazuten bere adineko inor ikusten bertan, pentsamendua izango zela: *hori beste belaunaldiko batekoei gertatzen zaie bakarrik*. Horrelako hurbilpenak lortzeko Lahiria Elkartetik zein programa motak egiten dituzten azaldu zidan:

“Bueno, ba adibidez daukagu programa bat (...) hirugarren DBHko ikasleekin lanketa bat egiteko, oso interesgarria iruditzen zaiguna guri dela baieztapenen bitartez. Baieztapen ezberdinak planteatzen dizkiegu eta beraiek esan behar dizkigute egia edo gezurra diren, baina azkenean garrantzitsuena da hausnarketa (...) daude baieztapen pila bat, daude 35, (...) beraiek erabakitzen

dutela zeintzuetaz hitz egiten den. Egokitzen gara guztiz beraien errealitatera, eta badaude baieztapen batzuk desde... pues adibidez, noizbait kaletik nindoala nire itsura fisikoari buruzko komentario bat egin izan didate. Eta hau da zerbait ba super sinplea, askotan ez duguna lotzen indarkeria matxistarekin eta gero ikastetxetan ari garenean hau komentatzen, beti gela guztietan ateratzen dena da pues jo, ba bai, denoi esan digute zerbait noizbait, baina ez da berdina zer esaten dioten neskei, zer esaten dioten mutilei, nola esaten diguten, zertarako, ez? Zer... azkenean hausnarketa oso politak ateratzen dira eta beraien egunerokotasunena gertatzen diren gauzekin lotu dezakete indarkeriaren gaia”
(Iraide, berdintasun langilea)

Ildo honetatik joanda bost kontzeptu interesgarriak agertu ziren: *autoestimua, maitasun erromantikoa, maskulinitatea, red flag* ¹⁷*eta amiga*“.

*"es que nik uste dut emakumeengandik landu behar dela pila bat **autoestimua**, landu behar dela **maitasun erromantikoa** ere eta gizonengan **maskulinitatea**, azkenean uste dut hortik joan behar dela gauza, zeren ez dakit... las **red flags** orain ere iruditzen zaizkit super interesgarriak baina klaro, nik red flag identifikatu ahal izateko autoestimu puntu bat izan behar dut eta bikote harremanen inguruan ere pentsamendu batzuk izan behar ditut, zeren nik maitasun erromantikoak sartuta baldin banago pentsatuko dut que todo que esto lo hace por amor eta que cuanto más no sé qué, es que más me quiere, ez?*

A: bai, txikitan esaten dizutenean te pega porque le gustas

I: klaro, hori da, eta ideia faltsu guzti horiek alde batera utzi behar dira, zeren bestela oso zaila... nola deituko duzu 016ra? ez bazara gai ezta ikusteko

¹⁷*Red flags* (edo *bandera gorriak* euskaraz) arriskuarekin lotu egin dira, egoera arriskutsu baten ohartarazpen-seinale gisa. Orain dela urte batzuk, sare sozialetara iritsi egin ziren pertsonen arteko prebentzio-seinale gisa, beste pertsonak (gehienetan gizonezkoek) egoera konkretuetan (bikote erlazio batean edo horretara bideratutako edo antzeko erlazio batean) arriskutsuak izan daitezkeen jarrerak eta portaerak agerian uzteko (Juárez, 2021).

harreman, zer harreman mota daukazun? Gehienetan guregana etortzen direnak dira lagunak lehenengo, genero indarkeria kasuetan batez ere, askoz errazago identifikatzen dute kanpotik gertatzen ari dena, ez? El amiga, date cuenta.”
(Iraide, berdintasun langilea)

Azkenean bost kontzeptu hauek eskutik bata bestea hartzen dute eta horrelako genero indarkeriazko delitu asko ekiditeko lagungarriak izango lirateke. Azkenean aisialdiko momentu batean mutil bat gerturatzea ez da txarra, baina maskulinitate positibo bat izatea edo maskulinitate toxiko bat izatea egoeraren ildoan aldatu dezake guztiz: lehenengo kasuan dena ondo joango da eta kasurik txarrean ez da adiskidetasunik sortuko, bigarrean, berriz, genero indarkeriazko delitu baten lehenengo pausua izan daiteke. Maskulinitate toxiko honek hainbat konportamendu desegoki ekarriko ditu, *red flag* izenarekin ezagutzen direnak gaur egun sare sozialetan eta askotan *maitasun erromantiko*arengatik pasatzen direnak konportamendu erromantiko bat bezala kezkatzeko ekintza bat bezala ikusi beharrean. Hala ere, horrelako *red flag*ak detektatu ahal izateko *autoestima* nahikoa behar da, eta *autoestima* hori ez badago edo nahiz eta egonda *maitasun erromantiko*aren kalteak handiegiak badira, neskaren lagunak sartzen dira bertan eta aipatutako *amiga, date cuenta* fenomenoaren ematen da, non lagunak eskua sartzen dute babes moduan arriskutsuak diren egoerak detektatu egin dituztelako.

Hau lortzeko modu bat galdetzerakoan ondorengo erantzun egin zuen:

“ere nik uste dut ikasi behar dugula.. jolastu behar dugula. Mutilek txikitatik jolasten dute, borrokatzen dira, ikusten dute zein indar daukaten, probatzen dute... eta guk inoiz ez dugu jolasten joko horietara, orduan ez dugu probatzen gure gorputza edo gure burua horrelako egoeretan” (Iraide, berdintasun langilea)

Egia esanda, mutilek txikitatik borroketan ibiltzen direla eta neskak beste joko lasaiago batzuetan ibiltzen direla generoko estereotipo bat da, emakumeak objektibo errazago bat bihurtzen, gutxienez biktimarioen ustetan. Azkenean, jolas mota hauek haurren hazkundera garrantzitsuak diren zenbait arlo indartzen laguntzen ditu, hala nola, motrizitate lodia eta fina, zentzumen-sistema eta norberaren gorputzaren ezagutza, “kausa-ondorioa” ulertzea, gizarte trebetasunak garatzen eta autokontrol emozionala eta erabaki hartzea (Cecilia P., 2022). Gure kasurako interesgarriak bi puntu dira: zentzumen-sistema eta norberaren gorputzaren ezagutza eta gizarte-trebetasunak.

Zentzumen-sistema eta norberaren gorputzaren ezagutza ekartzen du haurrak beren indarra menderatzen ikastea, gorputzaren dimentsioak eta muskuluen boterea ezagutzen hasten baitituzte; gizarte-trebetasunei buruz hitz egiten denean besteen lekuan jartzen ikasten dutelari egiten da erreferentzia, baita baliabide gehiago eskuratzen dituztelari agresibitatearen ordezeko erantzunak eman ahal izateko.

Hala ere, zaila da gai hauei buruz hainbat pertsonekin hitz egitea. Besteekin egindako elkarrizketetan ikusi izan dugu gaia ez dela guztiek tratatzen duten zerbait, eta elkarrizketa honetan erantzun berdina lortzen dugu, nahiz eta horren arrazoiak ezberdinak izan:

“ikusi behar duzu norekin hitz egiten duzun. Oso publiko konkretu batekin hitz egin daitezke gauza hauek, zeren... askotan batez ere familiarekin, ez? Hitz egiterakoan gai hauek dira gai batzuk eh... jende guztiak hitz egiten dituenak eta badaude iritzi pila bat komunikabideetan botatzen dituzten gauzekin lotuak daudenak eta... oso mingarria izan daiteke maite duzun jendearekin gauza hauetaz hitz egitea, zeren askotan ez dute ulertzen, ez? Eta ahal dizute izan beno, baina bere harreman horretan baldin badago bere errua izango da edo horrelako gauzak entzun daitezke askotan” (Iraide, berdintasun langilea)

Testigantza honek ez du bakarrik gaiari buruzko tratamendu delikatuaz hitz egiten, horretaz aparte biktimaren erruduntasun tratamendua argi uzten du. Biktima da, errurik ez dauka gertatutakoari buruz, baina gizarteak ez du hori ikusten eta, askotan, errua berea dela esaten du. Hala ere, nahiz eta pertsona batzuekin zaila izan gai hauetaz hitz egitea ez dituztelako modu egokian ulertzen, ez da egoerarik okerrera. Okerrago da itsutasuna ematen denean, itsutasun hori zuzena izan daiteke (ez ulertzeagatik gertaera, ekintza edo egoera delitu bat dela) edo zeharkakoa (ulertzeagatik gertaera, ekintza edo egoera delitu bat dela, baina beste alde batera begiratzuz edo ezer ez esateagatik), Iraidek berak esaten zuen: *“gauza txarrak gertatzen dira edozein tokitan, baino gero... todo el mundo finge que aquí no ha pasado nada”*.

Horren aurka bere iritzia ondorengo da:

“ez dago barita magikorik, baino nik uste dut behar ditugula historio gehiago non guk irabazten dugun. Azkenean publiko egiten diren historio guztiak dira

bortxaketa bat egon da, egin diote ez dagik zer... entzuten dugun guztia oso negatiboa da, eta normal, zeren errealitatea oso negatiboa da, baina badaude egoera asko ere non zerbait egiten saiatzen diren gurekin eta guk defendatzen garen, ez? Baino gero historio horiek inoiz ez dira publiko egiten, seguraski ez dira denuntziatzen kasu askotan. Agian horrelako historia gehiago entzungo bagenitu imajinatuko genuen gure burua ere defendatzen, ez?” (Iraide, berdintasun langilea)

Bere ustez ereduak behar dira, beste emakume batzuen testigantzak non dena ez den negatiboa. Egia da gauza negatibo asko gertatzen direla eta horiek ez direla ezkutatu behar, baina istorio horien ondorengoa (biktima hilda ez badago) ezagutzea lagungarria izango litzateke beste biktimentzat, baita biktima potentzialentzat nahiz eta oraindik deliturik jasan ez izan, arriskuko momentu batean horretan oinarritu daitezkeelako babes sentrazioa edo bere burua gai ikusteko erasotzaileari aurre egiteko, edo gutxienez berarengandik alde egin ahal izateko. Horretarako Espainiar Gobernuak bere generoko biolentziaren aurkako web orrialdean *testimonios de mujeres supervivientes* atal bat dauka, non istorio horiek ikusteko aukera egongo da. Arazoa honekin zera da, atal horretara iristea zaila da, ez da aurkitzeko erraza eta ez da hedatzen, hortaz ez da ezta biktimetara ezta biktima potentzialetara iristen.

Hori lortzen den momenturarte, Lahaia Elkarteak eta beste askok espazio seguruak sortzen saiatzen dira: *“saiatzen gara konfiantzazko harreman bat sortzen, espazio seguru bat non beraiek ba hitz egin dezakete” (Iraide, berdintasun langilea)*. Nahiz eta testigantza hau ez lortu azkenengo elkarrizketa arte, honen ondorioak Iratiren elkarrizketan jadanik ikusiak genituen: *“Guri, adibidez, ikastolan tailerrak eskaintzen dizkigute eta eroso sentitzen gara bertan hausnartzen eta gure artean hitz egiten” (Iraide, 15 urte, Oiartzun)*.

5. Ondorioak eta Hobekuntza Proposamenak

Ondorioekin hasteko gogoratu behar ditugu hasierako hiru hipotesiak:

1. Genero indarkeriako delituekiko ez da segurtasun sentsazioa handitzen, baizik eta beldur gutxiago sentitzen da. Prebentzio-neurriak aplikatzean sortzen den sentsazio-aldaketa.

Segurtasun sentsazioari buruz argi ikusi egin da lanaren luzera osoan segurtasun sentsazio hori baxuagoa dela kalean ezezagunekin, eta elkarrizketatutakoan artean pertsona ezagunen artean egotea segurtasuna edo babesaren sentitzeak ekartzen duela. Hau logikoa dirudien arren, datuen arabera alderantzizkoa da, objektiboki arrisku handiagoa dago ezagun batengatik horrelako delitu bat sufritzeko ezezagun baten eskutik baino. Horretaz aparte, galdetzerakoan ea segurtasun sentsazioa lortzen zuten (bai haiek hartutako neurriekin bai gobernuaren neurriekin) beldur gutxiago sentitzen zutela zioten. Hau argi uzten du ez bakarrik nire hasierako teoria egia zenik (ez dela segurtasun sentsazioa sortzen, baizik eta beldur gutxiago sentitzen dela), baizik eta marko teorikoan hitz egindako beldur subjektiboak irabazi egiten duela beldur objektiboarekiko, errealitateak ematen dituen datuak alde batera utzita eta beldur objektibotik aldentzen.

2. Emakumeek genero indarkeriako delituen aurrean segurtasuna bilatzeko gehien bat erabiltzen dituzten neurriak Babes Autonomoko neurriak dira. Emakumeek neurri hauek erabiltzen dituzte.

Egia da erakunde eta elkarte askok haien neurriak gehitzen dituztela gobernuaren neurrietara (neurri horietako bat izanda emakumeei eskatzea babes autonomoko neurriak hartzeko) emakumeek genero indarkeriazko delituetatik babesteko, baina nahikoak ez dira kaletik seguru daudelaren sentsazioa lortzeko eta babes autonomoko neurriak hartzen dituzte segurtasun hori lortzen saiatzeko ikusi egin dugu analisisian zehar. Horregatik, gehien bat erabiltzen dituzten neurriak babes autonomokoak direla ondorioztatu dezakegu, alde batera utzita neurri hauek balio handiago duten edo ez delitu hauen prebentziorako.

3. Gazteen pertzepzioa erakunde publikoen genero indarkeriaren aurkako neurrien inguruan hauek eznahikoak direla da. Beste bi hipotesiekin lotura izanda.

Hipotesi hau zuzena dela esan dezakegu, azkenean babes autonomoko neurriak hartzen dira gobernuaren neurriak nahiko ez direlaren sentsazio hori dagoelako, eta bere

kabuz sentsazio hori lortzeko hartzen dira neurri hauek. Ondorioztatu dezakegu honen konponketa prebentzioaren aldaketa bat izango zela, ikuspegian eta aplikazioan ere. Hau aurrera eramateko jadanik hainbat neurri hasi egin dira aplikatzen, adibidez Lahaia Elkarteak sortzen hasi izan dituen “espazio seguruak” gazteentzat, eta bide hau segitzea egokia izango litzateke.

Hala ere, nola tratatu beharko lirateke babes autonomoko neurri hauek genero indarkeriazko delituen arloan? Kontrol Sozial Formalaren guztiz barneratuz edo Kontrol Sozial Formalean utziz? Analiaren zehar ikusi egin dut hauen ezabatzea ezinezkoa dela, gizartearen parte garrantzitsu bat direlako, baina prebentzio instituzionalaren ikuspegitik erabiltzeari utzi beharko litzaioke. Laguntza ona izan badaiteke ere, neurri horiek kontrol sozial informalearen DNaren parte dira, eta, beraz, horren osagarri izan arren, ez litzateke kontrol sozial formalean sartu behar.

Hortaz, kontrol sozial informalearen parte garrantzitsua dira, belaunaldiz belaunaldi transmititu egin dira babes autonomoko neurri hauek, hala ere, genero-indarkeriako babes autonomoko neurriak kontrol sozial formaletik kanpo gelditu behar dira. Estatuak eta gobernu-erakundeek genero-indarkeriari aurre egiteko erantzukizuna dute, legeen, eskubideen babesaren eta justiziarako sarbidearen bidez. Genero-indarkeria egiturazko arazo bat da, eta botere-arauak eta -desberdintasunak aldatzea eskatzen du. Babes autonomoko neurrietan soilik zentratzeak errua biktimengan jarri dezake eta erasotzaileen erantzukizuna desbideratu. Kontrol sozial formalek berdintasuna sustatzen du, arau kaltegarriari aurre egiten die eta aldaketa kulturala eragiten du legeen, hezkuntzaren eta ahalduen bidez. Babes autonomoko neurriak kontrol sozial informalean mantendu behar dira eta kontrol sozial formalekin osatu behar dira, genero-indarkeriaren azpian dauden kausei aurre egiteko eta biktimentzako babesa eta justizia bermatzeko.

Hau guztiaz aparte, burututako analisiak ondorioztatzera narama (eta proposamenetan argi geldituko da) horrelako arazoak, nahiz eta ikuspuntu objektibo batetik analizatu eta aztertu nahi izan, aztertzerakoan subjektibotasuna ezin dudala alde batera utzi, ezta gizarteak eman ditzakeen tresnak ere ez. Problematika honen konponketa ingurumen kriminologiaren ikuspuntutik hasi nuen harren, aurrera joanda ikusi egin dut hezkuntza eta hainbat giza-zientzien eskuhartzea beharrezkoa dela, bai epe luzeko neurriak hartu ahal izateko bai epe motzeko neurriak hartzen diren bitartean hauen aplikazioan laguntzeko.

Proposamenak lan honetan agertzea beharrezkoa ikusi egin dut zentzugabea zelako ondorioztatzea prebentzioak aldaketa bat behar duela baina aldaketa horretan lagunduko zuenaren ezer ez proposatzea. Hiru proposamen dauzkat:

1. Genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpainen pertsona helburua aldatzea
2. Genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpaina motak aldatzea
3. Hiria prebentzio moduan erabiltzea

Jakin dugunaren arabera, genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpainak, gehienetan, biktimei edo biktima potentzialei bideratuta daude, inori gehiago. Hala ere, ezinezkoa da prebentzio lan bat egitea bakarrik biktimak abisatzen baditugu, biktimarioak edo biktimario potentzialak kontzientziatu behar dira portaera egoki bat izaten eta, horretaz aparte, bi paper horietatik ez bata ez bestea ez duten pertsonak genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpainen helburu izan beharko lirateke ere, genero indarkeriazko delitua sortu ditzaketen konportamenduak detektatu ahal izateko eta hauek geldiarazteko edo, laguntza eske norbait joaten bazaie, nola lagundu jakin dezaten.

Genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpaina mota aldatzearekin zera esan nahi dut: ezin da genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpaina deitu delitu bat jasaten ari bazara nola jokatu behar duzun esaten dizun kanpaina bati, ez baitu delitua prebenitzen; ezta ezin zaio deitu horrela zure kabuz defendatu zaitezten esaten dizun kanpaina bati, ez baitute laguntza bat eskaintzen prebentziorako. Proposamen hau lehenengoarekin lotuta dago modu batean edo bestean, genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpaina motak aldatzerakoan baita pertsona objektiboak aldatzen direlako. Genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpaina mota aldatzearen ideia Goizaneren testigantzatik sortutakoa da, berak proposatutako ideia genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpaina gisa interesgarria izan zen eta. Kanpaina mota aldatzearen adibide bezala erabiliko dut proposizio hori: genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpaina hau telebistan pasatzeko iragarki bat izango zen, orain arte asko izan diren moduan, baina emakumeak gizonen esku sufritzen dituen egoerak modu literalean aurkeztu beharrean, paper aldaketa bat emango zen. Genero indarkeriazko delitura eramaten duten konportamenduak jasango dituen pertsona (edo zuzenki delitua) gizona izango da, eta egoera hori sortzen duen pertsona emakumea izango da. Iragarkiaren helburua gizonetzkoa emakumearen paperean jartzea izango litzateke eta ikasgarritasun erroldaketa hau ematen denean jadanik ez

dela portaera normal bat bezala antzematen, hortaz errolak aldatu egin gabe ezta ez zela normaltasunez antzeman beharko.

Azkenengo proposamena hiria prebentzio moduan erabiltzea da. Marko teorikoan CPTED eta SCP izeneko estrategia batzuk azaldu egin ditut, zeintzuk delituen prebentziorako erabiltzen dira. Nahiz eta genero indarkeriazko delituetan ez espezializatu, estrategia hauek lagundu dezakete ez bakarrik delituen jaitzieran modu objektibo batean, baizik eta pertsonen beldur subjektiboa jaisten eta segurtasun sentzazioa igotzen ere.

CPTED estrategiarekin hastea izango zen egokiena, pertsonen parte-hartzea, mantentze lanak, behar bereziak eta jarduera positiboak dauzkalako jarraibide moduan. Hauek ez dute azpiegituren edo estrukturen aldaketa bat behar, pertsonengan dagoelako aldaketa etortzea edo ez, komunitatearen eskutan, zeinak boteredun erakundearen laguntzarekin (Espainiako Gobernua izan daitekeena edo hiri bateko udaletxea) egoera aldatzen hasten dena.

Beste estrategia, SCP, lan gehiago beharko zuen ez duelako bakarrik pertsonen laguntza behar, baizik eta estruktura eta azpiegituren aldaketa eskatu dezakeelako. Teknika hau bost elementu nagusi ditu: ahaleginak handitzea, arriskuak handitzea, helburuak murriztea, probokazioak murriztea eta aitzakiak ezabatzea. Elementu bakoitzak bere baitan hainbat azpi elementu dauzka, hori dela eta nahiz eta elementu nagusia azpiegitura edo egituraren aldaketarik gabe bete dezakegula pentsatu, haren azpi elementuak aztertzen diren momentuan ikusiko da gutxienez batean aldaketa beharrezkoa izango dela (adibidez, arriskuak handitzearen azpi elementu bat zaintza erraztea da, hori egiteko askotan argi kantitatea handitu behar da, edo zuhaitzen inausia, edota agian kalearen erreforma oso bat).

Estrategia objektibo horietaz gain, epe oso luzerako neurri batzuk proposatzea beharrezkoa da ere. Neurri hauek giza-zientzien eta hezkuntza ezberdinen eskutik etorri behar dira. Elkarrizketa batean agertu ziren bost terminoak (autoestimua, maitasun erromantikoa, maskulinitatea, *red flag* eta *amiga, date cuenta*) garrantzitsuak dira neurri hauek hartzeko. Nahiz eta azkenengo bi terminoak jadanik Interneten biralizatuak dauden gauzak izan, beste hiru terminoekin lotura daukate eta beharrezkoak dira hauek funtzionatzeko. *Red flag* eta *amiga, date cuenta* erakusten dituzte, jadanik esan dudan moduan, ezegokiak, toxikoak edo arriskutsuak izan daitezkeen egoerak edo portaerak, hortaz lehenengo pausua dira beste hiru kontzeptuekin proposatu nahi dudanarentzat.

Autoestimua, maitasun erromantikoa eta maskulinitatea deseraiki eta berreraiki behar dira. Autoestimua ezin da zerbait txarra bezala ikusi (estandar altuak jartzeagatik) ezta ezin da portaera desegokien aitzakia izan (berdin du besteek esaten dutena nire ustez ondo badago nik egiten dudana), hortaz erakutsi behar da autoestimu maila egoki bat izaten, bai emakumeei bai gizonezkoei, ulertzeko bakoitzak zer merezi duen bere buruarentzat eta zer ezin du egin nahiz eta bere buruarekiko ideia horiek guztiz egokiak izan.

Maitasun erromantikoa aparteko puntu bat da. Arazotsua da terminoa, batzuek esaten dutelako antzinako maitasuna dela, detaile politak dituena eta bizitza osorako irauten duena; beste batzuk, berriz, izen sarkastiko bat bezala ikusten dute toxikoak diren portaeren erromanizazioarentzat. Izan ere, maitasun erromantiko hau ke-laino bat da desegokiak diren portaera horiek estaltzeko, gaur egun salatzen diren portaerak estaltzen zituena (adibidez, emakumearekiko kontrol ekonomikoa) eta gau aisialdiko hainbat praktika antisozial premiatu eta sustengatzen dituena (adibidez, festan egonda gehiegi edan duten neskengan joatea ligatzera). Orduan honetan hezitu behar da, nola maitasun erromantiko honek arazoak ekarri izan ditu, ez kanpotik ikusten zenagatik, baizik eta ikusten ez zenagatik eta, horregatik, aldaketa bat eman behar dela, atez barrura gertatzen zen guzti hori salatuz eta ez errepikatuz.

Azkenik maskulinitatea ikusten dugu. Maskulinitate terminoa, tradizionalki, hainbat estereotipo ekartzen ditu non toxikotasuna edo indarkeria kutsuak aurkitzen dira. Hau arazotsua da berriro, askotan maskulinitatea gizon izatearekin lotzen delako, baina kasu honetan hortik urrundu behar gara, maskulinitate hori zein pertsonak daukan alde batera utzi behar da. Interesatzen zaiguna maskulinitate toxikoa da, arazoak ekartzen dituen maskulinitate mota da eta. Azkenengo urteetan hitz egin da maskulinitate positibo bati buruz, zeinak toxikoak, arriskutsuak edo negatiboak diren portaerak alde batera uzten ditu eta, horietatik hasita, berreraiketa bat ematen dio maskulinitateari (adibidez, maskulinitatea inoiz ez da umeen zaintzarekin lotu, maskulinitate positiboak umeen zaintza baita maskulinoa dela ekarriko luke, eta ez emakumearekiko laguntza bat bezala, baizik eta gizonezkoa izatearen parte bat bezala). Maskulinitate positibo honen adibide asko ikusi izan dira telesailetan edo filmetan azkenengoetan (Din Djarin, Peeta Mellark...), baita hainbat famatuen artean [Pedro Pascal, Daniel Radcliff, Harry Styles (azkenengo hau estetikoki gehien bat)...], eta honek errazten du epe luzeko neurriak hartzea, azkenean gizarteak badaukalako hainbat pertsona edo pertsonaia eredu gisa erabiltzeko. Maskulinitate positibo honetan hezitzea gizarteak lagunduko luke horrelako

genero indarkeria delituak ekiditen, baina epe luzeko neurri bat izango da belaunaldiz belaunaldi erakutsitako hainbat gauza aldatzea kosta egingo den zerbait delako.

6. Bibliografía

- Almecija Casanova, A. B. (2022). La seguridad con perspectiva de género: Experiencias en Cataluña. *Constructos Criminológicos*, 2(2), 87-108. <https://doi.org/10.29105/cc2.2-12>
- Almécija Casanova, A. B. (2023, 31 enero). Así funcionan en España los protocolos contra la violencia sexual en entornos de ocio. *The Conversation*. <https://theconversation.com/asi-funcionan-en-espana-los-protocolos-contra-la-violencia-sexual-en-entornos-de-ocio-198609>
- Ariste Mur, E. (2021). *Escucha activa: aprender a escuchar y responder con eficacia y empatía, cien diálogos*. Díaz de Santos. <https://www.casadellibro.com/libro-escucha-activa/9788490523155/12379570>
- Aruguete, N. (2016). Agenda Setting y Framing: un debate teórico inconcluso. *Más poder local*, 30, 36-42. <chrome-extension://oemmndcbldboiebfnladdacbfmadadm/https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/5788523.pdf>
- Ayuntamiento de Irun (2018, 10 de abril). *Prevención en el ámbito comunitario*. <https://www.irun.org/es/servicios-sociales/prevencion-adicciones/programas-preventivos/prevencion-ambito-comunitario#:~:text=Las%20actuaciones%20preventivas%20en%20el,y%20de m%C3%A1s%20agentes%20sociales%20con>
- Barberet Havican, R. (2006). *Manual de victimología*. Tirant lo Blanch.
- Clarke, R. V. G. (1980). "Situational" Crime Prevention: Theory and Practice. En M. Natarajan (Ed.), *Crime Opportunity Theories* (pp. 465-477). Routledge. <https://doi.org/10.4324/9781315095301>
- Dittman, J. (2008). El miedo a la delincuencia: Concepto, medida y resultado. *Revista Catalana de Seguretat Pública*, 18, 67-91. <http://www.raco.cat/index.php/RCSP/article/view/130144/179582>

- Eck, J. E. (2006). Learning from experience in Problem-Oriented Policing and Situational Prevention: The positive functions of weak evaluations and the negative functions of strong ones. *Crime Prevention Studies*, 14, 93-117.
https://www.researchgate.net/publication/237303319_LEARNING_FROM_EXPERIENCE_IN_PROBLEM-ORIENTED_POLICING_AND_SITUATIONAL_PREVENTION_The_Positive_Functions_of_Weak_Evaluations_and_the_Negative_Functions_of_Strong_Ones
- Eck, J. E., Linning, S. J., & Herold, T. D. (2023). Why Some Places Are Bad. En *Place Management and Crime* (pp. 11-22). https://doi.org/10.1007/978-3-031-27693-4_2
- Escudero Muñoz, M. (2019). *La prevención del delito desde el espacio y la arquitectura* [Archivo PDF]. <https://docplayer.es/83681381-La-prevencion-del-delito-desde-el-espacio-y-la-arquitectura.html>
- Evangelista García, A. (2019). Normalización de la violencia de género cómo obstáculo metodológico para su comprensión. *Nómadas*, 51, 85-97.
<https://doi.org/10.30578/nomadas.n51a5>
- Fernández, J. (2022, 26 octubre). *España es uno de los países de Europa más preocupados por la okupación. . . Y uno donde menos se produce*. Xataka.
<https://www.xataka.com/magnet/espana-uno-paises-europa-preocupados-okupacion-uno-donde-se-produce>
- Fondo de las Naciones Unidas para los Niños (2021) *Impacto de la tecnología en la adolescencia: Relaciones, riesgos y oportunidades*. chrome-extension://oemmndcblboiebfnladdacbfmadadm/https://www.unicef.es/sites/unicef.es/files/comunicacion/Informe_estatal_impacto-tecnologia-adolescencia.pdf
- Fundación Once. (2011, 16 noviembre). *El Miedo, qué es, efectos y afrontamiento*. Discapnet. <https://www.discapnet.es/salud/recursos/guia-de-las->

- Instituto de la Juventud (2019). *La violencia de género en los jóvenes: Una visión general de la violencia de género aplicada a los jóvenes en España* [Archivo PDF].
chrome-extension://oemmndcbldboiebfnladdacbfmadadm/https://www.injuve.es/sites/default/files/adjuntos/2019/07/estudio_violencia_web_injuve.pdf
- Instituto INUPSI. (2021, 2 diciembre). *Predisposición a ser víctima: Sección de criminología*. INUPSI. <https://inupsi.com/predisposicion-a-ser-victima-seccion-de-criminologia/>
- Jarque Llamazares, L. (2008). *Tema 4: La prevención victimológica*. [Apuntes de la Universidad de Alicante].
https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/2358/1/TEMA4_on_line.pdf
- Juárez, P. (2021, 14 diciembre). *Red flag: qué es y el significado de este término en redes sociales*. Glamour. <https://www.glamour.mx/articulos/red-flag-que-es-significado>
- Larruskain Mandiola, O. (2022). *3-6 gaiak: Ingurumen Kriminologia eta Hiri Segurtasuna* [Euskal Herriko Unibertsitateko apunteak].
- LISA Institute. (2021, 11 junio). *Lista de 9 consejos para realizar una entrevista criminológica con éxito*. LISA Institute.
<https://www.lisainstitute.com/blogs/blog/consejos-entrevista-criminologica>
- Lliebre, A. M. (2003). Prevención de la violencia de género en adolescentes. *Revista de Estudios de Juventud*, 62, 143-150. <https://www.justagomeznava.es/wp-content/uploads/2009/06/prevencian-de-la-violencia-de-ganero-en-adolescentes.pdf>
- Martínez, G. T. (2015). Beyond cartographies of women's fear of crime: Intersectionality, urban vulnerability and resilience through women safety audits in the Basque Country. *Eguzkilo: Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología*, 29, 325-344.
<https://addi.ehu.es/bitstream/10810/24362/1/178%20Varona.pdf>

- Martínez-Martínez, O. A., & Martínez-Carreón, Y. (2021). Percepción de la inseguridad y bienestar subjetivo en México: Una aproximación cualitativa. *Revista de ciencias sociales*, 169, 207-220. <https://doi.org/10.15517/rcs.v0i169.45492>
- Medina Ariza, Juanjo (2014). *Políticas de prevención y su marco institucional* [Archivo PDF]. [chrome-extension://oemmndcbldboiebfnladdacbfmadadm/https://openaccess.uoc.edu/bitstream/10609/77505/2/Pol%C3%ADticas%20p%C3%BAblicas%20de%20seguridad%20y%20prevenci%C3%B3n_M%C3%B3dulo%201_Pol%C3%ADticas%20de%20prevenci%C3%B3n%20y%20su%20marco%20institucional.pdf](https://openaccess.uoc.edu/bitstream/10609/77505/2/Pol%C3%ADticas%20p%C3%BAblicas%20de%20seguridad%20y%20prevenci%C3%B3n_M%C3%B3dulo%201_Pol%C3%ADticas%20de%20prevenci%C3%B3n%20y%20su%20marco%20institucional.pdf)
- Muratori, M., & Zubieta, E. M. (2016). La inseguridad subjetiva como mediadora del bienestar social y clima emocional. *Psicodebate*, 16(2), 95. <https://doi.org/10.18682/pd.v16i2.602>
- Naciones Unidas. (2007). *Recopilación de reglas y normas de las Naciones Unidas en la esfera de la prevención del delito y la justicia penal* [Archivo PDF]. https://www.unodc.org/pdf/criminal_justice/Compendium_UN_Standards_and_Norms_CP_and_CJ_Spanish.pdf
- Naciones Unidas. (2010). *Manual de legislación sobre la violencia contra la mujer*. Naciones Unidas. <https://doi.org/10.18356/3688f0b3-es>
- Noctambul@s (2017). *Observatorio sobre la relación entre el consumo de drogas y las violencias sexuales en contextos de ocio nocturno: Cuarto informe anual 2016/2017* [Archivo PDF]. [chrome-extension://oemmndcbldboiebfnladdacbfmadadm/https://bienestaryproteccioninfantil.es/download/1239/informes-estudios-e-investigaciones/41054/observatorio-sobre-la-relacion-entre-el-consumo-de-drogas-y-las-violencias-sexuales-en-contextos-de-ocio-nocturno-cuarto-informe-anual-2016-2017.pdf](https://bienestaryproteccioninfantil.es/download/1239/informes-estudios-e-investigaciones/41054/observatorio-sobre-la-relacion-entre-el-consumo-de-drogas-y-las-violencias-sexuales-en-contextos-de-ocio-nocturno-cuarto-informe-anual-2016-2017.pdf)
- Observatorio de Violencia (). #25N *La normalización de la Violencia de Género en la adolescencia y la juventud*. Observatorio de Violencia.

<https://observatorioviolencia.org/25n-la-normalizacion-de-la-violencia-de-genero-en-la-adolescencia-y-la-juventud/>

ONU Mujeres. (2021, 19 enero). *Enfoque en la prevención: Poner fin a la violencia contra las mujeres*. ONU Mujeres. <https://www.unwomen.org/es/what-we-do/ending-violence-against-women/prevention>

ONU Mujeres. (202, 24 noviembre). *Preguntas frecuentes: Tipos de violencia contra las mujeres y las niñas*. ONU Mujeres. <https://www.unwomen.org/es/what-we-do/ending-violence-against-women/faqs/types-of-violence>

Ortega, C. (2023). *¿Qué es una entrevista estructurada, semiestructurada y no estructurada?* QuestionPro. <https://www.questionpro.com/blog/es/entrevista-estructurada-y-no-estructurada/#:~:text=Las%20entrevistas%20semiestructuradas%20ofrecen%20al,investigadores%20y%20entrevistados%2C%20existe%20flexibilidad>

P, C. (2022, 3 mayo). *¿Por qué mi hijo juega a pelear?* Psiente. <https://psiente.com/hijo-juega-pelear/#comments>

Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. (2017, marzo). *Bizi kalitatea herri eta hirietan*. *Calidad de vida en pueblos y ciudades* [Archivo PDF]. chrome-extension://oemmndcblbdoiebfnladdacbfmadadm/https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_17tef1/es_def/adjuntos/17tef1.pdf

Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. (2022). 78. Euskal Soziometroa. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/sociometro_vasco_78/es_def/adjuntos/22sv78.pdf

Pinazo-Dallenbach, P. (2021). Los efectos de la inseguridad ciudadana sobre el emprendimiento: un freno al desarrollo de Latinoamérica. *Estudios de economía aplicada*, 39(3). <https://doi.org/10.25115/eea.v39i2.3876>

Pomares Martínez, A. M. (2015). Miedo al Delito. *Crimina*, 2659-4897.

- Robert, P. (2009). Seguridad objetiva y seguridad subjetiva. *Revista Catalana de Seguretat Pública*, 16, 91-102.
<https://raco.cat/index.php/RCSP/article/view/130652>
- Rogers, C. (1986). *Psicoterapia centrada en el cliente: práctica, implicaciones y teoría*. Ediciones Paidós.
- Rubio, B. M. (2021). La víctima ideal en los delitos de agresión y abuso sexual: ¿Es posible evitar la victimización secundaria? *Universitas*, 38, 2-22.
<https://doi.org/10.20318/universitas.2022.6576>
- San Juan Guillén, C., & Vozmediano Sanz, L. (2021). *Guía de prevención del delito: seguridad, diseño urbano, participación ciudadana y acción policial*. J.M. BOSCH EDITOR.
- Sanz, E. (2020, 21 febrero). Por qué emito ruidos como 'um' o 'em' cuando estoy pensando. *Heraldo*. <https://www.heraldo.es/noticias/sociedad/2020/02/21/por-que-emito-ruidos-como-um-o-em-cuando-estoy-pensando-1359981.html>
- SEXVIOL. (2022). *Desmontando Mitos acerca de la Agresión Sexual: Un estudio de caso sobre la Audiencia Provincial de Madrid* [Archivo PDF].
<https://www.ucm.es/sexviol/file/informe-sexviol-25-febrero-2022>
- Stefanizzi, S., & Verdolini, V. (2019). Bordered communities: the perception of insecurity in five European cities. *Quality & Quantity*, 53(3), 1165-1186.
<https://doi.org/10.1007/s11135-018-0810-x>
- Vega Fernández, E. (2017). El control y la prevención del delito como objeto de la criminología. *Miscelánea Comillas: Revista de Ciencias Humanas y Sociales*, 75(146), 171-194. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=6098281>
- Veschi, B. (2018, agosto). *Machirulo*. Etimología: Origen de la Palabra.
<https://etimologia.com/machirulo/>
- Vicente, S. (2018, 2 agosto). Víctimas convertidas en culpables: ¿Por qué no hay más denuncias por violencia de género? *Catalunya Plural*. Recuperado 21 de abril de

2023, de <https://catalunyaplural.cat/es/victimas-convertidas-en-culpables-porque-no-hay-mas-denuncias-por-violencia-de-genero/>

Vozmediano Sanz, L. (2010). Percepción de inseguridad y conductas de autoprotección: propuestas para una medición contextualizada del miedo al delito. *Eguzkilore: Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología*, 24, 203-238. <https://www.ehu.eus/documents/1736829/2176981/14-VOZMEDIANO.pdf>

Vozmediano Sanz, L., Guillén, C. S. J., & Iraeta, A. I. V. (2008). Problemas de medición del miedo al delito: algunas respuestas teóricas y técnicas. *Revista electrónica de ciencia penal y criminología*, 10. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2747635>

Vozmediano Sanz, L., & San Juan Guillén, C. (2010). *Criminología Ambiental: Ecología del delito y de la seguridad*. Editorial UOC. <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/eHu/56484>

Vuanello, R. (2009). Inseguridad urbana y sus efectos: Percepción de los jóvenes. *Revista Criminalidad*, 51(2), 33-46. <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/5157608.pdf>

Zuloaga Lojo, L. (2010). *La priorización de la inseguridad ciudadana como problema en la agenda pública* [Tesis doctoral, Universidad de Navarra].

Zuloaga Lojo, L. (2014). El espejismo de la seguridad ciudadana: claves de su presencia en la agenda política. *REIS: Revista Española de Investigaciones Sociológicas*, 153, 143-147. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/libro?codigo=814923>

Zumeta, N. (2018, 5 septiembre). *La percepción de seguridad*. Interempresas. <https://www.interempresas.net/Proteccion-laboral/Articulos/222939-La-percepcion-de-seguridad.html>

7. Eranskinak

7.1. “Guía para Sensibilizar y Prevenir desde las Entidades Locales la Violencia contra las Mujeres”-ko Kontrol Zerrenda

Lista 2. Criterios para saber si es apropiado un producto concreto (cartel, folleto, anuncio, cuña radiofónica, etc.) de una campaña de sensibilización.	SÍ	NO
Está claro el público destinatario a quien va dirigida la información.		
El mensaje (imagen y texto) que se transmite es comprensible por el público al que va dirigido.		
Hay coherencia entre la imagen (si existe) y el texto escrito o hablado.		
En el caso de textos escritos (carteles, folletos, etc.) el mensaje es accesible visualmente: el tamaño y el tipo de la letra ayuda a su lectura; y el texto no está muy recargado.		
El mensaje es claro (en el caso de un cartel, cuña o anuncio, maneja una sola idea; si se trata de un folleto, las ideas están ordenadas y son las suficientes pero no excesivas).		
El mensaje no es paternalista.		

... Lista 2. Criterios para saber si es apropiado un producto concreto (cartel, folleto, anuncio, cuña radiofónica, etc.) de una campaña de sensibilización.	SÍ	NO
El mensaje no responsabiliza de la violencia a las mujeres.		
El mensaje no victimiza a las mujeres.		
El mensaje no es fatalista.		
El mensaje no es sensacionalista.		
No se utilizan estereotipos sexistas.		
Si se trata de informar, la información facilitada es clara y suficiente.		

7.2. Elkarrizketen Gidoia

Lokalizazioa

Norberaren aurkezpen txiki bat egiteko eskatu.: Zenbat urte dituzu? Non bizi zara? Beti bizi izan zara hor? Zer ikasten duzu edo zertan lana egiten duzu?

Aisiari buruzko aurkezpen orokorra: Zer kirol egiten dituzu? Zer kultur jarduera? Zaletasunak? Oporrak? Asteburuetan zer egiten duzu? Festa giroan non eta noiz ibiltzen zara?

Honi buruz hitz egiten hasteko beste modu bat hau izan daiteke: Kontatu joan den astean lan edo ikasketetaik aparte zer egin zenuen (aste barruan eta asteburuan)

Adina, Generoa, Bizi-lekua, Festan ateratzeko lekuak

Babes Autonomoa

Kontatu azken aldia festa giroan atera zinela prebentzio ikuspegiarekin. Non atera zinen? Zeinekin? Etxera buelta nolakoa izan zen? Zer sentitu zenuen? Segurtasuna? Beldurra? Noiz eta non?

Orokorrean... galdera guzti hauek:

Festa girotik etxera bueltatzen zarenean, zein prebentzio neurri hartzen dituzu?

Zure lagunak etxera bueltatzen direnean, neurri horiek hartzeko esaten diezu?

Lagunaren generoa inporta al da?

Zergatik hartzen dituzu babes autonomoko neurri hauek?

Tokiaren arabera ezberdin sentitzen zara? Donostian edo beste herrietan?

Nondik ikasi dituzu neurri hauek?

Prebentzioa

Emakumeen aurkako biolentziaren inguruko prebentzio kanpainarik ezagutzen edo gogoratzen duzu? Zein? Azaldu zertan datza. Azaldu ze iruditzen zaizu kanpaina hori.

Zure ustez, zer da prebentzioa eta nola sumatzen duzu hauen aplikazioa kasu hauetan?

Zer iruditzen zaizkizu gobernuak ezartzen dituen prebentzio kanpainak?

Kanpaina partikularren bat gogoratzen duzu?

Zure ustez, zer dira kanpaina informatzaileak? (prebentiboen berdina erantzuten badute, galdetu ea gauza berdina diren haientzat)

Kalean dauden polizia patruilak delituen prebentziorako balio dutela dirudizu?

Orokorrean, prebentzio kanpaina hauen eraginkortasuna nabaritzen duzu?

Emakumeen aurkako biolentziaren inguruko prebentzio kanpaina bat diseinatu beharko bazenu zer mezu edo elementu azpimarratuko zenituzke?

Segurtasun Sentsazioa

Beldurrarekin hasiko nintzateke atal hau. Zure egunerokoan zer ematen dizu beldurra (orokorrean)? Ze egoera dira zuretzako beldurgarrienak?

Seguratsunarekin jarraituko nuke. Noiz edo norekin sentitzen zara segurua? Noiz ez? Espazioen arabera aldatzen da pertzepzioa (tabernetan, diskotekatan, kaleko dantzaldi edo kontzertu batean...)?

Gobernuak ezartzen dituen neurriak segurtasun sentsazioa ematen dizute?

Zure babes autonomorako hartzen dituzun neurriak segurtasun sentsazioa ematen dizute?

Benetan sentitzen duzu segurtasun handiagoa edo bakarrik arrisku gutxiago?

Segurtasuna sentitzeko zer beharko zenuke? Ardura postu batean egongo bazina zer neurri hartuko zenituzke seguruago sentitzeko?

Amaitzeko: Gai hauei buruz hausnartzen al duzu? Askotan? // Gai hauei buruz hitz egiten al duzu? Askotan? Norekin? // Gai inportantea dela iruditzen zaizu?

Eta elkarrizketari buruz ere: Zer iruditu zaizu elkarrizketa? Nola sentitu zara? Zer aldatuko zenuke?

8. Txosten Exekutiboa

Genero indarkeriazko delituen gaiak gizartean oihartzun handia du, batez ere, berriki jakin denean azkenengo 20 urteko 1203. biktima hil egin zela genero indarkeriazko delituen eskuetan. GRAL honen helburu orokorra genero indarkeriazko delituak ekidite aldera diseinatutako komunikazio kanpainek babes autonomoko neurriak zein modutara tratatu eta islatzen dituzten aztertzea izan da. Horretaz aparte, bi helburu espezifiko zehaztu dira: biktima potentzialak izan daitezkeen emakume gazteen segurtasun pertzepzioan izan dezakeen eragina aztertzea eta gizonezko gazteen ikusmoldea eta haien jokamoldeak aztertzea.

Hau egiteko, hiru oinarri aztertu eta erabili egin dira: genero indarkeriako delituen prebentzioa, babes autonomoa eta segurtasun sententzioa.

Genero indarkeriako delituen prebentzioa kontrol sozialaren eskutik begiratuko da, baita prebentzioak dituen hiru maila ezberdinetatik (lehen mailako, bigarren mailako eta hirugarren mailako prebentzioa).

Babes autonomoa, berriz, nahiz eta prebentzioaren alderdi bat bezala ikusi egin den, kontzeptu autonomo bat bezala aztertu izan dut lan honetan. Babes autonomoa hainbat neurrien aplikazioan oinarriturik existitzen da, eta neurri horiek pertsona ezberdinen artean ezberdinak izango dira, ez bakarrik pertsona bakoitzak neurri ezberdinak hartuko dituelako, baizik eta neurri berdina harturik ere, pertsona bakoitzak modu ezberdin batean aplikatuko duelako eta efektu ezberdinak sortuko dituelako.

Azkenik, segurtasun sententzioa, beste bi kontzeptuekin batera doana: Genero indarkeriazko delituen prebentzioa segurtasun sententzioa sortzen ez duenean babes autonomoko neurriak hartzen dira. Segurtasun sententzio hau zerbait subjektiboa da, ez objektiboa, hortaz pertsona bakoitzak sententzio ezberdin bat izango du egoera berdinean, horrekin jakiten da baita ere neurri berdinek segurtasun sententzioa igoko edo jaitziko duela egoeraren eta pertsonaren arabera, naiz eta neurri berdina aplikatu.

Oinarri hauen aztertzea hiru hipotesien baieztapena edo ezeztapena lortzeko egin da, ondorengoak izaten hiru hipotesi horiek:

1. Genero indarkeriako delituekiko ez da segurtasun sententzioa handitzen, baizik eta beldur gutxiago sentitzen da.

2. Emakumeek genero indarkeriako delituen aurrean segurtasuna bilatzeko gehien bat erabiltzen dituzten neurriak Babes Autonomoko neurriak dira.
3. Gazteen pertzepzioa erakunde publikoen genero indarkeriaren aurkako neurrien inguruan hauek eznahikoak direla da.

Hau lortzeko ikerketa kualitatibo bat burutu egin dut, elkarrizketa erdiegituratuak burutuz zazpi pertsoneri (genero indarkeriazko delituetan aditu bat, hiru gizon gazte eta hiru emakume gazte), izaten hauek Donostiakoak edo Oarsoaldeakoak. Aurkitako zailtasun nagusienak elkarrizketatu beharreko gizonezko batek luzamenduetan ibili egin zela eta erakundearen eskutik erantzunik ez jasotzea (azkenean elkarrizketatuak aldatuak izan ziren erreserban zeuden beste pertsona edo beste erakunde batzuegatik) eta, nagusiena, denbora falta sakontasunez aztertu ahal izateko gai bakoitza.

Elkarrizketa bakoitzaren analisia egin ondoren bost atal ezberdinetan banandu dut analisi hau. Lehenengo atalean ikertutako kontzeptuen analisia daukagu, no prebentzioari buruz, babes autonomoari buruz eta segurtasun sententzioari buruz esandakoa aztertu egiten da.

Bigarren atalean emakumeen ikuspegia aztertzen da, hiru emakume gazteen elkarrizketen konparaketa egiterakoan zein berdintasun eta ezberdintasun aurkitzen ziren aurkezten atalean.

Hirugarren atalean, berriz, gizonezkoen ikuskerak aztertzen dira, hiru elkarrizketen azterketa eta konparazioa egiterakoan berriro ere haien arteko ezberdintasun eta berdintasunak bilatuz eta aurkeztuz.

Laugarren atalean aurreko bi atalen arteko konparaketa aurkitzen da, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak bilatzen, aztertzen eta aurkezten direlako. Desberdintasun hauek batzuetan elkarrizketa guztietan ikusten ziren, eta beste batzuetan bi elkarrizketetan, eta hipotesiak ezeztatzeko edo baieztatzeko erabilgarrienak izan dira.

Azkenik, bostgarren atalean, adituaren ikuspegia aztertzen da, hark emandako hainbat kontzeptu interesgarriak momentuan ikertzen edota aurrerago, proposamenetan, erabiltzen.

Analisiaren ostean, hasieran planteatutako hiru teoriak zuzenak zirela ondorioztatu egin dut, modu orokor batean edo hainbat puntualizazioekin, baina hau ez da lortutako ondorio bakarra.

Analisian zehar ondorioztatu egin daiteke babes autonomoko neurriak genero indarkeriako delituetan ezabatzea ezinezkoa dela, gizartearen parte garrantzitsu bat direlako. Laguntza ona izan daiteke neurri hauek, kontrol sozial informala DNAREN parte direlako, baina hor gelditu beharko litzateke gauza, kontrol sozial formalek kanpo uzten horrelako neurriak.

Horretaz aparte, ondorioztatu izan dut nire hasierako ikuspuntu objektiboa ez dela nahikoa horrelako arazoentzat, subjektibotasuna eta gizarteak eman ditzakeen tresnak beharrezkoak dira. Problematika honen konponketa ingurumen kriminologiaren ikuspuntutik hasi nuen harren, lana aurrera eramaten nuen bitartean ikusi egin dut hezkuntza eta hainbat gizarte-zientzien eskuhartzea beharrezkoa dela, bai epe luzeko neurriak hartzeko bai epe motzeko neurrien aplikazioan laguntzeko.

Hiru proposamen nagusi aurkeztu izan ditut:

1. Genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpainen pertsona helburua aldatzea. Kanpaina hauek ez izatea biktima helburu gisa bakarra, baizik eta pertsona helburu gehiago izateko aukera egotea (adibidez, biktimarioa edo kasuen inguruko pertsonak).
2. Genero indarkeriaren aurkako komunikazio kanpaina motak aldatzea. Kanpaina hauetako askok zerbait gertatzen den ondoren ekintza bat burutzean datza, proposamenean aipatzen dudana benetako prebentzio batean oinarritzea da, zerbait gertatzera itxaron behar ez izatea.
3. Hiria prebentzio moduan erabiltzea. Hau SCP eta CPTED estrategien erabileraren bitartez lortuko litzateke, batarekin hasiz epe motz eta ertaineko helburuak ezartzen eta bestea epe luzeko helburuak ezartzeko (eta burutzeko) erabiliz.

Baina, esan bezala, epe luzerako neurriak beharrezkoak dira baita ere, eta ez bakarrik ikuspuntu objektibo batetik, hortaz hiru kontzeptuen lanketan oinarritzen epe luzerako neurri batzuk proposatu ditut ere. Kontzeptu hauek genero indarkeriazko delituen aurkako adituaren elkarrizketatik atera ziren eta ondorengoak dira: autoestimua,

maitasun erromantikoa eta maskulinitatea. Hauen lanketa bai gazteengan derrigorrezko hezkuntza arloan bai gizarte osoan aplikatuz berdintasun handiagoa ekarriko du emakume eta gizonen artean, genero indarkeriazko delituen prebentzioan laguntzen horrela.